

★ EUSKERAZKO IDATZ-LANAK

ATUTXA'tar Paul adiskide aundia ta lauskide eginkorra
etoni jatan nita Sauti Onaindia'ren bidez. Olako lagun-
tzaillek bear dauz Euskerazaintza Euskeraren Enri-Aka-
demiak.

Paul'ek aspaldion asko idazten dau eta geroago
ta obeto idatzi be, bai "ZER"en eta bai Eusker-
zaintza Alduzkarian. Gainera, Euskerazaintzaren naiz
Euskerazaleen batzaretako batzar-argiak idazten
dauz. Zelan agertu zor dauzaguun esker orra?
Imen, ingurayti lez, agertu dira bere lan asko.
Zoriona ta eskemik asko.

Mungia'n, 2002'ko irailaren 2n'ean

Olazar. tar Muntia'ek
* Euskerazaintzaren londa-
karia ta Euskerazaleak
Akatzearen londa-karia
Orde

NIRE EUSKERAZKO LEENENGO IDAZ-LANAK DIRA, OLAZAR`TAR MARTIN`EK
ALEGINDU ETA IDATZ-LANAK ZUZENDU`AZ. GEROAGO, LATXAGA`K ERE
BADAUKA BAI ! ETEN-BAKO ALEGIÑAZ ETA ERAKUTSI`AZ IDAZLEAREN
ITXURAN AGERTU NAITEN.

BIERI NIRE BIOTZEKO ESKER-MIN AUNDIENAK
EUREN LAGUNTZA AIN EDERRA IZAN DALAKO
NEURE EUSKAL-SEN OSOA LORTZEKO.

" ZER " ALDIZKARIRAKO IDATZITA DAGOZ IDAZ-LAN AUEK:

1997`EN ABENDU`KO 17`TIK - 2.001`AN LORAILLA`REN 31`RARTE.

EKIÑ-ALDI BAT BETETAN DABE IDAZ-LAN AUEK 2.001`AN LORAILLA`REN

13`RARTE. LORAILLA`REN 13`TIK AURRERANTZA BESTE EGIN-ALDI ZO-

RAGARRI BAT, EUSKALERRIA`REN ASKATASUNARENTZAT GAUR IKUSTEN DALAKO.

LATXAGAK ESATEN DAUAN-LEZ:

" EUSKARAZ IDAZTEN DAN BERBA BAKOTZA
MENPERATZAILLEEN IPURDIAN OSTIKADA
GALANTA DALAKO ". NORTASUNAREN ORDAÑA
EDO ORDEA DALAKO EUSKAL NORTASUNA LOR-
TZEKO.

I.....-	LANGINTZAREN III IRAULPENA ?	
	NOR DA ARKIDUN EDO MEREZDUN ?.....	4
II.....-	AZTERKETAREN ORDEA.....	5
III.....-	ABERTZALEAK KALAGORRIAN !.....	6
IV.....-	EUSKERA ZALEAK LOGROÑO`N.....	7 - 8
V.....-	BARRENDIK ETA ARRITURIK BEGITZEN DODAZ GIZONAK.....	9
VI.....-	ESANAK ".....	10
VII.....-	BIDEAN.....	11 - 14
VIII.....-	ZANGOTZA ETA IRUNBERRI`KO IKASTOLAK.....	15 - 21
IX.....-	ASKATASUNEZKO DENBORAN ERABILKETA.....	22 - 23
X.....-	ERRI`EN ASKATASUNA.....	24 - 25
XI.....-	CONSERVADORES..., SOCIALISTAS... HOY ?.....	26 - 33
XII.....-	NAFARROATIK IKERTZAILE.....	34 - 35
XIII.....-	MEREZIMENDUA !.....	36 - 37
XIV.....-	ARANA ETA GOIRI`TAR SABINO`REN BURUZ ITZALDIA.....	38 - 46
XV.....-	SABINO`REN NORTASUNA.....	47 - 64
XVI.....-	" BIDALGOA ".....	65 - 66
XVII.....-	BURUZBIDEA`REN ASKATASUNA.....	67 - 72
XVIII.....-	EUSKARA UESKAN.....	73 - 74
XIX.....-	EDERTASUNA.....	75 - 76
XX.....-	SELLUAK EUSKARAZ.....	77 - 79
XXI.....-	GUDA GARAIKO GERTAKIZUNAK " ELGETAN ".....	80 - 83
XXII.....-	IDAZLE FUSILATUAK.....	84 - 85
XXIII.....-	IZKILLATUAK NOLA IZAN DIRA OSPATUAK EUSKALERRIAN ?.....	86 - 89
XXIV.....-	NUN IL ZITUZTEN ABERTZALEAK ?.....	90 - 91
XXV.....-	ZELAN ASKATU ZIRAN GAL-BIDETIK EUSKO-GUDARI TA EUSKALDUN -	
	IZKILLATUEN AZKEN MEZUAK OSORIK.....	92 - 93
XXVI.....-	LUR-GORRI.....	94 - 100
XXVII.....-	AITON GAZTE IRUZURTUTA.....	101 - 105
XXVIII.....-	ABEND-IZTI`AREN ERAKUSKETA ARTETA ERRIAN.....	106 - 107
XXIX.....-	UNAI`REN AMA.....	108 - 110
XXX.....-	LOS-ARKOS`EN EUSKARA.....	111 - 112
XXXI.....-	EUSKALDUNAK NEURTUTA ?.....	113 - 117
XXXII.....-	YEBRA DE BASA`N, SANTA OROSI`REN JAIA.....	118 - 119
XXXIII.....-	APAIZ, LEKAIDE/LEKAIME ABERTZALEARI OMENA.....	120 - 122

XXXIV...-	ODOLAREN MINTEGIA ZORNOTZAN.....	123 - 124
XXXV....-	BIDALGO IKURRAK (SELLUAK) EUSKERAZ.....	125 - 129
XXXVI...-	BIDALGO IKURRAK EUSKARAZ (ITZALDIA).....	130 - 138
XXXVII..-	NAFARROA`TIK ZEAR " MARTZILLA`RA ".....	139 - 140
XXXVIII.-	EUSKAL-BARRUA MARTZILLA`N.....	141 - 142
XXXIX...-	ARETXABALETAN OMENALDIA.....	143 - 144
XL.....-	NAFARROA`N ERRIBERA`KO GIZONAK.....	145 - 147
XLI.....-	ZORRONTZAN " ARKALAZ " ALDIZKARIA.....	148
XLII....-	EUSKALERRIA ARANA`TAR SABINO BAIÑO LENAGO.....	149 - 150
XLIII...-	KARKASTILLO`TIK (ZARAGAZTELU) ZEAR.....	151 - 153
XLIV....-	EUSKALERRIA ARANA`TAR SABINO BAIÑO LENAGO.....	154 - 158
XLV.....-	BAKERAKO BOTOA`RI ZEAZTASUNA.....	159 - 160
XLVI....-	AGILAR`EN MENDARTE`TIK.....	161 - 163

IDATZITA.....: ZORNOTZAN 1997`en ABENDU`KO 17`an
ARGITARATUTA :

LANGINTZAREN III IRAULPENA ?

NOR DA ARKINDUN EDO MEREZDUN ?

=====

Gogo-emoile edo pentsalari izartzen naz batzutan, neure bizitzako ardurak, neurriz ala neurritik kanpo egiten dödazen. Beti, edo geienetan, agertzen da gogokoaren azpitik jakituna, ainbaten irakurritako gaien bat. Gaurkoa, Lopez eta Arriortua`tar Inaki`ren gogapena da, langintzari buruz III`en iraulketa da-la-ta.

Nik esango neuke orretaz, beste aukera berezi bat dala gizonentzat ordearen bidean jarraitzeko; au da: NEURRIAN edo ARDURADUNAREN ordezkartzan kokatzeko.

Badaukaguz ba, baietza eta ezetza. Nori ?. Zalantza barik, izadiak daukan legeari !. Orregaitik agertzen gara, BERAK (JAINKOA) ipinitako lege-neurriaren ordezkari. Eta or agertzen dira GAIA eta ARIMA. Leenegoari baietza emon ez gero, edo ezetza ordearen ardurari, GAI batu zale agertzen garela ezan gura dogu. Bigarrena, edo ordezkartitzako ardura artzen ba dogu, ez dogu bakarrik azkatasunaren bidea besarkatzen, bai JAINKOA`ren agindua bete be egiten dogu.

Leenengoa besarkatu ez gero, ardurabakoak agertzen garela esan bearrezkoa da; orregaitik: zentzuaren, amaitu ezinezko egarria betebearrean beti egon bearra ezango geunke, gaur sortzen dan lez. Norberak batu ez gero besteen ardurazko GAIA: dirua, lurraldea, gizona (bere ardura ta guzti), ez bearra baino ez da agertzen: nekea, negarra, illuna, ez jakina, inperioak, menperatasuna, eta abar. Eta ezin geran lez geratu ludi onetan, BERAK DAUKOLAKO bidea ipinita, bai martxan ere ipini egin gaitualako; " jokoz kanpo agertzen gara ". Orduan, nai eta nai ez beste bidea artu bear dogu. Begitu !, non agertzen dan IRAULTZAREN derrigorra !.

Bigarrena artu ez gero, bakoitza bere ardurarekin askatazunera doa; au da: bakotxak bere ardura beteaz JAINKOARENGANA. Orrek esan gura dau BAKOTXARI BEREARE, eta " SEÑOR TRABAJADOR " esan eta egiten dauan lez Lopez eta Arriortua`tar Inakik, ortik ere arrazoi galanta dauala.

Bide okerra artu ez gero, berezko muga beti agertzen da, apurtu dana ezin; eta aurrera tirtetu ez gero, bereala ONDAMENDIA, PORROTA. Orregaitik izan bear dira MORALAK edo OITURA ONETAKOAK gure bearrezko lanak eta ardurak, BERAK agintzen dauen neurrian bideratuta, gure alegin guztia bideratzeko.

EUSKALDUNAK, EZ DAU ESATEN EDOZER GAUZAGAITK " LEGE ZARRA !"

ATUTXA`tar PAUL

IDATZITAKO: ZORNOTZAN 1997`en AZARO`ko 25`an
ARGITARATUTA:

A Z T E R K E T A ` R E N O R D E A

Orain dala denboratxua, karmeldar batekin berbetan egon nintzan, gure aberriaren gora beerako arazoai buruz. Puntu asko ikutu, eta ulermenik ez dala gure artean agertzen ikuziaz, logikara joan ginan.

Nere iritzi au emon nebanean: " azterketarako gaieztasunean agertzen gara gaur esan neutson. //- Ainbesterako ete da ? //- Bai! danok gabiltzelako gizonaren arrazoiak; eta ori danok dakigu " norberekeriko jokoan guztiz sartuta egotea dala.

Ainbesteko abertzaletasun, edo errikotasunezko motak aoz-ao eta gaur eguneroko barrikaritan erabiltendalako lotsarik gabe; inor ez, edo gente gitxi argitzen dala uste dot. Zergaitik ?. Jainkoa alboratu egin dogulako, sabelak gustiz zabaldu egin doguzelako, eta dana iruntsiteko prest agertzen garalako besteen ardura barik. //- Ik, uste dok ori olan dala ? //- Bai! eta gainera ezaera oso zaarra dauka: (andra zaarrak, gasteari aolkua emoterakuan) " Gizonak pozik eukiteko, sabela bete eta sabel-bekoa argi ibilli ".

Orrek esan gura dau, gure andra zaarrak baino, beste baten batek be bakiala; errez ikusten diralako gaztetasunezko jazarraldiak zeintzuk diran, eta albotik sartutakoak nork eta zertarako sartuak diran.

Orduan ?. Lan ikaragarria daukagula oitura zaarren ariari eltzeko, eta illuntasunezko itsuera emoten daben orbel alperrezko mordotik aren baten baten arin aterateko.

Zelan ?. Talde guztiak, ez daukaguz alkartzeko batzordeak ?. Begitu ba, non egin daitekezan erri-gizaren ulermenerako solas-aldiak; bai ere, abertzaletasun guztia Euskadiren egarrizko alkartasunera bideratzeko.

ATUTXA`tar PAUL

ABERTZALEAK KALAGORRIAN !

=====

Egun ederrak izan ziran benetan Abenduko oneik, 14 eta 15`ta Kalagorri, Andosilla, Lizarratik zear gizon aundi baten laguntzaz. Jose Mari (Latxaga). Apaiza bera, Jainkoa eta Erriagaitik bizi guztia emoten dauana.

Euzkerazaintza`ren azkeneko batzarrean, Azilla`ren 29an bete egin zana; berak laguntza eskatu eban bidai ori bete egiteko, euskeraz ikasi gura dauan talde bat bideratzeko, eta nik lagundu egingo nabela esan neutson.

Bere etxean baskaldu gendun, Donostin ain zuzen, bere arrebak ondo apaindua eta arrain mota berezi bat leenengoz jan neban; arrain gorria esan eban zala Jose Mari`ren arrebak, guk Urraburu edo Urre-arrain esaten dautsagu.

Lauretan urten gendun etxetik Lizarra`rantza Andosillan geratzeko. Seiretan eldu ginan, eta bereala Josetxo`ren etxera joan ginan. Or, nire leenengo arrigarritasuna: bertako abertzale zintzo bat aurrez-aurre topo egiteaz, euren nortasunagaitik guztiz arduratuta. Bere amak zabaldu euskun atea, eta ondo artuak izan ginan. Etxe nasaia zan, garbia eta ondo apaindua; lekua moztu egiten daberen alper bitxikeririk ez zan egon, eta ori bakarrik niretzat gauza asko esaten dauzena da. Bai erreztasun eta zentzun aundiko alkar-izketarako be. Andra ona benetan !.

Sei ta erdietan urten gendun Kalagorri`runtz, eta ordu laurdenean bertan egon ginan. Laster aurkitu gendun taldea, eta bertan, tabernako mai baten jarri ginan. Jose Mari`az, ditekeen guztiak uste dot ikutu zituela laguntzari atzemateko. Urduritasun gogorak ikusi nebazan mai ortan !. Azken batez, dantzari talde baten bidez gogoratzen azi ziran, eta Jose Marik, astean baten joango zala eurongana auskera irakasteko, eurok gero irakasleen ardurak betetekotan.

Talde makala ez da, amalau gazteen artean olango ardurak euki ez gero euskera eta nortasunari begira. Aiek bai bizi dirala umezurtz, xurtx edo babesgabe !. Zer egiten dogu guk ?.

Bazkal-apariketa txiki bat egin gendun ardan-etxe " bodegòn " deritxonean, eta agurtuaz, itzuli ginen Andosilla`runtz Josetxo bere etxean itxiteko, eta gu Lizarrarantza, an Jose Marik daukan etxe-bizitzan lo egiteko.

Etixerako bidean, mendi gainean geratu ginan Jose Marik eskatuta, eta itaun egin eustan: " Zer esaten dautzazu edertasun onetzaz ?". Begitu neban, eta ango aretx, pago billustuak, euren orriak zelairatuta eta goroldi basterrak agirian dagozela ain egun zoragarriarekin; nere ustez, pakearen irudi zoragarri bat agertzen zan, batez be begi eta biotzean. Orren gogamenekin: JAINKOA`ren edertasun-eredu gurentzat erantzun neutson. " Lan bikainaren orde. Pakearen irudia. Lasaitazunaren irudi zoragarria. Bere lanetik artzeko esaten deuskuna, beraren neurrizko ardura beteekin " eñan az.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 1998`ko URTARRILLA`ren 14an

Egun zoragarria izan da au, Otsailla`ren 7`koa. Batez be, merezigarritzko gizon baten laguntzaz, Logroño, Kalagurri, Andosilla`tik zear.

Urtarrilla`ren 31`n egin zan Euskerazaintza`ren azkeneko batzarrean; Latxagak, Otsailla`ren 7an, Logroño`ko ikastetxe nagusira joan bear gendula esan eustan; an, goizeko lltan " EDIFICIO KINTILIANO " deritxon etxe-atal bateko sarreran, " LAMIN ITURRI " izendatuko-talde baten buru egiten dauan gazte bigaz alkartzeko.

9`ak lauren gutxiagoan urten gendun Donosti`tik, eta 11`k baino minutu bi lenago bertan egon ginen. Laster agertu ziran gazte bi: Perujo`tar Jose Mari eta Martinez Saenz de Kubero`tar Martin. Aurkezpeneko agurtzapenekin, bereala, gogatsu eta biotz zabalak daukan indarrarekin asi ziran esaten euren asmoak zeintzuk ziran: Leenengoa, ez zirela Errioxa`tarrak, Naparrak zirela; euren lurraldeko izen edo deitura guztia euskerazkoa dalako, eta ori, " Arbasoak Euskaldunak zirelako ". Martin`ek bere esanetan ain argi eukala ikusiaz, itaun bat egin neutson edesti aldetik, eta ikusi neban bai ! Ikastetxe-Nagusiko ikasleak zirela benetan.

Bigarrena, euren taldea, amar gazteren artean beteten ebela, eta asmo guztia euskaraz ikastea zala benetako euskaldunak izateko, lurraldeko edestia aaztu barik. Ori bai !, politikako arlotan sartu barik, inork ez daiten mindu.

Irugarren, antolatzaile-gailuan gaur " INTERNET " deritxon mezu-bide barri-
ra be sartuta dagozela, bear diran galderak bideratzeko, eta euskal-ludiko sen-
aren iturritik, gaur berak emoten daben erreztasunaz egarria asetzeko.

Artean, Perujo`tar Jose Marik esan eustan: itz-sustrai edo itz-etorkian, buru-belarri sartuta dagoala taldea. Baneukela abizen itz-errozko iztegi bat erantzun neutson, eta bialtzeko geratu nintzan.

Mezu-bide onetatik jakin ebazan Latxaga Jaunak " LAMIN-ITURRI`ren " barriak, eta urrutizkin-bidez euren kokamena, ainbat lekutan ikututa.

Alde zaarreko akeitegi batera joan ginan, aurkezpen ostean, alkar-izketarako.

Ekin-bidea, beti eroan eben eurak, Jose Mari (Latxaga) eta ni, oar-lekutik begira gengozala. // Nundik nora aurkitu zenduen " " LAMIN-ITURRI " izen ori ? // . " Rio-Oja " izenaren itz-sorkuntz edo itz-sustraian billa joan ginan ostera baten Azkarai ingurura, Oja-Kastro`ra ain zuzen; Oja ibaiak izena artzen dauan jaio-tokira, eta an, bertan, iturritxo bat dago " LAMIN-ITURRI " deritxona; ortik artu gendun gure taldearen izena.

Izenaren ara-berako izakeratan, itaun egin neutson Perujo`tar Jose Mari`ri: ez ote da izen berezi bat au (" LAMIN-ITURRI "), eta bestea (" RIOJA ") egi-
ndakoa ? // Zer esan nai dozu ? // Gizonak, izendatu ez gero, itzak daukan

esaeraren kanpo aldetik ezer ezean geratzen dalako da au, ez dau esan gura ezer. Eta alan jokatu ez gero, lekuaren eta gizonaren sustraia galdu egiten dau; gizona, lurralde eta gauza guztiak gure ezagueraren artu-emonerako utsik itziaz ;. // Zergaitik ? //. Zuek len esandakoagaitik !. Errioxa`ko izenak ez daukala-ko zentzurik, Ibero-ibaia edo Ebro-ibaia izan ezik, zeozer izendatu gura ez gero !. Eta arrazoia daukazue BAZKONUN ERRIA edo NAPAR ERRIA zariela ezanaz. Ez arinagoko izenak diralako, bai izen bereziak diralako !.

Martin, luzaro ibili zan esaten: " abade baten laguntza euki bagendun gure siñisgarritasunerako, taldea ugaritu egingo zan ". // Eta ori ?//. " Garrantzzi aundia emoten dautzagulako gure gazteen artean sinis-bideari ".

Bai !, Lizarran, Jose Mari`ren etxean igande arrastirarte geratzeko, alegin azko ebezan biak. Orduan bete ebazan Latxagak leenengoz Martin eta Perujo`tar Jose Mari`ren ardurak: " ezin dogu ori egin, biar goizean MESA SANTUA emon bear dotelako ". // Or abadea ! //.

Jose Mari`k (Latxaga), gure alkar-izketa amaitutzat emon ebanean, urten gendun akaitegitik gurdia kokatuta egon zan lekurantza. Bidetik, Sagardotegi baten aurretik goazela, Latxaga ez zan egokitu bere buruaz, eta bazkaldu egin bear gendula bertan esan eban. (Ez da arritzekoa, danon poza ikusiaz).

Baskal-arteko alkar-izketan, bai bete ziran euren kezkek. Abadeena aurrean euki ebelako; baina, nun ziurtazuna, an erabiltzen ziran ikasgaiak. Orduan Latxagak, esan bearra eukan, bere leenengo irakasle-mailla Teologian zala; bigarrena Antrpologian, eta irugarrena izkuntz-jakintzan edo izkuntza-laritzan.

Euren izakerari buruz esan bear dot: Perujo`tar Jose Mari, Euskal-Filologia ikas-nai dabillela Ikastetxe-Nagusian. Begi-zorrotzekoa, somakaria dala; bai, berba gitxikoa be, bere zuurtasun edo zentzuzko izakerak agertzen dauan lez.

Martinez eta Saenz de Kubero`tar Martin alde-erantziz, gartsu, gogo beroz, agertzen zan bere izakeran. Askatasunezko egi bideari atzeman, topo egin edo beretzat erabakita egon ba zan lez. Kimika ikasle dabil Ikastetxe Nagusian.

Biak ulermendunak, zintzoak, prest eta gogotsu euren taldearekin Euskararen bidea beteteko. Benetako Naparrak izateko !.

Or daukazuez !, laguntza eske " INTERNET " deritxon mezu-bide barritik !. Latxaga`ri esan neutson: " gure au, ez da izango azkeneko osterera Errioxa aldera ".

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 1998`ko ZEZEILLA`ren 19`an

ε

BARRENDIK ETA ARRITURIK BEGITZEN DODAZ GIZONAK.....

- * " Berrogei oiukatzen dautse, buruzkain dabiltzanai ".
- * " Bere lan-sari apur ori luzatzen daben, inori eskatu barik ".
- * " Gerrikoa estutzen dautsoe, prakak ez beratutearren ".
- * " Saboirik ez dautse emoten, eskuak garbitzen dabezanai ".
- * " Bururik eginda dabiltz, zintzoaren burua ez onartzearren ".
- * " Gogoan daukana zintzo esaten dabe, besteak zer esango ete daben begitu barik ".
- * " Ez dabe gura ezer, dan guztia jakiten dabenakaz ".
- * " Ain argal dagoz, " begi lodi " ez egitearren ".
- * " Ankak geratu egiten dautsez, oinetako-aundiak jantzi gura dabezenari ".
- * " Garbitasuna zaintzen dakie, jakea denbora gitxi barruan aldatzen ibili barik ".
- * " Geiago gura dabe sabel-zorria edozein-eratarira iruzurtu, euren buruak guzurraz bete baino ".
- * " Aurpegia apurtu dautse, ain gogorra daukenai ".
- * "Euren itxura jokatzen dabe, edozein itxura daukanari jokoa ez egitearren ".
- * " Arau gabeko antzera, uztai bakarretik sartu nai ez dabelako ".
- * " Illea jauzi egiten-jakie, miin puntan illerik ez daukelako ".
- * " Geiago gura dabe nork-beren zarpela ustua, inoren lepotik aberastu baino ".
- * " Aizea artzen bialtzen dabez, danen ontzitik zurgatzaille dabiltzanak ".
- * " Jan barik egon gurago dabe, oinarriai uko egin baiño ".
- * " Zuri barik egonda be, illuntasunik ez dabe ikusten ".

" IÑOR EZ DANAK "

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 1998`ko EPAILLA`ren 5`an

" ESANAK "

Alangoak dira, giza-mendez euren ikasleai Gizon Jakintzuak, zuur-itzen esakizun edo zuur-itzen itxuran irakatsiak. Gure Euskal Errian, eta zer-ezanik ez gure gazteen artean, nortasunari begira agertzen direnak.

* " Entzuten dakianak, ondo beteko dauz ardurak, bere bearrezko ekintzan. Biotzak bakarrik emoten dausku alango adiontasuna ".

* " Biotz-gogorreko gizona, barritsu baten antzera matxin-zale bakarrik izan leike ".

" Zure izakeran, indardun izan nai ba dozu, zure esaeren egille izan zaitte. Erakustekoak egizuz berbak: ez dagoalakorik indar aundiagoko izkillu izkera baiño, ondo erabilten dakienentzat ".

" Izan zaitetz zeure buruari dagokion neurrikoa ".

* " Ez galdu sekula be zure ERRIA`ren zorientasuna; eta sekula ez zaitetz arduratu zure bereratasunagaitik. Zure eginkizunak zuzenak ba`dira, berez gaiñeratuko jatzu ".

* " Ez abil adore barik; izan adi argiagoa, eta ikasi eragozpideen arazo batzuk baztartzten. Euroi aurrez-aurre eraso egiteaz, zauritu baiño ez az egingo. Inguratu egizak !, eta ikasi arerioen indarrak erabilten. Iña dan lez, biurkorra izan adi; bai ta, aizpikorraren antzera gibel-aundi ".

* " An urrinean !, jende parrastada amaitzen dan lekuan, beti dago AURPEGI EDER BAT niri begira ". (CHRISTIAN JACQ 1996).

ATUTXA`tar PAUL
ZORNOTZAN 1998`ko EPAILLA`ren 5`an

Nire langile-denboran, ez dot euki beste ipar-aririk, lanen elburua lortu baino, beste inguruko gauzak kontuan euki gabe. Bide eraginkor onek, gaur arte gauza asko ekarri daust: onerako ?. Txarrerako ?. Azken batez poza, nere baitan ardurak bete dodazelako, edo alegin guztiak egin dodazelako.

Izakera onen etorria, aurka beti kokatu jat: nire aurrean amaitubako gauzak, oker, gogo aundi barik egindakoak eta abar agertzen ziranean. Bai, begibelarrira etortzen jatazan, Frnco`k edo bere gobernuko oldozmenak, burnigintzako bidetik, nire lanak, Espaina euren eratarazuzentzeko naian.

Ori dala ta, esan bearrezkoak dodaz: orduan abiadan ipini ziran eritzi on-eik, elburuaren aurka zirela. Eta ikaragarritzko kalteak lortu ebezan gure Euskalerrian. Batez be, gure erriak ekarzan gizon/emakume artean, etorkizko indarra natur-legeen bitartetik elburuari begira, zatitu ebelako. Zer esanik ez urrongo gizarte mailan, dirua jabetu zan lez, bata-besteari bultz egiten, nor-geiago beren aldera ekarteko. Orregaitik, gaur ikusten gara borondateko indar ezean, lotura barik; nortasunik gabe. Elburuaren ardurak, Arimarenak diralako; eta dirua gai dan lez, ordearen ardurazkoa " sekula ez elburu ! ".

Baina, zelan lortu zan au. 1958an, nik 18 urte neukazala, aldakuntza gogor bat izan zan lanari buruz: ararte, lan-bideko arduraren mallak, jakinen bidea garaituaz eskuratu egiten ziran. Au da, guk lana bukatuten zanean erakutsi bear geuntson arduradunari; berak, an ikusten eban: jakintza, trebetasuna, gogo, ontasuna, denbora eta abar. Ortik zabaltzen zan atea bakoitza bere neurri-lekuan kokatzeko. Baina, ainbateko lekutik itaun-erantzuna agertu zalako: " sabemos trabajar ", " pues..., tenemos que hacer más ". (Baleikete Europa`ko jaurkintzetan asi zirela bide ori zabaltzen. Okerra benetan !. Orduan Ameriketara ziren ekonomilari ospatsuen, Friedman eta taldeen aolku-babesen gogamenak ontzat artu zirelako). Itaun onen ostetik, ez zan bear agurgarritzko jakituririk, lanak zuzen bidetik eroateko, eta gizonak bere neurri lekutan kokatzeko: akulariak baino !. Or azi zan nirentzat, mendebal alde guztian izugarritzko lapurketa. Eta or gure ikaragarritzko alda-beerakada. Ez Frnco`k etorkizun ori gogoan euki ebalako, faziztak gordetzaile diralako, eta eskubitar oneik, sekula ez diralako aurretik joaten, beti egindako pillora joaten diralako. Franco, iruntsi ebalako mendebalean sortutako eta geratu ezinezko aize-beltz indartsu ori. Gero !, asmatu eban, Europa`ko kaisarkerien ez-ikusitako egitea, eta Amerikarraren babespean, zelan alegindu bear zan, bere Espaina aundia egiteko, eta berezko erriak desagertzeko.

Garrantzi aundikoak ziran aiek 1958, 59, 60, 61`eko urteak Euskalerrarentzat, beti prest agertu ginalako ainbeste lan-bitartetik gure etxea biztuteko, bai gure gurasoak, euren zoritxarreko bizi denboratik gure gastetasuna jakiturian bideratzeko.

Gertu egon ziran beti gure arinaukoak, bai gu be. Ez zan bear gauza aundirik, lan-toki bat abiadan ezartzeko. Dana zan, erbesteko errietatik langailuak ekartea, gogo zarrarekin, eta gure indar iraunkorraz atenbako lanari ekin.

Batera izugarrizko borroka izan gendun gure izkuntzari buruz. Eurok gure mingaina moztu gurean, eta guk geure elburua. Ebagi be zati bat egin euzkuen, gaur, gure erriaren zorionerako, konpontzeko bidean josten asi garana.

Bai, gauza asko sortu eta sartu egin ziralako azkatasunerako alegina geiagogo naaztuaz: Espaniatik atzerritar asko, Marx, Hegel, Alderdi mota guztikoak eta abar gure banakuntzarako. A ta guzti, danak bear ziran, zati guztiak borrokan sartzen ginelako, eta olan ez ginen errikoak bakarrik, atzerritar geienak sartu ziran euren erara, danon etsaia bastartzeko.

Onein etorkeran, niretzat urte-argiduna 1964koa izan zan, konturatu nintzelako, ez bakarrik gure mingaina moztu egin gure ebela, bai gure burua be moztuteko aleginean ibili zirela. Argibide orregaz, lan-tokian topo egin nintzalako konturatu barik, eta konturatzeko era berezia izan zalako.

Urte ortan (1964), joan ziran Paris`en kokatuta dagoan Renault`eko lan tokira, gure lan-tokiko (Forjas de Amorebieta) ordezen bat a ikustera; eta oneik ziran: Rekalde`tar Jose Luis, injinerua (Maisua); Kanal`tar Agustin, jakituna; Lopez`tar Jose Mari, arduraduna; eta Bilbao`tar Juan Karlos, langilea.

Itzulkeran, euren iker-ikasiak batu nebazan: maisuarena, trebetasunean bakarrik ez zan; jakitunarena be berdina; arduradunarena, Moldeeneko sail tokirako, zar-berritzeko burutakizun batzuk, gurdizkarentzako baino ez; langilea... onek bai !, ekarri eban altxorra nire eritzirako. Itandu egin neutsonean. esan eban: " baina gu, zelan jainko joango gara orrei trebetasunean geiago egitera? // Zergaitik ? //". Areik, brentsatan jotzen dabezalako ale geienak, eta brentsa bakotza ale bategaz urte guztian jo ta jo; gainera molde-ollak brentsa ondoan dagoz berotzen, prest egon daitezcan bear diranerako, eta eurak aldatzea bost-minutuan bakarrik egiten dabe; guk emen eun kilotik goragoko molde-mokorretan egiten doguzanak, eta aldatzeko ordu bat eta erdi gitxien bear doguzanak; gainera bost milla ale ilero geien, geien jo egiten doguzanak !. // Ez bakarrik ori, amabi ola-tokitan bananduta !. Erantzun eutson //.

Or ikusi nebazan gauza asko. Leenengoa: eurok (Frantsesak) aurre-ikus-tekoak zirela; neurri aundikoak, iraun-aldi batera elduteko, bai European, bai Munduko Salerosteen ingurutan. Bestela, eurak dana egitekotan, beste-ainbeste lan-toki egin bear eban, eta aurrera begitu ez gero..... . Gainera, salerosketara bidaltzen ebezan mozkin guztiak, eurenak ziran !.

Bigarrena: Konturatzea, Frantses, Aleman, Ingles, Italo, Polaku eta abarren, makiñ edo tresneri guztia, mozkiña amaitzeko eta saleerosketan agertzeko, euren asma-agiria zala, eta bai asm-agiriaz babestuta. Orrek ezan nai dau, eurak zirela gauza baten egarria agertzen zanean salerosteko inguruan nortasuneko egileak.

Baina guk ez. Guk, makiñak erosi eta beste aldean langilea jarri; bien-bitartekoa, ontzi-betea kentzeko eta utzitutakoa ezartzeko; au, Europa bete arte zan. Europa-ren egarria asetu zanean, iraun-aldi baten sartu ginan; eta or, eurak agertzen dira nortasuneko egileak; gu, alderantziz morroi !.

Orren errurik, ez gendun euki, eun da irurogei urtetik onantza ez dauskulako sekula itzi gure nortasun-azterraldiko biderik zabaltzen.

Beste era batera, bagara errukariak bai; alegin guztia egin gendulako dirua ondoratzen, ardurako arloan ezer kontuan euki barik: " orduan bear zan beste lantokiak egitean; atzerritarren esku-bearra ekarten ezeri begitu barik, eta abar ".

1980, 81, 82, 83an azi ginan konturatzen, aiek zortasuneko amarkada biak zer ekarri euzkuen: langabezia; atzerritarrez beteta egotea eta aurrerako bide illuna. Irurak, arazo geiago sartuaz, gure euskeraren eta askatasunaren argia lortzeko.

Franco-ren benetako gogapena zan ?. Ez dot uste !; ez ziren eltzen alako ulermeneko goi-mallara. Euren gogapena izkilluen indarrean egon zan. Eta ori zeartuten dauana da: Franco-k, Euskadi-tik bazterreratu gura ebala burnigintzako arloa, beren " Polos de Desarrollo-rekin " ainbeste erri-alde geratzeko, euren erritxoak itziaz, eta Euskalerriko jakituria zabaltzeko. Beti euki dabelako gogamen-azpian, gu sekula ez garala geratuko askatasuna lortu arte.

Irugarrena: Franco bakarrik ez, baina bai izan zan gai, len esan dogun lez, Amerikarren babesean, ekonomian bide-barri ori zabalduaz, sartalde guztia diruaren jabetasunak iruntsita geratu zalako.

Jakin-bidea ebagi zalako, eta nik sarri esan dodan lez: " GURE GIZA GARAI ONTAN, LELOENAK BE, BERE EZAR-LEKUA GALDU EGIN DAU ". Bide onek ekarten dauan ondorioa gibel-beldurra da; eta azken batez, bata-besteen ikus-eziña; bai etxean, lantokietan, alderdietan eta leku guztietan. Bakotxa, beren lekuan egon ez gero: ardura, lotsagizun, begirune eta alkar ondo ikusiak gara. Dana dala, begitu, diruaren billa joateak zer ekarri euskun: " jakin bidea ebagitzea; alkar ezin ikustea; gibel-beldurra gure artean; geienak, beren ezar-lekutan ez egotea; bata-besteen ikusi-eziña; ardura gabekoak izkuntza-ri buruz ?; jan-edateko xautzaile izateaz (consumistas), lurrari atera egiten dautson edertasun guztiekin be, bete eziña eta borondateko indarrik ez eukitea orrek neurribako gogoak geratzeko; gaztetasun azko lotu ezinik. Gizona aitzu eginda, guk

egiten dogula lurraz diru ori, gure arteko ordearen neurrirako. Or, sasi-jainkoa !. Eta lokatzakin eginda dagon lez, berez apurtzen asi dana; edo gizona erotzen asi dalako !, ainbaten arin urten bearrezkoa beren eragipenetik.

Esandakoagaitik, itaun bat agertzen da emen: " zerekin alegindu bear gara..., indarrak ez badauka arrazoirik ! ". Argi dago, elburuaren bidea artu bear dogula, gure arrazoiak, arrazoizkoak izan daitezcan. Europa`ren aurrean " ERRI BAT " agertu daiten. Euren begiak zarratuta agonda be, ikusi egingo dabelako euren aurrean dagoana txikerra izan arren " ERRI AUNDI BAT " dala.

Eta emen, edestitik zear, betiko dei bat*

" Ez abil adore barik; izan adi argiagoa, eta ikasi eragozpideen arazo batzuk baztartzen. Euroi aurrez-aurre eraso egiteaz, zauritu baiño ez az egingo. Inguratu egizak !, eta ikasi arerioen indarrak erabilten. Iña dan lez, biurkorra izan adi; bai ta, aizpikorraren antzera gibel-aundi ".

(CHRISTIAN JACQ 1996)

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 1998`ko EPAILLA`ren 17`an

Egun ederra benetan, Jorrailla`ren l`eko au: leenengo, merezigarrizko gizon baten laguntzagaitik. Bigarrena, eguraldi ona izan zalako. Eta irugarrena, izugarrizko poza artu gendulako, alango indarra eta geratu ezinezko abiadura artzen dauan Euskera, Naparroako Sartalde-ingurutik ikusiaz.

Epaila`ren 28`an egin zan Euskerazaintza`ren azkeneko batzarrean: Latxagak, Apirila`ren l`ean Zangotzako Ikastolara joan bear gendula esan eustan. 9`ak lauren gutxiagoan urten gendun Donostitik, eta 10`k eta erdirako bertan egon ginnan.

Zangoza, Naparroako udal-erria da, eta 5.000 biztanle inguru daukaz. Naiko aundia ikusten dana, gure antzean, egun bateko sartu-atera bat egin ez gero.

Iparraledetik: Irunberri`k (Lumbier), Ledia`k (Lièdena), eta Jabier`ek mugatzen dabe; Ego-aldean, Napar`tar Kaseda`k, Eki-Ego Aragoiko aldean, Sos del rey catòlico`k, Sortaldetik, Aragoiaz muga egiten dau; Sartalde edo Mendebaleetik, Aibar`ek eta Sada Naparrak mugatuaz geratzen da.

Kilometru laukiak 69`8 daukaz, eta Zangozan bertan Irati ta Onsella ibaiak Aragoiko ibai-nagusira botaten dabez euren urak, eta ibarrari indar aundia emoten dautsoe.

Erri zaarra da bera, eta erromatarren garaiko aztarnak, ugari eta balio-aundikoak argiratuta daukaz. Aitz-gogor deritxona (Rocaforte), moruen aurkako denboratan; aiek, Aragoiko lurraldeetatik etorrien, Iruña menperatzeko bidea artzen ebanean. Gaztelu ederra eta oso indartsua, gaur ondo apaindua ikusten dana, goratu eban XI`garren mendean, Antso Ramirez V`garrena erregeak 1076`ko urtean; bai moruen aurka, bai Aragoi`tarren aurka. 1512`an, Alba`ko dukeen gudara-taldeak menperatu eban, Aragoiko Fernanfo`k (catòlico) Nafarroa menperatu ebanean. Eliza ederra be badauka: Santa Maria la Real deritsona, XI`garren mendekoa.

Euskalduna izan zan Zangotza`ko erria orduko denboratan.

Zangotza`ko ikastolara eldu ginanean, Latxaga`k itaundu eutson umetxo bateri zuzendariari buruz, eta umeak Beltza ta Igoa`tar Maria`rengana eroan genduzan. Maria`k, zuzendaritzako ordezkoa aurkeztu ebanean (zuzendaria ogeratuta egon zalako), ordezeko onek Maria`ri esan eutson: bera be bazala naikoa gure galderai erantzuteko, eta alan itxi ginduzan.

Batzutan, ba dira berez aukera bereziak olangoko lanetan, gure nezka onenitariko batekin topo egiteaz alkar mintzatzeko, eta au, olangokoa ba`da: begi-zorrotz, ulermendun, eta somakaria izanda, arpegiaren politasuna, bere liraintasunezko irripar zeargiak osotuten dau, arteko alkar-izketak alaituz.

1972`ko urtean jaio zan Etxarri-Aranaz`eko baserri baten. Bere sendia, gurasoak eta anai bik osotzen dabe. Ikastolan ikasia da KOU`rarte, eta nekazari-tzako lan-bizitatik etorri arren, Ingles-Filologiako lizentzi-mailla irabazikoa da.

Iruñako Ikastetxe-nagusian asi eta Deustun bukatu.

Iruña`ko Kanpion -Ikastaroan bete eban bere ogi-bideko leenengo urtea; bigarrena, Iruña`ko Amaiur-Ikastolan; eta irugarrena, aurtengoa, bertan, Zangoztzako ikastolan.

Itaun garaia eldu zala ta, Latxaga asi zan bere zerrendatik:

- * Zenbat aur daukaz gaur ikastola onek ?.
- Berreun bat gutxi gora beran !.
- * Zenbat eta nungo andereño/maixuk osotzen dau irakasleen taldea ?.
- Zuzendaritzan: Biurrun`tar Xabier. Ordezkaritzan: Seguroła`tar Jose Xabier (Ataun darra); eta 19 andereño/maixu`az. Onetatik, 9 Nafartarrak dira; 6 Gipuzkoarrak; 2 Bizkai`tar; 1 Iparralde`koa; eta 1 bertokoa, Zangotzakoa !.
- * Nungo errikoak dira ikastola onek daukazan umetxoak ?.
- Inguruan dauzen erritxo onetatik !: Irunberri (Lumbier), Xabier, Ledia (Lièdena), Gabarderal, Zare (Sada), Moriones, Lerga, Iesa, Zangotza (Sangüesa), Aibar, eta Kaseda !.
- * Etzairik bai ikastolaren aurka ?.
- Bildur apur-bat gurasoen artean. Apaizak be..... . Batzuen itaun zitalak: Zertarako bear dozu euskera ?; Euskerarekin nora joan zeinteke ?.
- Eta olango lelokeriak.
- * Euskal-sendirik ezagutzen al dozu ?.
- Inor ez, euskaldun-berri izan ezik !.
- * Ba alda Euskal-girorik erri onetan ?.
- Bai !, oso ona.
- * Zure gogokoa alda erri au ?.
- Oso atsegin jat !.
- * Zenbat biztanle daukaz erri onek ?.
- Bost milla inguru !.
- * Euskal-elkarterik ezagutzen dozu ?.
- Basa-jaun elkarteak !.
- * Dantza-talderik errian ?.
- Bai !, Trokamador taldea !.
- * Zelan asi zan ikastola ?, Nafarroa oinez ?.
- Berak ez ekiala gauza aundirik ikastoleko azierari buruz, eta Nafarroa-Oinez`eko erakundeen arteko maixu bat dauela bertan, ta beren billa joan zan. Bere-ala agertu zan Larratza`tar Juan Luis`ekin; eta beste gela batera joan orduko gure lana beteteko, Latxaga`k, argazki batzuk atara ebazan, Maria`ri umetxoakaz batera, bai ikas-etxea`ri be.

Larratza`tar Juan Luis, 1950`eko Apirilla`ren 30`ean Etxarri-Aranaz`eko errian jaio zan.

Bere gurasoak, Euskaldunak izanda be, etxean sekula ez eban barbarik egin politikaren buruz; baina esaten dau, bere umetxo denboratan euskeraz jakitea,

arrokeriz eroaten eبالا.

Latxaga`k itandu eutson:

- * Eta zelan lortu zendun irakasle izatea ?.
- Gazteizen azi neban eta Ezkoriatzan amaitu !. Lazkaotik 1966`an alde egin neban. UFESA`ko lantegian asi nintzan lanean; bost urte bete nebazan an, 1973-74`ko greba gogorak euki genduzan arte. Kaleratu eta espetxeratuak izan ginan, eta aske itxi ginduezanean Nafarroako talde baten zartu nintzan. 1977`ko Maiatza`ren 2`an Ikastoletako-Elkartean asi nintzan, 1989`an itxi neban arte; andik aurrera, iru urtean, itxita euki nebazan euskerazko ate guztiak. 1994`an sartu nintzan bertan, Zangotzako ikastolan gaur arte !.

Latxaga`k itaundu eutson:

- * Eta ainbaten idatz lanik bai ?.
- Bai !, Deian, Argian, Egin, Diario de Navarra 80, 90`en bat artikulu !.
- * Nafarroa-Oinez`eko jai-aldia, zenbat urteetan antolatzen dozue ?.
- Aurtengoa, bigarrena da, leenengoa 1987`an ospatu gendun !.
- * Elburuak ?.
- Gizartea arduratu; azpi-egitura aurrai buruz; eta aleginak dirua ekarte-ko !.
- * Noz egin zan ikastola au ?.
- Erosi ziran 30.000 metru lauki; 1989`an goratu gendun ikastola, eta Irailan azi ginen lan egiten. Etxe onen egitura egin zan 240 umearentzat, 30 aur bananduta gela bakotzean !.
- * Zenbat ordaindu bear zenduen ?.
- Guztiz 130 milloi ziran. Ez dogu dana oraindik ordaindu; gainera kanpoko larraín au 1986`ko udan egin gendun, beste 14 milloi pillotuaz !.
- * Gaurko zorrak zenbat dira ?.
- 60 milloi !. Baina gure itxaropena ez da geldirik egotea. Aundiagotu gura dogu ikastola aur-ezkuntzarentzat, 0 urtetik 6 urteraino, eta ori 160 milloi geiago dira !.
- * Zenbat diru gutxi gora-bera batuko dozue jai-aldian ?.
- 60 milloi`ekin gogoratzen dira elkartekoak !. Dana dala, gura doguna da zor-rrak ordaindu eta bere-ala asi egitarau barriekin !.
- * Zenbat lagun dabil erakundean orretarako ?.
- Irailletik azita 12 lagun, bakotzak bere arduraz !.
- * Zenbat ordaindu bear dozue, jai-aldiaren egitarauagaitik ?.
- Bost milloi !. Benito Lertxundi be ekarten dogu Uztailla`ren 4`rako; erri-ak eta aurak ikasi daien euskal-musikako doñua !.
- * Nori ezkintzeko jai-aldiaren elburua ?.
- Ez dakie ziur nori: Leire`ri ?, Xabier`eri ?, Zangotza`ri ?.
- * Eta zergaitik ez Nafarroako gizon aundi bateri ?.
- Ez da burutasun ori edozelakoa, ez; auroi esango dautset !.
- * Zelan asi zan ikastola au, eta nortzurekin ?.

- Berak ez ekiela gauza gitxi baino orretaz, eta Aramendia`tar Pedrogana bi-galdu ginduzan.

Latxagak, argazki batzuk atara eutsozan Juan Juis`eri, eta agurtuaz joan ginen pastel-gintza ori billatzen.

Aurkitu gendun pastel-gintza eta barrura sartu ginen; itandu gendun an e-gon zanari, eta bera izan zan Aramendia`tar Juan Pedro. Somakaria eta alaia a-gertu jakun; bai ulermenduna zala laster konturatu ginen. Euskeragaitik guz-tiz ausarti; bai bizi-bizia bere euskaltasunen arrokeri bitartez.

Bere sendiaren sustraia Etxarri-Aranaz`etik datorrela esan euskun, eta pas-tel-gintza, eun urtetik onantza daukiela zabalik.

Aurkezpena eginda, eta berandu zalako Irunberri`ra bazkaltzen joateko, La-txaga asi zan bere zerrendatik itaunka:

* Noz, nortzuk, eta zenbat asi zenduen ikastola ?.

- Asi ginen 1978`an, 22 aurrekin, ume-zain antzera. Lau andereño euki gendu-zan: leenengoa, Iruña`ko Errozain`tar Karmele; bigarrena eta irugarrena-rekin ez zan gogoratzen; eta laugarrena, Iparralde`ko Bidart`tar Katerin.

* Zelan asi zan ikastolaren premia ?.

- Euskaldunak garalako, aaztutako euskeraren bidea aurkitzeko, eta aurraren bitartez, benetako Nafarraren nortazunera eltzeko. Asieran alkartu ziran: Beunza`tar Xabier, ezkondua eta seme-alaba barik; Aisa`tar Alberto, ezkon-dua eta seme-alaba nausiekin; eta Ibañez`tar Pako maixua !.

Leenengo tentaldian, bazterreratuak izan ziran; baina, bigarreanean eskura-tu eben Udal-Etxeko Biltzarra, eta " Casa Txaparro`n " asi ziran aurreran-tza, arazo aundiekin. Ni, leenengo ikas-aldian sartu nintzen umeakaz. I-runberriko ikastolarekin be, alkartu bear gendun aurrera egiteko. Ezarri gendun gurasoen-elkartea, ikastoletako-elkartea asi zan arte !.

* Dantza talderik bai ?.

- Bai !, eta ederra gainera: 40 dantzari, 10 txistulari, eta ia 50 dantzaki ez-berdinekin !.

* Nork jarri eben dantza-taldea !, eta txistularirik euki zenduen orduan ?.

- Ezarri dantza-taldea guk, lagunen artean egin gendun: Abadia`tar José Xa-bier; Aramendia`tar Pedro; eta Iragi`tar Xisto. Onen aita !, Iragi`ren aita izan zan txistularia !.

* Aur-ekintzarik bai ikastolaren buruz ?.

- Leenengoetan bai !, eta gogorak gainera: umeak ikaratzeko, leiarrak arri-ekin apurtu euskuezan sarritan. Politika buruz, ezidura gogorak. Aurre-koa ikus-ezina, eta abar.

Onekin, eta berandu zalako, bete egin gendun gure lan-egarria Zangotza`ko ikastolari buruz; eta Latxagak, Jān Pedro kaleratu eban argazki batzuk atara-teko. Orduan Aramendiak esan eban: " au txapel barik ezinda egin ! ", eta be-re-ala joan zan txapelaren billa.

Agurtu orduan, itaun egin eutson Latxagak ia dakien edo ezagutzen jatetxeen

bat Irunberrin.

- Bai !, Dantzari-jatetxea, eta esan nik bialduta zoaziela bertara, agurtuaz batera.

Irunberrira eldu ginanean, Dantzari-jatetxeagaitik itaun geuntson mutiko bateri, eta laster aurkitu gendun. Iar-nabarrak, gatz-ozpiñak, bildots`en saieskia lur-sagar erregosi`ekin, ardangorri eta akaita jan-edanaz, ondo baskalduta eta merke gainera, prest egon ginen azkeneko eki-taldia beteteko ikastola`ri buruz.

Irunberri, ez da aundia, baina bai polita. Mendi-biskar baten exerrita dago; eta bere Eki-Ego barren-aldetik, Irati ibaia lasai doa. Mugatu egiten dabe Iparraldetik San Bizente`k, Ripodas`ek eta Domeño`k; Sortaldetik Leire`k, Iesa`k eta Xabier`ek; Ego-aldetik Zangotza`k eta Aibar`ek; Sartaldetik Iabar`ek, Aldunate eta Nardues`ekin inguratzen dabe. Zangotza`ren Merindadekoa da; eta beren lurraldeko azalera, Kilometru laukiak 52`9 daukaz.

Oso zaarra da bera: bee-Paleolitiko aztarnak agertu dira; eta gaur arte, zer artu-emon bizi-bizia eta betea euki dau bere etorkeran, erri txikerra izan arren. 1540 biztanle daukaz gaur, eta ondino geratzen dira euskaldun batzuk.

ARANGOITI-IKASTOLA irakurri gendun ate bateko goiko aldean, zurezko txartel baten; eta larrain erdian oroit-arri bat naiko aundia, ipinten ebana: " A DON JOAKIN LARREGLA URBIETA. HIJO PREDILECTO DE LUMBIER EN SU CENTENARIO " MDCCCLXV-MCMLXV bere irudia goi-aldean daukala. Aurreko aldean, ezku egineko igaropide burdinezkoa alde batetik bestera, ate itsularia erdian daukala.

Etxeko bateri itandu geuntson zuzendariari buruz, eta onek urrutizkinetik deitu eutsen Jimenez eta Rekalde`tar Maria Josefa`ri. Esan bearra daukat, ikastola aurrean agertu arte, eta bertan topo egin genduen guztiekin, euskal-arnasa ederra euki ebela, eta guk, gozo-gozo artu gendula.

Maria Josefa, ulermenduna eta jakituna agertu iakun; ezkondua, bertan ikasten dagozan seme-alabakin. Begiraldi zabala eta guztiz argia; zain-dardara a-pur bategaz, baina unetxo baten be ez eban galdu bere sen ona. Zintzoa eta benetan abertzalea.

Sartueran esan euskun (enaz gogoratzen nork), etxea emon eutsela Lekaimelaguntza`ri, eta onek ikastolari.

Jarri ginen aurren ezar lekutan, eta Latxaga asi zan itaunekin:

- * Noz asi zan ikastola ?.
- Orain 20 edo 18 urte !.
- * Zergaitik ikastola ?.
- Euskaldunak garela gogoan daukalako, eta Nafarroa azkoz obia dalako, gaur-egun goi aldean gure bearrezko eginkizunak bideratzen daukaguzenak baino !.
- * Eta ori ?.
- Euskera eta Euskalduna, argia, zabala eta aurrerakoiak diralako. Irunberrin orain 18, 20 urte zaarrak euskeraz berba egiten eben; gaur zoritxarrez, banaka baino ez. Kontuan euki bear doguna da, euskara eskuratzeko

giltzak, ikastoletan daukaguzela. Orretarako eta orregaitik, atzea emon geuntson " escuela nacional " `eri, eta aurrera tiretu gendun bakar-bakarrik gure lanarekin.

* Nortzuk azi ziran ikastolakin ?.

- Asi ziran 1980`an Balda`tar Karmelo; Napal`tar Pedro; Anso`tar Esteban; Iturbide`tar Manuel, eta au izan zan ikastolako leenengo lendakaria. Euki gendun leenengo andereñoa: Urdiaingo Aldatz`tar Izazkun zan, Irunberriko mutil bateaz ezkondata; bere seme-alabak be ikastolara sartuaz.

* Gaur zenbat andereño/maixu daukazuez ?.

- Aldatz`tar Izazkun Urdiain`ekoa eta zuzendaria; Txomin Uarte-Arakilèkoa; Beorlegi`tar Ana Zangotzakoa; eta Uriarte`tar Ana Irunberrikoa.

* Zelangoak ziran asierako denborak ?.

- Oso gogorrak !; eta aurrera egin gendun, Zangotzako`akaz alkartu ginelako. Geroago, Zangotzakoak ez eben gura erritik aurrak atara eta bakarrik erabagi eben aurrerantza joatea, umeak 6 urtetik gorantza euskera ez galtzeko.

* Zelan ordaintzenda ikastola ?.

- Ele-jakintzako-politikaren laguntza bidez !.

* Zelan doa erriaren ogi-bidea ?.

- Guztiz atzerantza, lan-tokiaren eza gaitik !.

* Zenbat aur daukazuez ikastolan eta zenbat dauz errian ?.

- 110 aur dira guztiz, eta onetatik 62 ikastolan daukaguz. Baina borroka bizia da gure gaurko egoera, eredu lez " D " gura dogulako, gurasoen artu-emonagaitik, agintzaileen menpean egon barik !.

* Umetxo guztiak emen daukazuez ?.

- Ez, aur txikitxuenak beste leku baten daukaguz !.

Maria Josefak esaten dau: % 50`etik gora direzela izen-artukoak ikastolarako; baina nik urrinetik irakurri dot sarreran dauan erakusmeneko-olean, % 80 direzela.

* Diruaren beste iturri batzuk bai ?.

- Bai !, Euskal-Kantaldi Txapelketa eta abar, ondorio onarekin !.

* Dantza talderik bai ?.

- Bai !, gainera andereñoak dira txistulariak !.

* Aurkako`rik bai ?.

- Geratzen dire gibel-beldur apur bat dekienak, baina geienak gure aldera jokatzen dabe !.

* Ezagunen bat ikastolako-elkartetik izan ezik ?.

- Bai !, Nafarroako aldundian bear egiten dauena Erbiti`tar Mari Sol !.

* Ze ospakizun abestuten direz erri onetan ?.

- Euskalerrian abestuten diran guztiak !.

* Eta gabeko euskaltegirik bai ?.

- Bai !, eta 36 ikaslekin !.

Urten gendunean, Latxagak argazki batzuk atara eutso zan Maria Josefa`ri, eta agurtuaz, gu Ripodas`erantza joan ginan, an euskal-zale aundia izan zan Garde`tar Martzeliño apaiza`ren anai-arreba lagun-miñak ikustera.

Argi dago, altxor aundia daukagula etxean, gure gazte eta gurasoen artean. Oneik bizitza emoten dabe euskera eta nortasunagaitik, argi dago; baina kontu-ratu bear gara, emen ikusten dan lez, zeozer daukagula artean, ostopo edo arazo egiten dauana aurrera joateko, garbitasun eta eragiletasun obiagoak eukiteko.

Araso ori ez dago gure artetik kanpo, gure artean baino. Baleiteke zeozer egin bearrezkoadaukagula, orrek araso edo sikinkeri gure artetik atarateko eta zaramara botateko. Erakunde barri baten bidez ?. Ikastolako-elkartean, arlo bat berentzat bakarrik ipiniaz, bide okerrekoak zuzentzeko ?. Onularitza baten bidez..... ?. Oker dagoan lekuan, txaplatak ipintea, zatarkerian baino ez da geratzen; eta aurrera tiretu ez gero..... .

Ain latza ez da ba !, elburua`ri, gure EUSKERARI, NORTASUNARI maitasunaz begitutea ba !. !! BAINA EUSKAL-GIZADIA !! Orretarako " BURUA MAKURTU EGIN BEARDA ". Eta ori.....

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 1998`ko APIRILA`ren 11`an

Ez da garrantzibakoa eta bai gogoetagarria gai au gaur. Dana da arineketa, urduritasuna, bidegabekeria, biotz-estura edo larrialdiko denborak, gure jan- edate giza-garai auek; ez degu denborarik ezertarako be. Eska-bide baten aurrean, ies-egite arina daukagu, bereztasunezko erantzuna emonaz " EZ DAUKAT DENBORARIK ".

Izan be olan da, begitu bestela Bilboko ibilbide naguzian, edo ain Uri garrantziko baten, eta bere-ala konturatuko zarie dana dala arineketa eta arin ibiltea, inor ez daukala denborarik auzokoa agurtzeko be, ezin gara geratu, lantoki, denda, bulegora denboraz eltzea gura ba dogu; eta ori olan-dala, egun bat bai urte osoan be.

Lan-gabe, astitsu ikusten dira beste batsuk ezer egin gabe, eta baleiteke, denbora ori zelan il jakin barik. Danetatik dau gure gizartean. Tabernetan eta kafetegietan gure emakume/gizonak, bai lore-baratz eta zugaztietan. Denbora ori ezer egin-gabe bear dogula ?. Ezetzik ez dogu esaten. Baina, orrek orduok, egunak ezer egin gabe, " denboraren iltze ori ", emoten dautso zentzurik gure bizitzari ?.

Esaten dabe, oporraldiko denborak, jan-edateko, suntzitutako denboratan biurtu direzela. Gizaki eta senitarte askorentzat, bai. Eta ez da, artu berrezko arnaz-denbora ori txarto dauelakoan, bizitzaren an-emenka ibiliaz; gelditasuna bear dau gorputzak, bai bakea arima, eta ori da lortu guradoguna bizitzaren neurkera aldatuaz.

Gure eguneroko lanaren ondagarrian izan bedi, nai oporraren lasaitasunezko aldian, gizon/emakume adimendun eta aurrerakoiak denboraren on-erabilketa egin bear dau, eta askatasunezko denborarekin geiago. Gure etxe eta gizarteko aberastasuna askoz aundiagoa izango zan zalantzarik gabe, askatasunezko solas denborak obeto gozatzen jaki bagendun.

Neure lagun bat, gaurko politikan guztiz sartuta dagoana gogor esaten eustan leguneko egun baten: obeto gozatu bear gendula gure askatasunezko denbora, ondo zaindu, batez be jakin ez gero, gure ardurak espainolak bete egiten dabezela, eurekin gorputz bat egiteko, gu izan gabe. Euren arduratan kontuan euki gabe, gure gorputzeko okerkeria eta ez jakitasunean eukitea; ez dautsie arduratzen gure nortasuna, eta nortasunezko EUSKALDUNA izateaz gutxiago; geiago gura dabe, zuzen edo biurtutako bideetatik ibiliaz, guk ez jakitasunean euki, gizarteak daukan jakiturezko arlo guztietan desagertu gaitez.

Euskalduna aske bizi gura dau, eta askatasuna maite daukan-lez, errijakintza be, alan maitatuten dau, bere erria inguratzen daben erriakaz batera ondo bizi egiteko. Euskalduna, EUSKALDUN izan gura dau leenengo, eta beste erriekin

gero osatu taldea, danon ardurazko bidea obeto ibiltzeko. Ez dau gura inor menperatu, baina bai IPARAGIRREREN abesti ederra " EMAN DA ZABAL ZAZU " lau aizetara zabaldu.

Eta guk Karlistak zergaitik ez garan izan bear ?. V Karlos Espainola zala-ko, eta beren itzaldiak Loredan`eko jauretxean, nai gure foruari zin egin arren, onelakoak izan ziralako: " la monarquia comprende la suprema soberania politica, y por ello representa la unidad constitutiva de España "; eta orregaitik: " la monarquia personifica la unidad nacional ". // NORENA ? //. 1789`an Frantziako iraultzan egin zan ikaragarritzko lapurketa erriari, lurraldeak batuaz erregearen agindu menpean, auek ontzat artuta.

Orren erregetzaren legeaz, 26 urte egon ginen euskaldunak jakinen ezean. Eta begitu zer aituko ete zan orduan lege orren gora-beran: JAINKOA`ri zin egiteko gure foruak zaindu eta gorde egingo ebazalako, eta beste aldetik euren errege-legearekin ukatzeko, JAINKOA`ri zin eginaz.

Guzurraren arrazoia ardura-bakoa da, eta orregaitik errezena ludi ontan ondo bizi al izateko, JAINKOA`ak ipini gaitun ardurari begitu barik. Egiaren bidea alderantziz ardurazkoa da, eta orregaitik alegin zuzenak bear dituana, apurka,

apurka, gauzak ondo eginaz JAINKOA`rengana jasotzeko.

Izaera biak, lan bardinaz egiten dira, baina leenengoak: ez jakineko bidean, iluntasunean, esturako larritasunean, alkar ikus-ezina eta abar, sartzen dautsela erri bateko jendarte edo gizon/emakumei; eta bigarrenak: lasaitasunean, jendartean ondo-ikusiak izatea, garbitasuna eta erria askatasun osoan kokatzen dauana.

Joan gaitezan ba, Sabino, bai gurasoak eta anai arrebak abertzale lez ezagutzera; kontuan eukin da, gaur, gauzak zergaitik diran jakiteko, eskuarte askoz geiago daukagula arrazoi bidez, epaiketa baten iritzia emateko Sabino`ren denboratan baino; orduko erritarren artean, gauzak osoan bakarrik ikusten ziralako, edo gauza gutxi geiago baino ez. KAIZAR-ZALE`ek, jakin bidea moztu egin ebela-ko, euren sasi-jainko burua erakutsi-naian.

Sabino`ren abertzaletasuna ezagutzeko, 1883`ra joan bear dogu.

Amak, aitaren aginduak, edo bien arteko aleginak, seme/alabeen ikasketak maila nagusian beteteko; nai, aita urte bat arinago il zan-arren, Bartzelonara eroan zituan Koldobika eta Sabino. An ikasten dabiltzala 1888`rarte, Koldobikak sartu eutson Sabino`ri abertzaletasunaren indarra. Sabino`k orrez gain, baten baino geiagotan, leenengo abertzalea Koldobika zala esate eban; baina onek, beti esan eban: " aintza oro Sabin-entzat ".

Koldobika, Sabino baino urte bi zarragoa izan zan, eta onek sinist-arazi eutson Sabino`ri: Bizkaiak eta Euskalerrriak esku-bide osoa daukiela politika arloan, euskal erriaren jabetasun osoa eskatzeko; 1839`en gerla osteko legezapaltzaileak esaten ebana, gu Espaniako erria garela, deseginaz.

Sabinok, oldozmen ori gogoan erabilita, sakon aztertuz, eta Euskalerrriko edestia, bai esku-bideak be ondo jakinaz zin egiten dau: bere bizitz-osoan eman-ago dauela, Euskalerrriaren esku-bideak Espainolaren menpetik bir-eskuratu arte. Eta JAINKOA`ri: bera izan zan osoa eta euki eben guztia ezkaini eutson. " Eun bider ipiniko neban samia marrauza`ren azpian Euskalerrriagaitik, nire izeneko oroimenaren naia erakutsi gabe ",esan az.

Jakiteko, pare-gabeko abertzale baten buruko mina noraino eltzen zan, artu daigun espetxetik bigaldutako eskutitz au Arantzadi`tar Ingartzi`ri 1895`an Ira-ilako 14`an.

Neure biotzeko gogaidea (correligionario): Ispaniako nekaitza gogorragotzen dabil. Canovas konturatu egin da; eta Robledo`tar Romero lagundu ta kifatu e- giten dau.

Gobernari`az, bai Espaniak daukan Euskalerrrian fiskalekin itz egin dabe, eta esan eutsie: bearrezkoa da nai eta nai-ez BIZKAITAR aldizkaria eta EUSKALDUN BATZOKIJA deuseztutia, kosta aala kosta eta eskuartean daukaguzan indar guztiekin, neu deuseztu !!!.

BIZKAITARRA`ren 32`ko zenbakia azalkeratuta (denunciado); 12`an BATZOKIA sarratuta; 13`an batzordea giltzapean: baztartuta dagoz, ni nauen antzera emen sartu zirenetik. Danari banan bana aitortpena eskatu dauzkue. Amar gara.

Uztailako 21 zenbakien orrez gain, gaur birritan auzipetu egin nabe, oingo bostgarrenengo zenbakia-gaitik: leenengo, guda-agintariak; gero, gizarteko legedunagaitik.

Guda-ko agintarien aldetik, oso ilun ikusten dot. Ez daukat ardurarik, Jainkoa-ren ardura-pean itxiten dot ori. Gizarteko-leggedunen aldetik, esan leike betirako gura dabela ni amen egotea, 5.000 pezeta eskatzen dauztielako askatasunagaitik, eta 2.000 pezeta epaiketaren erabakiagaitik; nik, ez daukat diru ori.

Oin-arte ez dautset esan berorri ezer, zein dan gaurko gauza. Jakin-arazian berori ipintea da jarraipenean doana: Guda-epaileen aurrean aitortu egin dot, BASO-JAUN-en izena ezin dotela agert-arazi; Donostikoa dala eta bertan bizidala (Ugerrezko espatien esaera ez daiten Espaniako gudalozte osoari ezarri, ortik egurazten dabiltz gudari-buru batzueri izan ezik); laguntzailea dala eta orregaitik ez dagoala arpidedunen zerrendan; eta onei, nire anaiak bigaltzen dautsiela aldizkaria, arduraduna bera dalako; eta laguntzaileari neuk bigaltzen dautzietela utsaren ordean, euren zerrendarik auki-gabe. Koldobikak bardin autortu dau, erakutsiaz nire uztez, arpidedun zerrenda.

Adi egon, ze...: idatz lanen egilea aurkitzen dabiltz, lumak-zakurrak eizaren astarnak-artu egiten dauan antzera; eta loditu egingo direz aurkitzen ba-dabe, katamotzak egiten dauan beren arrapetakoakin-en antzera.

Esan leike, emengo Koronelak BIZKAITARRA-ren ale-bat artu dauela, eta kili-kagarri, bai irangarri izen-gabeko orri bat, guda-jaurleriak. Geure etzai gizatxar baten-batek bigaldu eutsoz.

10`ean gabaz, guda-buruak gure elkartea oldartzeko asmoa euki eben. Guda-jaurleriak, Bedian egonda bera, gabeko ordu bietan etorri bear zeuen, urrut-idazkintzatic deituta. Orrek arindu eban elkartea-ren itxitura (clausura).

Baleiteke, orko arpidedun guztiari ona deituta adi-erazteko, eurak jakiteko, ia nor dan BASO-JAUN ori.

Jainkoa-gaitik ez ditela agertu, emengo guda-agintariak oso asarratuta dagozelako; eta goiko aginduak oso gogorrek daukiezelako.

Emen, ez BIZKAITARRA, ez EUSKALDUN BATZOKIJA be, ez dogu arriskuan sartu. Eriotza emoten badautsie be, Espainolaren legeen gainetik eta onen gogoen aurka izango da.

Euren asarre-aldiak neure ganean botako dabez. Baina uste-dot Jainkoa neugaz egongo-dala, naikoa eta soberan daukat Beragaz.

Irakurri eiozu eskutitz au Zabalo`ri, eta aolkua ematen dautsut, berarekin batera egin dizuezan itunketak, ia ze egikerak bear diran, Espainol-agintariai, aztarnak gal-erazteko. Batera esan eiozu bere eskutitza artu nabela, eta irakurtea gozagarria izan dala neurentzat.

Arineketan idazten dot au. Baztartuta nauan lez, ez da izango erreza eskutitz au bigaltzea. AGUR !!.

SABIN

Lengo denborak eta gaurkoak ikusten dogun lez, bardin antzekoak dira, gogortasunean izan ezik. Dana dalako, euskaldunak daukan nortasunari, bear dauan jabetasuna ez emotea, eurak agertzearren KAIZAR-JAUN giza artean.

Len egin leikien zapaltza ori, espataren indarraz neurtzen zalako arrazoia. Baina gaur, espata ori, jokoz-kanpo geratu da !, eta AMAREN bai SABINO`renak, seme alperrak izango gara, ez badogu Euskalerrriaren askatasuna ondo bideratzen, laster, EUSKADIREN ARGIA IRABAZTEKO.

Berak, beti esaten eban: Europa, Amerika eta ludi onen erri guztiak ezagutu bear dauzkuela, gaur, eten-bako lana erreztu daiten, jabetasunaren billa.

Ori lortzeko gaur, batera joan bear dogu, espatak eta arpeleko indarrak alboratuaz.

Gaur arrazoia bear dalako ludi ontan, askatasuna lortzeko; eta arrazoia gudan da, gure nortasuna gaitik. Ori ikusi bear dabe gure inguruko erriak !.

Begitu bestela Sabino noraino eldu zan bideak aurkitzeko. Berak esate eban, dirua eskuratu bear dogula, Euskera egon zan zulotik atarateko; eta orretarako: nekazaritza aberastu, lan-tokiak ugaritu eta abar; ikastolak ugari, jarraian eta aldun guztiko abiadan ipinteko. Ez ori bakarrik: Espainolatu gure eban, berak lan egiten ipini eban alderdia. Konturatu gaitezana ba, berak gaurko egoera ikusten ebalu. Guk gaur, bai len be, ez dautsagu zin egin kostituzioari; berak be, ez eban egingo, eta egingo ba eban, larri-aldiko zilotik atara arte izango zan. Beren eskutizetatik agertzen dan ulermen bakarra, abertzaletasun oso aberatz bat da. Eta badauka bai, Sabino zalantzan ipini ebanak, edo ipini eben elkarteak gaurko denboratan: nai, beren euskerazko arloan; nai beren gogapenengo arloan, nungo parkamena eskatu, lan zakar oiek egin dabezenak.

Sabino, gure ikaragarritzko argia izan zan, eta gaur, gure izar nagusia izan bear da, norkeri uztelak, etzaien ziri-pozoitzuak, arrotzasunetik sartzen iakuzan asmoak, gurekin ez daukienak zer ikusirik, bastartuaz.

Sabino, etxekoa zan, eta beren senitarteko etxe-nagusiagaitik bizitz-oso eman ebana; gitxi baino ez direzan eltzen, alangoko lan eta gogo-maila arloan.

Orregaitik ba, " AINTZA ORO BETI; ARANA eta GOIRI`tar SABIN`entzat ".

KRISTAU BEZELA:

Ez dot usten, amen ezertxo be esan bear danik, orduko kristau-giroa egon zana gaitik Euskalerrrian eta Sabino`ren senitarte inguruetatik, ain sinismen zakonagaz.

JAINKOA`ri ezkeini eutson bere bizitz osoa, eta orrek bakarrik, naikoa esan gura dabela uste dot.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 1999`an URTARRILLA`ko 27`an

- * Danok maite dogula Sabino, argi dago !.
- * Baina zer gutxi dakigu Sabino`ren buruz !.
- * Ori danori gertatzen jaku, gaur daukaguzan ez-jakineko arrokeri zitalagai-tik. Danok gura dogulako zeozer esan, Euskal-Nortasuna kontuan euki-gabe; eta or !, ez dago arrazoiien zentzurik.
- * Nire aldetik azi-naz Sabino ezagutzen, aita Elizondo`tar Mauro`ri ezker; berak, eginda daukazan iru liburu ederren bitartez. Eta eurakaz, azko ikasiko dogu, jakinda: " zerk, txitz egin dautson aita Mauro`ri.
- * Orregaitik, Sabino`ren Nortasuna azalduko dogu, lau zatitan bananduta:
 - a) GIZON BEZELA.
 - b) KRISTAU BEZELA.
 - c) ABERTZALE BEZELA.
 - d) ERRI-GIZON BEZELA.
 - e) SABINO ETA NAFARROA.

Aurretik, nolako egoera edo mailla Nortasunaren aldetik egon zan Euskalerrian, orduko denboratan, jakinda.

* Sabino, 1865`an Urtarrilla`ko 26`an jaio-zanean, Euskalerrian bizi-bizi zan menperatuaren zigorra, 1839`an leenengo karlista`ren gerla galdu-egin gendunetik Espania`ko gudalozte`aren aurka. Geiago, jakinda, bigarren gerlarako 1872-76, abiamenak antolatzen alegin aundiakaz ibili zirala talde biak.

* Baina gerlako aleginak galduta, Sabino`ren ardurak, Nortasunaren argiak biz-tutzea ziran, Euskalerriko gizon/emakumeen indarrakaz, borroka naguzia irabaz-teko.

* Aita Maurok ikusten dauan-lez, Sabino`ren buruz daukan urrezko altxorretik, " berez diran erri guztien AITA " deitzeko lotzarik-gabe eta bai ardura, bai begirune aundiaz: " Berak ikusten ebalako, erri bereziak diraren artean, arazo-ak konpontzeko bidea gaurko egoeran, nolakoak ziran ". Jakin ebalako, arrazoi-rako edo erriak-agintzeko, leenengo pausoak: " bakoitza`ri berea, ardura ta guzti ", diralako beren elburuak, eta espataren arrazoiak amaitu egin bear zire-la egunen batean, arrazoi berezien edo egizko bidetik, andik aurrera argi eta garbi jokatzeko.

* Bartzelonan, ikas-bidea betetan egon zanean, eskutu-eskutuan ikasi egin bear ebelako, beren erriaren esku-bideak zeintzuk eta nolakoak ziran !, berak baka-rrik esan gura dau, ez gendula jakin gure nortasun aldetik ezertxo-be, edo gau-za gutxi baino beintzat, Euskalerria ardurapean edo jabetasunean ezartzeko.

Beste aldetik, etsaiak, ondo moztuta euki ebelako jakintasunaren bidea izan zan ori.

* Baina...; gure erriaren il-zoriko orretan eta euskal-seme guztien artean, bat agertu jakun indartsu !, biotz guztiaz esaten ebana: " EZ DA EGIA ORI !, EUSKADI DA EUSKALDUNEN ABERRIA ! ".

* Ortik aurrera, Sabino egille izan zan, eta ikaragarritzko lana egin euskun lumaz ta mingainez.

SABINO, GIZON BEZELA:

* Leenengo gauza ikusten doguna da, beren kide eta sendiarekin daukan samurtasuna, eta ori, eskutitz guztietan azal-azalean agertzen jakuna da. Adibidez: beren arreba Paulina eta anai Koldobikak, euren maitetasunaz nola laguntzen daben, bai on-biguntasunaz beren kementasuna zelan goratu. Eta, Arantzadi`tar Ingartziri Sabinok idazten dautsona 1896`an Otsailla`ko 7`an:

" Nire arimako lagun mina eta gogaide bikaina ".

" Berorrek, zenbat biderrez gogoratu naz ! ".

" Nere bizitzako lagun mina, zure ordur-kanpoko aitortua, zenbat gaiztotu nau ! ".

Alderantsiz, eurak euki eben Sabino gaitik arridura. Adibidez, arriandia-gak Arantzadi`ri idazten dautson 1902`an Agorrilla`n 22`ko eskutitzan:

" Ezin diteke, ain ezin-obeko gizatsua, ain abertzale aundia eta ulermen gain-gainekoa, Eusko Alderdi Jeltzalea`ren aita, beren bizitzagaitik berea ondatu dauena ezin-bestean ".

eta abar. " GUZTIZKO eta GARRANTZIDUN " (Grave y transcendental), idatz-lanaren gora-bera gaitik.

A !, nolako begirune alde-bietatik.

* Baina, bada go beste unetxo-bat, aita Mauro`k bikain argitzen dauana. Sabino 19 urte il-zanetik zala, bere lagun-min bateri egindako alkar-ikuste baten bidez da.

Onak, itaunari erantzuten eutson: " Sabino biotz oso-osokoa izan zala ". Beragaitik etsaiak esate ebazan, Bizkaitar aldizkarian agertutako idatz-lan bate-gaitik: Sabino`rentzat, maketoak ikus-ezinezkoak zirala; laguntzarik, ez-daki-ela emon bear inundik-inora be, esaten ebala; Euskalerritik, bota egin bear zirala eta abar.

Jakin al dau berorrek, nolako gizon eta benetako kristaua izan zan Sabino ?. Martxan ipini daigun ba, Sabinok euki eban gorroto zital-ori maketoagaitik: Sabino, Larrinagako espetxean egon zanean, beragaz batera maketo-bat egon zan, abizena " Huertas " euki ebana. Bere zigorra eriotzea zan, Lekeitio`ko euskaldun bat il-ebelako, diruen lapurketa gaitik.

Biotz-gabekoa izan zalako, inork ezin eban lortu, azkoren alegina izan arren, espetxeko abadeaz autortzea. Eta begitu nundik-nora agertzen dan Sabino bere ondoan (gorrotoaren gizona), erlijioko egiak irakasten; Berentzat, etxetik ero-

andako baskari bereziak maketoari emoten; ardo guztia (baskari bakotxagaitik pinterdi bat); bai ke-belarra eta berarekin denbora guztia berbetan.

Ez eben bakarrik Huertas biotzez damututa aitortzea lortu; beste abade biren laguntzaz, beren barkamena irabazi be-bai. Beragaitik, zekula ! ez ebana egingo.

Sabino`k, Huertas`en biotza, oso-oso irabazi eban; eta begitu noraino izango ziran maketoaren esker-onak, beren aita baino geiago maite ebala esateko. Bai Larrinagatik atara ebenean Ceuta edo Melilla`ko espetxera bigaltzeko, Sabino agurtu eban, esanda: " igez egiten dodanean, Sabino jauna, eta ziur egon zaitez, espetxetik igez egingo dodala, danerako berorren naierara ipiniko naze-la ". Andik iru illabete orduko, ego-Ameriketatik idatzi eutson, agindukoa osterabe berriztatzen.

Gure solas-lagunari esan geuntson, gertaldi-ori ezagutzen gendula, ain-bes-teko xeetasun barik. Eta gertakizun orrek bakarrik erakusten dau, Sabino, bi-otz oso-osokua izan zala.

* Bigarrena. Nolako ardurarekin entzuten eutsen gizon jakintsuai. Adibidez:

- * Beren etxeko gurazo, anai/arreba ta senideai.
- * Olandar Van Eys`en iztegi ta gramatika; Kanpion`tar Arturo`ren gramatika baskongada`rekin; eta, ikas-bidean eukindako maizu guztiai.
- * Bere anai Koldobika`ri, Euskalerriko arazoak dirala ta.
- * Irujo`tar Daniel`en aolkuari.
- * Beren denborako Azkue, Unamuno eta kideak zirenai.
- * Euskalerriko etsai nagusien esanak; Canovas del Castillo eta beren mallakuak zirenai eta abar.
- * Eta dan guzti-ori ziurtatzeko, ez da begitu baino bear, jakintzako arlo guztietan, nolako mailla artu eban.
- * On-artzea, nai damu aundia euki-arren, beren kideak, bidea moztu egin eben orduan, kable-idazkiren bidez bigaldutako mezua Inglaterra`ko erregeari, Afrika`ko gerla amaitzeagaitik; espetxean eta gaisorik egon zalako, len Roosevelt Amerika`ko lendakariari bigaldu eutson mezua gaitik, ezkerak emoten, Cuba`ri askatasuna emon eutzelako.

Sabino, bai sendimen eta bai ulermenean mailla aundikoa zan, eta orregaitik buru argiaren begi zorrotzekoa; bere denboran bizi ziran gizon aundiaren aolku-mezuak, era ez-berdinetan goi-mallako jakintzaren arloan, bai bakotxaren jakitea eta izateagaitik; ardura aundiekin, entzun eta aintzakotzat artu egite-ebazan, egiaren astarnarekin oso zintzoa izan zalako, esku-arte bikainakaz goi-mallako ulermenean, bai lege-barruan jokatzeko.

Irugarrena: Nola asi-zituan gauzak eta amaitu, gogo aundiko gizona izan zalako. Eta au ziurtatzeko, begitu baino ez da bear, berak egin eban lan guztiari.

Ondo ikusten dan bidetik, argitaratu ebazan aldizkarien bidetik da; Espania`ko jaurkintzatic debekatuak izaten zirenean be, laster atarako eban beste bat, edo izena aldatuaz, Euskal erritarrai mezua emateko. Ikaragarritzko lan bikaina erakusten dausku, arlo onek bakarrik.

Euskeraren arloan bardin: nolako lan bikaina itzi euskun oso gazte azita, ba, ez ebazan euki 20 urte baino " Bizkaiko Euskera`ren Gramatika osotu ebanean, beste lan batsuen artean 1888`an argitaratua izan arren.

Emen esan leike ifondik-inora okerrik esan gabe, bere bizi laburrean baina luzea ekintzan, ez ebala galdu denboraren unetxo bat bera esanda be, nai ikasbidean nai bizitzako ekintzan, ain denbora gutxian, ainbeste goi-mallako lan egiteko.

Zuzentasuna bere adizkirekin, edertasun aundikoa izan-zan asieratik amaierarte, eta orretarako begitzea baino ez da bear gure gurasoai, nolako maitasuna eta fedea euki eutsoen Sabino`ri eta berak egin eban lan guztiari Eusko Alderdi Jeltzalearen bitartez. Nolako fede zintzo ta indartsua !!, guk, apur-bat baino geiago galdu doguna.

* Laburpen-baten bidez, gizaldi aldetik agertzen jakuzan alderdi argitsuak izar dirdiratsu-lez, oneik dira:

- * Xamurtasuna arremanetan.
- * Neurri gabeko ardurak, giza jakintsuen mezuak ezagutzeko.
- * Gauza asiak amaitzen ikasi.
- * Ganez-gain zuzentasuna, nai adizkidetasunaren beste-aldetik asiak izan.
- * Goi mallako lanetan, egindako astarna kementsuak.

Eta, ori da azken baten, gizon aundien ulermenari neurria artzeko tresnerik onena.

SABINO, KRISTAU BEZELA:

Bigarren atalak erakusten dauskuna da, fede aundiko gizona zala, bai bere izatean, bai bere ekintzetan.

* Leenengo. Beren Nortasuna, beti, JAINKOA`ri begira dago, ortik artzen dau-elako beren argitasun osoa.

Sabino`rentzat, JAINKOA, Nortasun osokoa (personal), eta BEREN ardurapekoa (providencial) dalako au.

Begitu daigun bestela, aita Mauron liburutik, Sabinok, zer esaten dauan Larrazabaleko Itzaldian; ba..., itzaldi bat baino geiago, esan bear da, bere oi-

narrizko kristau fedearen aitortza dala: " Nere erriarentzat, katolikuntzaren adierazpena egiten dot, bere ao-jakintza (tradicción), bere izatea gizartean (civil) eta politikoa, katolikuak diralako; orrela ez-balitz, berdin aldarrikatuko (proclamar) neban; baina..., nire erriak katolikuntza`ri aurka egingo leuzkio, neure abendatik " uko " egingo neuke, JAINKO`rik gabe, ez dogulako gura ezer !.

* Bigarrena: Bere nortasuna, JAINKOA`ri begira dago beti, ortik artzen daualako indar guztia.

Eta au ikusteko, artu daigun beste azkoren artean, Arantzadi`tar Ingartzi`ri 1895`an Irailako 14`an idazten dautson eskutitzatik zati-au:" Guda`ko agintarien aldetik, oso ilun ikusten dot. Ez daukat ardurarik, JAINKOA`ren ardura-pean itxiten dot ori ". A ! nolako ezkeintza JAINKOA`ri.

* Irugarrena: Gauza guztiak, JAINKOA`ren izenean egiten dauz, ez daualako ikusten bizitz-au JAINKOA`rik gabe.

Artu daigun ba, aita Mauro`ren liburutik (Gizona eta beren Bidea 58 orrian) aipu-au: " JAINKOA`k askatu gaizan (Sabino`k adierazi egite eban), liberalkerian ikasita, politika bat agertu daiten, gure Aberriaren askatasuna aldarrikatuz. Ez da zalla ala-ere, eta erne egon bear dogu, Euskalduna`ren arte-koetan eta abar, badagozelako bereiztiarrak (separatistas), baina danok dagokigun-lez, JAINKO-gabekoak.

* Laugarrena : JAINKOA`ri emoten dautsoz eskerrak, bere Aberria ezagutu ebalako: " Bedeinkatua izan daitela, nire Aberria ezagutu neban eguna, eta betirako esker-onak, arroztasuneko illuntasunetik atara nauanari ".

* Boskarrena: JAINKOA`z nai du bizi daiten beren sendia eta Erria, JAINKO`tik kanpo, ez daualako jakin gura ezertxo-be.

Danez gain alegintzen da sakramentuak artzera, berak nai-dauena da, eredubat izan, nai gizon/emakumeen aurrean, nai Errien aurrean.

Berak, alan gogoratzen daualako izan bear dala Euskalduna, fededuna eta biotz garbiko emakume/gizona.

Bere ekintza guztiak JAINKOA`ri begira dira, berak, dei-bat dala gogoratzen daualako. Orregaitik beren lotura kristau sinismenarekin. Eta orrelan oñarritzen-dau J.E.L., bere kristau eta abertzale joka-bidea.

Sabino`k, JAINKOA`ren bidetik ikusten daualako, Errian danok bat izatea; arimaren gorputzarekin, Aberriaren askatasunean edestiko jarraian JAINKOA`rengana igoteko. Or ! ikusten daualako, danon indarrak alkartuta, nai gure izkuntza, lege-zar eta etxe nagusiak bear dabezan gauza guztiak, lortu dagikezala, beste errien aurrean on-artuak izateko, eta erriaren aberastasuna oiturazko arloan goi-mallakoak izateko. Bizitzan aurrerakoiak izateko, eta ez gordetzilleak; Beti ! JAINKOA`ri begira.

Badago beste atal-bat, Sabino`ren kristautasun fede sakona argitzen dauana;

eta onen aitorraldia, monsiñore Pierola`k emon eban, orduan Gazteizko gotzaina izan da. (Gizona eta beren Bidea, 46-47`ko orrietan).

Ego-ameriketarik etorritako erlijiozko erkidego talde bat, Gernika inguruan ezarri ziran. Eta gure Erriaren oiturarik ez eben ezagutzen-lez; onein gogamenak ziran, ondartzara joan leikezala askatasun guztiaz. Baina askatasun orrek, bertako baserritarren gogaeragaz topo egite eban eta ez ziren adostasunean egon.

Sabino, baserritarren urduritasunaz arduratu zan, kristau aldizkari baten bidez gertakizun-ori zabaldu-az.

Baina, Gazteizko gotzainak Sabino`ri txizt egin eutson eskutitz baten bitartez, ez zabaltzeko aldizkaritan galdu-bideok:

" Ezagutzen dot zure katolikotasun garbia eta zuzentasuna (esate-eutson), baina berorreri eskatzen dausat, ez egiteko aurrerantzean gal-bidezko olakorik".

Sabino`k, lotsagizun aundiko eskutitz baten bidez erantzun eutson: " fede aundiko kristaua zala, JAINKOA`ren itur-buruko (causa) zerbitzuan eta eleiz-nagusiarena ".

Baina, ez eben ontzat artu, edo naikoa ez-zirala beren azalpenak, eta Sabino bera aurreratu zan Gazteizko gotzain eta bertan egon ziran eleiz-gizon`en aurrera.

" Bai, esan eutson gotzainak, niren-gana etorri bear eban berorrek; nik artuko nebazalako neurri egokiak, galdu-bide ori ebagitzeko ".

Sabino`k, lotsagizun aundiaz entzun eban gotzainaren oarkizuna, eta gotzainbarrutiko`en oar-pideakaz andik aurrera arduratuko zala esan eutson.

Sabino`k urten ebanean, gotzaiak, bertan egon ziran eleiz-gizonai esan eutsoen: " Ori da, eleiz-barrutian (diocesis) daukadan kristaurik onena ".

Eleiz-gizonen artean Mujika`tar Mateo zan, Gazteizko gotzaina izango zana, eta berak esan eutson on-Joxe Miel Barandiaran`i gertakizun ori.

Sabino gaurkoratu egin bear dogu, beren oinarritzko esandakoak eta egindakoak gaurkoak diralako.

Orregaitik, ez da arritzekoa, giro ontan, ezia ta azia izan dala Eusko Alderdi Jeltzalea, bere erailkilariaren jarratzaille izateko; orrela jaio zan kristau-demokraziaren ekintzetan, ondo sarturik egonda, egite ebazan billera orokorretan.

Ba-dira billera nagusiak ainbeste eginak, P.N.V. biltzen zala kristau-demokraziako beste kide-ekin. Zer esanik ez, azko arduratu zirala kristauzko demokraziari, indar edo arnaza emoten, edestia ta Europa aberastuteko. Mami-aundiko gai-au, ikerlari esku-artearen bearrean dago. Gaur, inoz baino geiago.

Nabaritzen-da, gaurkoratu egin bear dala Eusko jator zaleen artean, ekintza auxe ber-bera.

* Bigarren atalean, laburpen baten bidez, kristau aldetik agertzen diran fede sakon-baten alderdiak, auek dira:

- * Beren Nortasuna, beti JAINKOA`ri begira dago, ortik artzen daualako, bere argitasun osoa.
- * Beren Nortasuna, JAINKOA`ri begira dago, ortik artzen daualako indar guztia.
- * Gauza guztiak, JAINKOA`ren izenean egiten dauz, ez dauelako bizitz-au JAINKOA`rik-gabe.
- * JAINKOA`ri emoten dautsoz ezkerak, bere Aberria ezagutu ebalako.
- * JAINKOA`z nai-du bizi daiten beren sendia eta bere Aberria, JAINKOA`gandik kanpo ez daualako jakin-gura ezer.

Ikusi dogu ba, pare gabeko fede aundi bat.

SABINO, ABERTZALE BEZELA:

- * LEENENGO. Nolako abertzale giroan jaio-zan Sabino ?.

Sabino jaio zanean, Euskalerrria il-zoriko larritasunean bete-betea egon zan. Aberriko giza-barneko uts-oso baten.

Begitu noraino izango zan Aberriko giza-barne gabeko-ori, Sabino`ren jaiotza eta gazte denboran, politika arloan zortzi talde egoteko; Katolikuak iru talde ziran: Karlistak, Integristak eta Fueristak; Monarkiko liberalak bi: Gortzaileak (conservadores) eta Fusionistak; eta iru errepublika zaleak: Radikala, Federala eta Posibilistak. Bat !, bera esanda-be ez zan izan Euskalduna, danak ziran Espainolak.

Sabino, orren giroan asi zan Euskalerrriko gazte-lez, baina ez bere etxeke sendi-lez, beren aiton-amama eta guraso aldetik " ERLIJIOA eta FORUAK " izan zirelako elburuak. Eta ori, Abertzaleak izatea da.

Beren aita, guztiz beartuta egon zan karlistai laguntzen, etxerako kalte aundiak ekarri arren.

Ikusten dan lez, etxeke arnasa obiagoa ezin izan, eta or ! berarentzat, erro zintzo ta sakonak, nai kristau-lez nai abertzale lez.

Au-da aurrez-aurre Sabino`k euki eban ikuskizuna, bere jaio eta gazte denboran: Nortasun arloan, bizia emon bear jakon eremu-baten ikus-begian.

- * Bigarren. Sabino`ren Abertzaletasuna non errotuten da ?.

Atal onetan ikusi-gura doguna auxe da: " Sabino`ren Abertzaletasuna non errotuten dan ".

Asiera erdiratu egiten da beren elburuari buruz Euskalerrriaren burutapenean (concepto), eta bera da gai nagusia, eta or dago erabagia artzeko almena, beren etorkizuneko zorian, erri bat-lez beste guztiakin lotzen dala, bere azi-bidearen indarra, guztientzako onura edo errien-ona billatzea dala, eraikuntzak (instituciones), lanaren elburuak, inguruaren etorpidea indartuaz eta etxeke

senideen arteko gogoekin egiten diran egitamu-zaio guztiakaz batera. (Erritar-go`en AITA. Padre de las nacionalidades volumen I).

Euskalerrriaren burutapenak, Euskaltasuna indartzera beartzen dau, aaztu bari-rik, Euskaraz berba egitea sarritan, barregarri agertzen zala, bere irabazpidearen askatasunagaitik, Euskera`ren birbaliotasuna laguntza onekin indartuta bere erabilketa garatu daiten. (Gizona eta Beren Bidea 129 orri-aldean)

Erri-orren borondateak mugatzen dauz burutakizunak, eta apurka-apurka zeazkatzen dauz, beren erakundeen gogoia daukolako eta beren barruko batasuna erakutsi -nai daualako.

Gernika da, Erri-orren Nortasuna ondoen ikusten dan lekua ageriko izatean, beren millurte-azko daukiezan erakundeetan. Gernika`ko Arbola da, Euskalerrria`k daukan bertako eta jabetasunezko, Nortasun bizi-biziaren dirdira leiala.

Sabino`k on-artzen dau, Euskalerrrian Euskal il-zoriko giza-barrena nola dagoan. Barru-barruan Sabino`k, erri guztiaren zatia izaten daki, eta askenerarte gura-dau baieztu, beren zerbitzurako esanekoa.

Egizale aundi bat da, eta on-artzen dau dan burutakizuna, bere erria aurkitzen eta azaltzen dan mail-buruan, zazpi izatearekin osotuta eta zazpiak-bat izendatzen jakonari, eta or azita goratzen dau Euskal-sendi guztiaren azalkuntza.

Sortzekoa da oldozmen au, eta Sabino`rekin dauka beren asiera. Gai onetan eskua sartu baino arinago, Euskal politika izaera espainolista baten lan egiten dau, eta orren zentzutik ibiltzen joango da karlismo tradizio-zaleagaz gutxi gora-beran lotuta dagoana. (Gizona eta Beren Bidea 95 orri-aldeetik aurrera).

Lanaren egin-era au, guztiz ugaritasunezkoa da, erri-txikerra`ren azkera`ri balioko jakolako. Orregaitik ausartu gara, " ERRITARGO`en AITA SABINO`ri deitzera ".

" Euskalerrirako gaur, Sabino ardura aundienetakoa da zalantzarik gabe ".

" Nai-ta naiez berrezkuratu egin bear dogu Sabino`ren dan eta gaur, Euskalerrriaren osasun-onerako dan bidea ".

1999`an Irailla`ko 20`an

Lizarra`ko Latxaga`ren etxean, gabeko 11`k laurden gutxian.

* Irugarrena. Sabino, endakeriaren zalea izan zan ?. (Era racista ?)

Giza-iztian (antropologia) jaiotzenda endakeria (racismo), 19`garrengo gizaldian.

Indar nabarmenakaz esan bear da, endakeria, Europa guztian, giza-iztia ikas-kundearen fruitua dala, eta giza-izti fisikatik geien, gizaren nortasunezko berezitasunak asten danean ikasten.

Gure erriaren aurka, erazo-aldi azko bota dituzte bizi ez daiten, edo gure

erriaren eriotzea gura dabenak, gure lur ontako ondasunak eurenak izan daitezcan, edo eurak kaizer-lez agintzeko. Nor da or endakerien zaletasunezkoa ?.

Sabino, zekula !, inoiz ez zan izan endakeriaren zaletasunezkoa. Beren Aberriaz arduratua baino; bakoitzak bere etxearen ardurea zaintzen dauan antzera, eta ABERRIA gure etxe nagusia da !. Gainera esan bear da, itz-berri orren asiera edo oinarria, Espainol ta Alamandar kaisal-erri auek, euren arrano aundia armarri ta ikurrietan daukienak, dirala itz-orren gurasoak:

Baina goazen itaunakaz:

a) Sabino`k, inoiz esan eban maketoak bota ! egin bear direla ?. Nik daki-danez, inoiz ez eban esan alakorik. Begitu daigun bestela, Larrinagako espetxean, Sabino`k euki eutsen amorrua ta gorrotoa gaztelarrai, Huertas il-tzaillaren gizakian. (Gizona eta Beren Bidea 43 orri-aldian).

Sabino`k ez eban bakarrik Huertas`ek biotzez damututa aitortzea lortu, beste abade biren laguntzaz, bai beren ilgarrietatik askatu be. Endakerien dabilen baten-batek, emongo leuke alango laguntzarik ?. Ez dot uzte !.

b) Baten-batek esan dau Sabino`k auxe esan abala !: gu geu izateko, gure artean dagozan beste erribatekoak il egin bear dirala. Sekula ez ! ez dau esan alangorik Sabino`k. JAINKO`zale eta Kristau aundia izan zan, bai-ta lotsakizun aundikoa orrek zikinkeriak esan eta egiteko.

Onek besteok bai, izan ziran gai eta orretarako egilleak: Hitler, Mussolini, Franco, Milosevik, Indonesia`ko Yusuf Habbie eta abar; euren armarrietan eta ikurrinetan arrano aundiak daukiezanak.

c) Lotsakizunaz artu bear dira, gure artean bizi diran arrotzak ?. Bai ! benetan, eta aundiagaz gainera, JAINKOA`ren Legeak aginduten dauzkun-lez. Baina, zer egin gure artean, gure etxe barruan, gu ez izateko eraso-larrian aurka egiten dauzkunai ?. Aurka ! nai-ta naiez erasoan datozenai.

Nola ?. Sabino`k. beti esan eban, Aberriaren, Nortasunaren giza-barrena osatu egin bear dogula Erri-bat izateko. Eta orretarako ez da bear borrokarik, ardurak zainduz, izatean, arrazoa baino besterik ez. Or ez dago zalantzarik, Sabino`k esaten eban lez, erri bat izan ezkerro eta izaera orretan jokatu ez-gero edozein etsaien arrazoiak nun geratuko ziren ?.

Nork, gure artean eta arrotzen artean esan dau Sabino ez dala gaur eguneko ? . Sabino, gaurkoa eta bai etsikoa beti izango da; betiko oinarriak diralako berak ibilten ebazanak; bestela Canovas del Castillo`ri itaun, zer gura-eban esan, Bizkaiko Aldundiaren ordezkariari esan eutsoen orduan: " Ese, ve mucho y muy lejos ".

d) RH`en gora-beran, azaldu bear dana, Euskaldunak sekula ez dogula erabili zertzelada ori endakeri lez. Guk, beti esan doguna da: berezitasun-ori, Euskalerrian aundia izateagaitik, eta gure artera etorri diran arrotzak, euren

berezitasunak itxi-arren, oraindino geien daukana Euskalerrria dala. Eta guzti-ori, Erri-bat, bai zarrena be European garala, etsaiari esateko. Besterik ez !. Jakintzaren ikerketarako dirala orrek, Erri guztiak daukaguzan berezitasunak; eta ludi onetako gizakiak, derrigorrezko antolamendu berezi bat bear dauan lez, lotsakizuna zainduaz bakean bizitzeko. Begitu orduan, nortzuk dira RH`ko endakerietan eta beste berezitasunakaz jokutzen dabenak eta zertarako.

Sabino`k, Euskalerrriaren bizitzarako " BETI ! arrazoia dauka ".

" Sabino gaurkoa da ! ".

* Irugarren atalean, eta benetako abertzaletasunaren aldetik, agertzen jakuzan alderdi sakonak, auek dira:

- * Nolako giroa abertzaletasunen aldetik euki eban Sabino`k jaio zanean.
- * Sabino`ren Abertzaletasuna non errotuten dan.
- * Zer aituten zan endakeri-lez Sabino`ren denboran, eta ia Sabino bera ba-zan endakeria`ren aldekoa ala ez.

" OR ! ABERTZALETASUN PARE-GABEKO BIZI BAT "

SABINO, ERRI-GIZON BEZELA:

1898`an Bizkaian, Aldundiko 20 ordezkariak, Espainol zaleak ziran ordurarte, eta ezertxo-be ez eben egiten Bizkaitarrak euki eben premiarekin.

Urte orretan, Aldundi`ak beraukeratu bear ebazan 8 ordezkari: lau Bilbokoak eta beste laurak Bizkaiko lurraldeetatik. Bilboko auteskundeen irabazleentzat iru ordezkari ziran eta bat aurkakoentzat.

Sabino`k Eusko Alderdi Jeltzalea iru urte arinago sortu eban, eta BIZKAITARRA aldizkariaren bitartez, abertzaletasunaren giroa berotzen ibili zan, orko autoeskundeetarako, gogoan euki ebalako, ordua zala abertzaletasuna, politikako inguru-begian agertu egin bear zala Bizkaiko Aldundian, bere ordezkari-tza agertu-az.

1898`an Irailla`ko 11`an egin ziran auteskundeak, eta Sabino autarki asko-ekin aukeratua izan zan.

Aldundiko jaurkintza 1898`an Azilla`ko 3`an osotu zan.

Espainaren aldekoak, begi-bistan beintzat liberalak ziran, eta aurkakoak karlistak izan bear ziran, baina gero ikusiko dogun lez, ez zan izan olan, danak batera Sabino`ren aurka jokatu ebalako. Danak Espainolak zirelako. Konturatu gaitezana ba, nolako giro edo egoera zitala Sabino`rentzat eta nolako gizontasuna euki bear eban danon aurka egiteko eta ainbesteko urduritasuna euren artean sartzeko. (Gizona eta Beren Bidea 71 orrialdean).

Sabino`k, leenengo egunetik argi itzi gura-eban, Aldundi-ura, ez zala antzianako Foru-aldundi lakoa: aren jaurkintza Bizkaikoa eta Bizkaitarrarentzat izan

zalako, eta Madrillekin, ez ebalako zer ikusirik; eta orregaitik Aldundi-ori ez zala izan antzinako Bizkaitarren batzar-orokorretako oinordezkoa. (heredero).

Egoera larri-ori ikusita, begitu edo jakin bear doguna da: zeintzuk ziran Sabino`ren buruko minak.

a) Ego-Euskalerrian lau Foru-Aldundiak, ararte, bakotxak Madrillekin euki eben artu-emon bakarra, aurrerantzean lau-lurraldeen artean artu-emon estuauak sortu-az, Euskalerriko onura (interès) zendotu daiten.

Orretarako leenengo batzarra 1898`an Azilla`ko 24`an egin zanean, Sabino`k lau lurraldeetako aolku-batzar bat adierazi eban, lau lurralde bakotxatik ordezkari-bat izendatuaz, itaun-batzarre (junta consultiva) lez lan egin dagian, Madrillekin, nolako arremanak euki bear direzan, Euskal-zaletasuna indartzeko. Adierazpen ori ez zan autatu, aztertzeke itzi zalako; eta urte-bat ta erdi geroago, 1900`en Uda-barrian ain zuzen, ez zan onartua izan. (Gizona eta Beren Bidea 72-73 orrialdean).

Sabino`k, orren anaitasun lanarekin, argi dago Euskal Aberriaren itxura artu dagian Euskalerrria gura ebala. Eta eurak konturatu zirala be-bai, nozki !.

b) Lan-bidetik: Aldundiak atara egite-eban lana norgeiagora, ordain bardinean, Bizkaian jaiotako gurasoen erriko seme diranentzat gura eban izan daitela lan guztiori.

Zaintza bidetik: Miñoiak, 1839`ko urtea baino arinago Foru-zain ziranak-be gudaloztearen aginpetik askatuta gura ebazan; aldebatetik, Miñoi`en agintariak Espainako agintariak zirelako; eta bestetik, Euskalerrri`ko lurraldeak ordainduta egon ba-ziran be, Madrilgo gobernuaren, bai erki-jaurleri eta guda-jaurleriaren aginduak bakarrik betetan zituelako.

Sabino`k, Espainaren agindupetik kendu gura ebazan Miñoiak eta Aldundiko agindu-pean ipiniaz, baina ez eben ontzat artu. Iru urte geroago, Aldundiko lendakariak adierazpen bera egin eban eta on-artua izan zan, nai-ta denbora gutxirako izan, ostera be Espainako gudalozte-pean ipini ebelako.

Sabino`k, Espainako gudaloztearen menpetik askatu gura eban Euskalerrria. Baina laster ipinten eben osterabe espatea Euskalerrriaren buru gainean.

c) Omenaldi aldetik: Sabino`k, erizpen (criticas) gogorrek egiten ebazan Bizkaiko Aldundian, diru asko ordaintzen zalako omenaldietan, Espainatik etorten ziran agintariai, errege-alabai, Emilio Castelar`en omenaldirako, eta abar. Diru larregi bialtzen ebalako Bizkaiko Aldundiak Madrillera, Laterriaren ogi-pekotak zirenai emen eta an, ainbeste diru ordainduaz gure menperatzaillaren aintzarako. Batera, ardura larregi geratzen zalako laguntzarik-gabe Bizkaiko nekazaritzan, arrantzaleai, Baseleizatan eta abar; bear-bearrezkoak zirenak, Bizkai-an erritarren artean buruzpiderako (economia).

Sabino`k, erizpen gogorra egite eban, ez goian esan dogunagaitik bakarrik, bai garrantzizko arduraren aurka egiten zanagaitik, beste ardurabako edo berak

deitzen ebanari: " gaiztotzaileko akasdun apainkerietan ordaintzen zanari ".
Antzerki, zezen tokiak eta abar. (Gizona eta Beren Bidea 75-91).

Danak arritu egiten ziran, Sabino berbetan asten zanean: inork ezin eutso-
lako beren lojikazko arrazoiari geiago egin, benetako egi-zale izan zalako eta
oso jakintsua.

Sabino, Aldundiko lanetan ordezkari-lez, esan leike unetxo baten, beren oz-
karbitasuna galduko ebala, egite eban lana sakona eta eten-bako aundia izan za-
lako, bakarrik danon aurka; eta orretarako aita Maurok daukaz batuta (Gizona
eta Beren Bidea 90-91) " El Correo Vasko " aldizkaritik, kazetariak esandakoak,
Sabino`ren ekintza gogorretan:

" Arana jaunak, lendakaritza`ri berbea eskatzen dautso " MINDU EZINAZ ".

" Arana jaunak, LASAITASUN GUZTIAZ ESATEN DAU..... ".

" Arana jaunak, BETIKO BARATASUNAZ.....".

" Arana jaunak, BARETASUN GUZTIAZ.....".

Eta Sabino`ren erizpen gogorretako baten, Emilio Castelar, Bizkaiko lu-
rraldearen AITA izendatu gure ebenean Bizkaiko Aldundi aldetik. " El Correo
Vasko`k "esaten ebala:

" BEREN BERBA EGITEA, GOZOA IZAN ZALA ".

Orregaitik, len erriko`en ikus-entzun lekua utsirik egoten bazan, Sabino`gaz
gero eta beteago agertzen zan; eta nolako sendimenarekin entzuten eban erriko
ikus-entzuleak jakiteko, badago bai erakuskin bat: Eulalia errege-alabak Eus-
kalerritik egin eban jostaketako-ibilbidea 1899`an Uztailla`ko 2`an asita, eta
Bizkaiko Aldundiak egin eutson koipatsu-adiguriagaitik.....

1899`an Uztailla`ko 12`an, eskutiz bat idatzi eutson Sabino`k Aldundiko Len-
dakaria`ri. Eskutitz-au aldizkarietan agertu zan, eta orregaitik Aldundiko Len-
dakariak, neurriz-gaineko batzar-bat agindu eben.

Sabino`k, beren txanda amaitu ebenean Cruceño jaunaren esanak beren lekuan
itxita (Gizona eta Beren Bidea 84 orrialdean), entzuten egon ziran ikusleak ba-
tera esan eben " Oso Ondo ! " (" ; MUY BIEN ! "), eta Aldundiko Lendakariak
" ikus-entzuleak, danok kanpora !! ". (" desalojen el salòn de pùblico !! ").

d) Zergaitik gure eban Eusko Alderdi Jeltzalea askatasun-osokoa elburu-lez
izan da, Espainol menpeko biurtzea ?.

Sabino`rentzat mirari aundia zan, gure erria nola eldu dan gaur-arte bizirik.

Euskalerria`ren il-zoriko larritasunak alegintzen dautso Sabino`ri, bizitza-
ren joko onetan, ikaragarritzko mailla politikako arloan erakutsita, esku izanda
enbido aundi-ori joteko. Eusko Alderdi Jeltzalea, Espainol jokuan sartuta biur-
tzeko. Nik uste-dot emen asten dala gogoeta ori, ez dalako egun bateko fruitua,
ondo auznartutako gogapena baino. Eta ori ikusteko artu daigun aita Mauro`ren
Erritargo`en AITA, bigarren liburuan eta 378 orrialdetik, Arantzadi`tar igartzi`ri

1901`an Urtarrilla`ko 5`an idazten dautson eskutitzetik, garrantzi aundienetako lerroak, ausnartze zakon-au azaltzeko. Sabino`k ikusten dauelako emen, aberki-deen itxitasunaren alako bat, edo abertzaleen artean biotz-galdu edo kikiltasun antzeko bat: " Gogoratzen azten nazenean onetaz edo endaren gora-beran, au bajoakula aitzen dot, eta bajoaku asi dogun gizaldi-au amaitu orduko ".

" Gure erriarentzat zabalkundea latz biurtu jaku, asarregarria da ! ". (Espainolak ikusten dabelako euren aberriaren osotasuna arriskuan dagoala, espataren arrazoia ezartzeko).

" Aukera bakarra diruan dago, eta au, ez da aurkitzen ". Baserritarrak gei-egi daki, Euskereak ez dautsola ezertarako be balio semeari. Zuzenbide bakarra ba, lantokiak sortuaz da, baserriak erosi, lagun-arteko ontzigintzari eutsi, langintzako eta trebetasunezko elkarteak antolatu, anai-arteko ongilleak eta arrantzaleentzako elkartasunak (mutualidades), nekazaritzarako, abel-azikerarako, ibilbideak zabaldu edo jabetuz... bizitzan eskutarteko guztiak legez erritaratuaz (nacionalizando), Euskereak zeozertarako balio dagian, nai-ta naiezkoa izan daitela eurakaz artukizuna eukitea. JAINKOA Aundia, Aalduna eta Bakarra da zuzendu leikena !. bearrezkoa da, Euskera naikoa izan dedilla, eta gertatzen dana da, ez dauala balio nekazaritzako egintzaren izketarako baino. Bizkaian, bear doguzan liburuak be ez daukaguz azibidea burutzeko, guztia ez, baizik erlijiozko-oituraren azibidea, bear-bearrezkoa dana emakume gaztea sendi baten ama izateko be. Ai, nere laguna !. Au baserriaren barruko bizitzan sartzen asten danean, nork-berak argi ikusten dau; gauza-bat bakarrik oartzen dau (experimentar): " biotzak negar egiten dauala, eta negar egiten dau zuzenbiderik aurkitu barik ". Gure aurrekoak zer egin dabe ?. Zer egin dau Eleizak ?, elizkideen amak ?. Gizaldi asko dira gure erria laguntzarik gabe dagoala: Euzkera berberan dago orren ezaugarria. Egiazko mirari aundia da, gure zoritxarreko erri au, asierako biderik eta apaizak bideratuta, ez ziurtasunez txarra, baina arduragitxikoa. Gaur-arte gorde egin dauana, ara ez dan eldu oraindik araso-aldia, beren duintasuna, bere lotsagizuna eta zintzotasunak izan dira. Alan ba, bera begituten badogu, erri ber-bera, esan leike nai-ta naiez iltzeko bidean dagoela. Baina JAINKOA`ren eskuari begitzen badautsagu, Bera da eutsi dautsona. Nor-berak itauna egiten dau: " izango da JAINKOA`k gura ez dauana au desagertzea ?.

Emen garbi ikusten dana da: " ez dala amezlari bat. Anakak ondo ezarrita euki ebazala lur-gainean. Eta gutxiago zoratuta.

Sabino`k, ondo ikusi eta ikasi ebana zan, Espainolak euki eben espatearen indarraren aurka joatea zala, orma aundi baten aurka buruaz jotea bezela, eta orregaitik asmatzen dau 1901`ko urte barruan, Arriandiagak zeatzen dauan lez, (Gizona eta Beren Bidea99-100 orrialdian) berari esan eutsola, espetxean lau illabete sartu orduko (1902`an Orrilla`ko 30`an sortu zana), Sabino`k, biribil-

duta euki ebala Espainol aldaketa ori, gero arantzadik ziurtu ebana, berari Sabino`k idatzi eutson eskutitzetik. JAINKOA`k laguntzen badausku, gizaldi onen asieran ikusiko doguzan barritasunak aundiak izango dira Aberriarentzat: Alderdiaren zabalkuntza; Bizkaian, bere antolamendua; Gipuzkoan eta Nafarroan bere antolamendua; erri nagusiari mezua emon; Katalana`kin, artu-emonak sarkondu bion elburuari buruz; Galizia`n, Aragoi`n, Balentzia`n eta abar lurraldeen zaletasuna bizkortu, Espaini guztian, elkar-zaletasun (federal) aundi bat sortuaz, bide orretatik edo askatasun bidetik, dana-gaitik on-artua izango dana, Euskalerrriaren giza-barrena osatu daiten.

1902`an Bagilla`ko 22`an, " La Patria " aldizkari abertzalean, " Guztizko eta Garrantzidun " idatz lana argitaratzen dau. Baina illabete arinago, bere abertzaletasuna erakusten dau, 1902`an Orrilla`ko 25`an Roosevelt`eri bialtzen dautson urrutiko idazkitik mezua, zorionak emoten Kuba`ri askatasuna emoteagaitik. Orregaitik espetxeratua izan zan 1902`an Orrilla`ko 30`an; eta bertatik Ingelesen, Salisburi leenengo ministruari, zorionak emoten, Boers`en aurka gerra amaitzeagaitik. Bai, argi itxi-be, bera Espainola ez dala, sagar-bat, oliarara ez dan antzera.

Sabino`k, Euskalerrriaren bizitasunean, giza-barrena osatuaz, Euskal Nortasuna irabazi gura eban; eta orregaitik, Euskalerrria il-zoriko larritasun aundibatzen egonda, berarentzat ez dauka ardurara aundirik, zein era izan bear zan, bere erriak jokatu bear ebana. Berarentzat, estratejia utsa edo giza-trebetasun orokorrarekin jokatu bear zala, bazekielako egitazko borrokaren bidez, ezinezkoa zala: " Bakarrik eskatzen dautsuet, neugaz itxaropena euki daizuela " eta " Aberriak buru-ukatze ori eskatzen dausku ", eskatuten eban, Euskalerrriak alako egoeratik urten dagian, Alderdi guztiak ondo eta benetan jokatu ez-gero, orretarako argitzen diran arauakaz.

Or dago, zergaitik gure dauan espainolaren jokoan sartu, Euskalerrriaren arnasa, biotzeko taupadak eta bizitasuna osatu-arte. Ze..., beragandik aldendu baginan, orren izateagaitik, zer egingo gendun gaur ?.

Egoera bardinak dira, baina len bera bakarrik izan-da, erri guztia eraikitzen ipini ebana eta bide onean osasunaren billa iraun dagian; guk alper-zamarrak ez doguna egiten ainbeste izanda. Osatu barik daukagu erria, zati aundibatzen beintzat, eta orrek bakarrik urduritasun apur-bat sartu bear euskun gure giza-barrenean. Eta or !, berak asmatu ebazan bide barrien jokoan sartuta gagoz gure nai-ez.

Orrek bakarrik esan gura dau: SABINO, EUSKALERRRIAREN AITA DALA; eta berezko errien arazo bardinak diran lez, aita mauro`ri tsizt egiten dautson esanak " ERRITARGO`en AITA " dala dudarik gabe.

" SABINO, GIZON AUNDIA eta PARE-GABEKOA izan zan "

* Laugarren atalean, laburpen baten bidez, erri gizon lez agertzen jakuzan

alderdi argitsuak izar dirdiratsu-lez, oneik dira:

- * " Sabino`k, lau lurraldeko Aldundi artean, arremanak estuak gura ebazan ezarri, Euskalerrriak erri baten itxura artu dagian ".
 - * " Nolako indarraz errotu jakon Abertzaletasuna, Euskalerrria`ri bizitza eta ondasunak ezkeini eta oso-osoan emoteko ".
 - * " Bizkaiko Aldundian, Sabino`k egin eban ulermen aundiko erizpi-dea. Bizkaia`ri eta Bizkaitarrentzat onena gura ebalako, apurka apurka Euskaldunen giza-barrena irabazi-az ".
 - * " Zergaitik gura eban espainolaren politikako jokoan Alderdia sartu ".
-
- * " Bera da lendabizi, Euskaldun bakotzari esaten dautsona: " EUSKALERRIA ZURE ABERRIA DA !! ".

" EUSKALERRIAREN AITA !! ZALANTZARIK GABE "

- * " Ikusi dogun-au guztiagaitik, esan dezauegu Sabino dala, eta neurri bardenan, enda txiki guztientzat, beren mezuagaitik eta eraigilari izateagaitik:

" ERRITARGO`en AITA "

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 1999`an URRILLA`KO 14`an

SABINO`ren LANA`k:

- 1888`an Euskal-zaleen orriak (pliegos Euskera-filos).
- 1888`an Bizkaiko Euskera`ren Gramatika.
- 1892`an Bizkaiko Askatasunagaitik en liburua, argitaratzen dau.
- 1895`an Euskal-Abizeneko Itz-etorkien liburua.
- 1896`an Bizkaiko Euskera`ren Idazkera aldetik, Irakas-Aldiak.

EUSKERAZ IDATZI EBANA:

Egutegi Bizkaitarra. Umiaren leenengo aizkidea. Leenengo egutegi Bizkaitarra. Euskaldunen edestia eta izkuntza`ren orriak. Euskera`ren Itz-Sustraiak. Aberria`ren babesean be nabarmenduzan, bere eten-bako olerti ekintzagaz.

- 1893`an Garagarrilla`ren 3`an Larrazabaleko itzaldia emon eban.
- 1893`an Garagarrilla`ren 6`an BIZKAITARRA aldizkaria`ren 1º zenbakia argitaratzen dau; 1895`eko Azillean gobernuko agintariak ezeztatu egin ebena. Sabino`k BIZKAITARRA`rekin irabazi eban EZILKORTASUNA; aldizkaria onekin geiago izan zalako Espainako-laterria (estado) eta Canovas del Castillo baino; eurak eta euren buruak garaitu-ezinezkoak zirelako euren ustez. Eta Eusko Alderdi Jeltzalea andik aurrera, orren ekintza gaitik BIZKAITARRA deitu zan.
- 1893`an Uztailla`ren 31`n, abertzaleen bizitasuna, politiko biurtu zan, Bizkaian jaio-ta.
- 1894`an Uztailla`ko 15`an Euskaldun Batzokija sortu eban. 1895`an Iraila`ren 12`an sarratu zana, Madrileko gobernuaren aginduz.
- 1895`an Iraila`ren 12`an Euskaldu Batzokija sarratu zanean, 1895`an Iraila`ren 13`an, batzorde osoa epetxeratu eben Espainiako agintariak, Sabino aurrean dala. Danak bakartu-az. Eta Sabino, Baso-Jaun`en gezur-izena ez esatearren, 1896`en Urtarrilla`ren erdi-ingururarte Espetxean euki eben.
- 1897`an leenengo denboratan " Karlistaren alderdia eta Euskal-Napartarraren lege-zaar edo Foruak " argitu ebazan, karlisten alderdiari ikaragarriko zartada emonaz; Bizkaian 10.000 eta Gipuzkoan 5.000 ale eginginda, Euskadik ego-aldean daukazan lau lurraldetan bananduaz.
- 1897`an Maiatza`ren 2`an argitaratzen dau: " BASERRITARRA " asteroko aldizkariaren leenengo zenbakia. 18`n zenbakirarte iraun ebena, eta ortik aurrera Espainolen gobernuko agintariak debekatu ebena. Arantzadik diño: 1897`an Uztailla`ren 11`n eta 11`garren zenbakian, iru orri aldeko idatz-lan argitaratu ebana " ERASO-ALDIAREN ONDORIOAK " (efectos de la invasiõn), naikoa zala BASERRITARRA betikoratzeko (inmortalizar); ararte argitaratu ziran idaz-lan guztiak politikaren-esaerako arloa baino, azkoz geiago zalako.

Eta emen, Koldobikak, Aratzadi`tar Ingartziri idatzi eutzon esku-
titzza, esaten ebana: " Aberri au, atzerritarrek zapalduta dagoana".
" Aberri au, gaur egun ibili bear dan lez zartada garbian izartu
daiten ". " Bere lo-aldi abere-antzekoa (brutal) ainbestekoa dala-
ko, berezkoa dala ezin esan leike, gaisoa baino ".

Pizkunde egunean, " FUERISTA EGUNKARIA " espainolen tradizio-zale
Euskalerrian izan zanari, izena aldatzea lortu eben eta " JAINKOA
ta LEGE ZARRAK " ipini eutson nabarmenduko irarkiakaz (destacados
caracteres). Egunkari barri-orrek, eriotza bear zituena, espaino-
len gogoak jazar-arazi (soliviantar) ebelako, Kuba`ko gerla dala-ta.
Ogei egun bakarrik iraun eben, bere bide barrian azi zanetik aurre-
ra.

1898`an Iraila`ren auteskundeetan, Sabino, Bizkaitik Aldungo ordezkari au-
keratua izan zan.

1899`an Bagila`ren 4`an, beste aldizkari barri bat sortzen dabe, leenengo
" PAIS VASCO " esan jakona, eta gero " EL CORREO VASCO " esan jako-
na. Sabinok, aldizkari orreri buruz esaten eban: " Abertzalea i-
zango zala, baina belarria erakutsi barik ". Ez eban ezertxo be
balio beragaz ipinitako ardura guztiak, espainolen gobernuak, orko
urtean, Irailan ain zuzen, sarratu egiten daualako. Bere-ala, eta
1901`ean beste aldizkari bat argitaratu eban EUZKADI`ren izena eu-
ki ebana.

1900`an Otsaila`ren 2`an, ezkondu zan Atxikallende`tar Nikolasa`rekin, 25
urtekoa. Eta Lourdes`erako eztai-bidaldian (viaje nupcial), gaiz-
ki gaisotu zan. Sabinok emen 35 urte eukazan. Adi-erazi merezita-
koa da emen, berari egin eutsezan gaitz-etsiak (criticas), eta be-
rak egin eben Bizkaitarraren seme-xeegaitik (pueblo llano) babesa.

1901`eko Epaila`ren, " EUZKADI " aldizkaria argitaratzen dau.

Irakas-bide bat asmatu, eta " BIZKAITARRA`ren idatz-lan oberenak
sorta baten batu eta argitaratu ebazan.

Urrian, " LA PATRIA " agertzen da; bere laguntzaile izango da Sa-
bino, gaisoak itxiten dautson denborarte: Bertatik emango dautsez
bere azkeneko mezuak abertzaleei, eta bertatik be agurtko dauz.

Nai, beren neka-ezin egimenaz, Euskara desagertu ditekenaren estu-
tasuna sartzen jako; eta izkuntzagaz batera, enda-lez, erri-lez.

Larritasun au agertzen da, 1901`an, Arantzadi`tar Ingartzi`ri idaz-
ten dautson eskutitzean: " Olan asten naizenean burua erabiltzen,
Euskaran, nai endaren arloan, argi ikusten dot, gurea ba-joakula;
eta ba-joaku, azi dan gizaldia amaitu orduko. Aukera bakarra diru-

an dago, eta au, ez da aurkitzen.

Eskutitz onetan ikusten dogu, Sabino ez zala ameslari bat, ondo baino obeto gogoratzen dauzalako, erriak euki ebazan il-biziko arazo larriak, bere izkuntzaren etorkizunerako, bai erria-ren bizi-tzarako.

Orregaitik Sabino, Euskera-ren idazkeragaitik arduratzen da, ego aldeko lau lurraldeen idazkera bateratuaz.

1902-an Maiatza-ren 25-ean, Estatu Batuetako lendakariari bigaltzen dautso eskutitz bat, Kuba-ko ugartea-ri askatasuna emotea gaitik. Urrutidazlariak ez eban eskutitz-ori bigaldu, eta gainera salatu egin eban Espaniako gobernariaren aurrean. Orregaitik, espetxean sartu eben Maiatza-ren 30-ean, eta askatu Azaro-ren 8-an.

1902-an Azaro-ren 21-ean, atxilotzeko arriskuan egon zalako, Balkarloz edo Orreaga-tik muga aldatzen dau Iparraldeko Euskalerrira, bere lagun minaz Oiartzun-tar Prantsisko-rekin.

Erria desagertzeko arriskuan egon zalako, gogoetari agertzen da, eta espainolatu asmatzen dau alderdia, ia orko bidetik aal izaten bada Euskara eta erriaren indarra sendotzea. Asmo orren gogapena izkutuan eukinaz, berari alderdikideak uste osoa emon-arte, eta ainbeste bider eskatu eutsoena. Zori-txarrez, oso gutxi baino ez eutsoen ulertzen. Eta ez eban eskatzen besterik gaur garana baino; nai ta Kostituzioa ontzat artu ez arren.

Canovas-ek, arrazoia euki eban, Sabinok urrin ikusten ebala ezanaz. Orduko denboretan, Sabinok ikusten eban nire ustez, espataren arrazoia amaitu egin bear zala noz edo noz. Begitu or bestela, indarraren askeneko aleginak egin eta gero, gaur argi geratu da, egia-aren arrazoian bitartez izan bear dirala arrazoian bideratzeak.

Nik uste dot, Bera pozez beterik egongo-dala, anai-arteko alkartasuna lortzen azi garalako !!.

Ikusten dogun lez, SABINO pare-gabekoa izan zan, eta noski, gure indar-barriztu-aren AITA !!!.

ATUTXA-tar PAUL

ZORNOTZAN 1999-an URTARRILLA-ko 27-an

" B I D A L G O A "

Badoa apurka, apurka, gure Euskal-etxearen jabetasunerako bidea beteten; eta ori, oso pozgarria da neurentzat, neure bizitza orren neurrian betetan dala. Gure etxe nagusiaren NORTASUNA zentzuz betetan asi garalako; eta bada-
kit ori, oso pozgarria dala gure anai/arreba artean.

Orregaitik, gure etxe nagusiaren edertzapena ulertzen dot, Euskal-zentzuaz bete egiten danean. Nor-beren etxe-txikian egin bear leuken sendien antzera: sarreran edo gela aundietan, guraso, aitite/amama. bai etxeko seme/alaben argazki edo margozkiak eskegita ondo apaindurik, edo zarkin bat etxekoen baten-bata-gaitik lan ederra berarekin eginekoan bir-eskuratzeko, erriko gizon-jakintsua-renak eta abar... ; dana dala, guri zeozer esaten dauskuna etxean sartzerakoan; eta batez be, beti lasaitu ta alaituaz etxe txiki ta aundien bizitzarekin. Orregaz, erri-jakintza sendotu egiten dalako eta Euskalerria`ren izaera biztu bereziko argiakaz, dirdiratsu agertu daiten erri guztien aurrean.

Alderantziz, nik gaur-arte ikusitakoa geienetan, edo arlo aundi baten beintzat izanda, arrokeriz bete-beteen esaten dana: " nire etxean berrogei margozki eta milla liburu egongo dira "; baina, norenak edo zeren buruz diran itandu egin ez-gero, ez da agertzen erantzun garbirik. Bai aberastasun ustela, arrokaria bai-zik, beste ezertxo be erakusten ez dauana.

Guzti-au dator, Latxaga jaun jakintsuak neugaz eukineko alkar-izketaren bidetik. Berak esaten dau: " gure erri-jakintza zabaltzeko BIDALGOA (servicio de correos) eskuratu bear geunkela, tresna ikaragarritzkoa dalako erri batentzat. Begitu bestela erri ezagutzeko`en arloan, a-zelango mailla artuko geunke, gure gizon aundian esku-artean ibilteagaitik ezkutitzaren bidez; danak ezagutuko geunkezelako: Azkue, Arana`tar Sabino, Orixe, Lizardi, Onaindia`tar Santi, Barandiaran`tar Joxe Miel, Lekuona`tar Manuel, Kanpion`tar Arturo, Oñatibia`tar Jon, Zipitria`tar Elbira eta abar. Ez dozu ikusten ?. Ze polita izango litzateken gure erriarentzat olan izango balitz !. Gaur ezagutzen doguz: Cervantes, Lope de Vega, Quevedo, Azorin eta abar; oso ez-berdinak direzelako gauzak Madrid`tik ikusita edo Euskalerritik. Selluetan bear doguz gure gizon/emakume aundien irudiak Euskalerrriaren jakintza zabaltzeko. Eta bigarren gauza izango zan, lantoki geiago eukitea gure gazteentzat.

Ez zan geratu pozik alkar-izketarekin, eta FEROE ugarteak daukan nortasunezko askatasuna BIDALGO`aren bidetik, bai eurak ateratako eta berak erositako iru liburutxo eder emon eustazan idatz-lan au egiteko.

FEROE`n lurraldea, ogeitabi ugarte`en artean osotzen dabe; eta Kalmar`eneko batasunagaitik 1397`an Dinamarkari egokitzen jako, baina 1948 ezkerostik jabetasun aundia daukie euren jaurkintzarako. Ezkoziako Iparraldean da kokatuta,

1.400 Km laukiak daukaz ugarte bilduma orrek eta 44.000 biztanle; nekazaritza ta artzaintzatik bizi dira.

Jabetasun bidez, euren ardurapean dauana bat BIDALGOA da, eta emen daukadan kartoizko orri luzean karpetaaren antzera batu egiten dana, bere agirian esaten dau: 1996`ko seillu gomutagarriak, eta zabaldurik alde batian, ugarte baten ingurubegi irudi poli-bat erakusten dauana, eta barru-aldian, 1996`an agertuko direzan selluak. Bigarren liburutxoan, eskomaldeko orrian sellua euren gizon aundien irudiaz, edo beste oroigarritzko irudi batekin. Ezker aldeko orrian, oroigarriaren edestia, izaera eta zergaitik gogoratzen dan. Irugarren liburutxoan, bigarren egite bardin antzekoa, baina oraingo margolariakaz.

Begitu beraz, nolako edertasuna erri-jakintzaren arloan, eta zelango indarra daukan erritar guztiak ikasi daien gure erriko gizon ospetsuak, lurralde eta daukaguzan txoriak, abere, zugatz, itxaso-basterrak, baita gure tokirik politenen irudiak.

Ain garrantzizkoa izanda, eskaera sendo bat egin bear dautsegu agintariai: orrek esku-bideok gureganatzeko, errien esku-arteko ardurak direzelako, eta bear ditualako erriak bakearen bidea zendotu daiten.

Eskaera ederra Euskal gorputza zendotu ta biztu daiten !.

FEROE ugartekoak Dinamarca`ko erria osotu egiten dabe, eta orregaitik Euskalerrria baino eskubide askoz gutxiago dauka, gu erri-bat garalako; baiña eurak lurraldeko jabetasuna diruaren arloan egiteratuten dabe, alan dalako euren banakuntzaren ardura legearen bidetik.

Nire ustez posta`ren jabetasuna lortzeko, erriaren indarra bear geunke, eta begitu zenbat bide daukaguzan eskaera ori izenpetzeko: Udal-etxeetatik asita, batzoki, elkarte, elkargo, auzunetan eta abar

Ordua da, Euskalerrriko osasuna eta pakearen arloarekin erritarren artean arduratzen astea, danon artean osotzen dogun erri-au argitu daiten.

OR BIDE BAT ERRIA ARGITZEKO !

OR ERRI ARDURATUA !!

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 1999`an APRILLE`ko 6`an

Askatasuna da gure egin-bideko edo bete-bearrezko ikaskizuna gaur egunean; eta ori: izakiaren eskubideak alan beartu egiten dabelako, berak daukazan bete-bearrezko ardurakaz.

Orregaitik, berezko arduratik ezin alde-egin eta gutxiago saldu-ezina edo eman-ezina. Orrek esan gura dau: gu ez garan neurrian, orren neurrian zor izango gariela, ez bakarrik gure sendiari, bai izadi onek daukazan enda, edo izaera desberdin guztiari be.

Euskaldunak, nai ludi onek daukazan edozein enda edo izaeradunak, ezin dautse uko-egin berak daukazan ardurai; orren arlotetasun edo salketaren neurrian entrabalotu (desequilibrar) egin leukelako izaeraren zabalkunde guztia; beren eskubideen egin-bearrak beste-batzuen eskuetan edo ardurapean itxiteagaitik. Eginkuzun ori: nor-beren borondateakin kateatutia bestearen menpean dalako.

¿ Onen ardurarik-ezak nolako ondorioak ekarri leikez ?. Begitutea baino ez dogu bear Ludi oneri guztizko-ikusmenekin, eta zeatz gure Europa maite-oneri, bereala ulertzeko: sekula !, ez dala egongo bakerik, guztien arrazoia edo arrazoi guztia ez bada ezartzen, ludi onek daukazan jatorrizko legeakaz.

Au-da erakutsi gura dotena jarraipenean, gaia sei arlotan bananduz.

IZATASUNA: (Naturaleza)

Gure iztegiak esaten dabe " izatasunen " itza gaitik: latinezko NATURATIK datorrela; Grekoz, PHYSIS`en itzulpen zeatza dala. Eta itz-bi auek, bakarrik esaten dabela: " jaiokeraren, sorburuaren edo azierakin zer-ikusia bakarrik daukadala. Leenengo esaugurean erakutsiz, bizi-en berezitasuna. Izatasunen itza izendatu ez-gero zentzu-zabalean, bakarrik esaten dau: " enda bakoitzaren izaera, jaiokeratik dagokio-lez dala ".

Era berean esaten dasku, izatasun au, izaeraren egitamu-egillea dala bere muinean; eta orregaitik: " beren egikeraren arau bein-betikoa "; " gure buru guztien gainean derrigorrezko legea esarrita daukaguna, izadi osoak erperatuta daukalako " dala au.

Erreza da ulertzen ba: " ni, ez nazela inoren ardurazkoa; bai, alderantsiz, nire ardurazkoa "; edo: " arduraren jatorrizko egokitasuna nire bizi-lekuan ". Arau edo bearrezko lege-az joan-bear dauana, erri-artze (naturalizaciõn) gorputzari emondako (materializada) onetan.

Ondorio auek gaitik, izaeraren askotasuna, bai sorpeneko ugaritasunaren guzti-lez, orren arduragaitik mugatuta dago, edo arduraren egokitasuna, danok darguna derigortuta.

IZATEA:

Izateagaitik, iztegiak edo lur-zabalean ontzat artutako itzaren esaerak esaten dauskue: bikaitasun orregaitik " ZERBAIT, GAUZA DALA ".

Orregaitik dala oinarri eta leenengo osotasuna; bai daukazan beste obekuntza guztiak, izaeran artukizuna daukiela, olan edo beste era-batera jokatzeke. Beraz, ez denborarik ez etorkizunik ez dautse aurreratzen, bion erpeak izaeran sartu egiten dabezelako (bizitzan), euren artean olan agertuaz. Ezer-ezetik guztiz urrunduz, bere goiengo egokitasuna, dan guztian agertzeagaitik.

Erresa da ulertzen orregaitik, gure gogai-bulko (ideal) arima-au, JAINKO`ak gizatasun biurtu zituanetik, gauza edo asmakari izatea lojikazko arrazoian; bai gogozko burutasunaren (conceptual) jakinean, euren izakera esaten dauskun ezkerro, izakiren itzulpenak bakarrik dirala.

ERRI-JAKINTZA:

Iztegiak esaten dausku, laterazko COLERE`tik (Landu) datorrela; beren esagurea asieratik, gizakumeen gaitasun-egokiak zaintzeko eta aurrerapena emoteko dirala, izaeraren egoeratik urrunago.

Erri-jakintzak asieratik, sartu egiten dauz erpeak izatasunean, eta beren egiazko amaiera lortzen dau, gizaren izatasunezko obekuntzan. Olan dala, erri-jakintzaren aurrerapeneko ekitaldi, artezkuntza eta neurriak, beragaitik dagoz baitipat mugatuta.

Norberaren (izaeraren) berezitasuna eta egiazkoa (objetivo) banatzen dauz. Leenengoak, gure egin-bearrezko obekuntzaren maila aipatzen dau; adibidez: izkuntza, gizarteko bizitza, zuzentasuna, erlijioa, eta abar. Eta bigarrenak: egiazko jakintza (cultura objetiva o de cosas), trebetasuna eta teknikan obekuntzaren maila.

Ikusten dogu-lez, bizitz onetan erperatuta dagoen legetik, jakintza be ezin da alboratu, gure egitasunezko egokitasunaren ondorioa edo emaitza dalako; orregaitik ba: gizarte guztiari argitzen dautso, erabiltzen dauan gogamenaren (concepto) asmakisuna (conceptividad), zeazkatzen edo erakusten bere egokisunaren jardunaldia eginkizunezko arduran.

Gaur-egun, gure gizarteetan (esan leike konturatzen azi-garala), borondatezko ardurarik-ezagaitik (JAINKOA`ren legeakaz batera joan bear direnak), ustezko edo guzurrezko jakintza bate-gaitik berba egin leike bakarrik, daukaguzan indar guztiak xautzailetasunezko (consumismo) bizi-bidetik ipinten doguzelako, eta onek daukan indar-biziaz beartu egiten gaitualako etxura onekin ez agertzeke.

IZAKERARI, jakintzak goratu eragiten dautso beste izaeraren aurrean, banaka nabaritzeko zeindasuna edo egokitasuna beren sorkundeen sorkuntza (concepciõn conceptiva) guztian erakusten dauelako, bizi-guztia eta banaka beteten dauana, nortasunaren egokitasun-lez, ezinbesteko ekintazunetik IZAN gura dauana.

LEGEA:

Gizakiren gidari dana, derrigorrean ibili-bearra dauka, gauzatuta mundu onetan. Legeak, ez dau zaintzen betiko gure sortzailetasunaren berezkotasuna erri-artzte (naturalizaciõn) ontan bakarrik, beren muinean erperatuta egoteagaitik; bai adoztasuna, gure asmakeratasunen sorkuntzako (concepciõn conceptual) arrazoitasunean, gaiak daukazan arauakaz.

Orregaitik, izatasunean eta izatean, erperatuta edo edukita izatasunezko ludi onetan dagozela ikusi dogun lez: araudia, jakintza edo gure egoeran erri-jakintzan, betiko aurreraldi-ekintza onetan, " bide-izatea baino ez dirala ". Onen ondorio edo eratorriagaitik ikusi-leike: LEGEA erperatuta, bat edo muin eginda dagon lekutik atara egin bear dogula, LEGEZ azalpentzeko eta elburutzeko, gure nai-gabeko gaitutasun onetan.

Orregaitik LEGEA da: izateen giza-barreneko arnas-artzeko erabakia, berezko burutapen mailla guztian; erriak edo erkidego-jakintsuari atzemaite dautsona orren eragin bidetik, euren arrazoitasunezko egikuntza lojizkako zeaztasunetik ados egon daiten BEREN IZATASUNEZKO LEGEAZ.

- BIZITZAREN GOGAMENA ARDURAZKO GARBITASUNEAN -

Garbitasuna, non agertzen da ?.

Garbitasunaren ezarpena adierazteko, mugatu edo deitu-geinke: " bizitzako jokaldi edo antzezketak egin bear doguzan antzoki edo ikustokiari ".

Orduan, gure nai-gabeko erri-artzeagaitik (naturalizaciõn) gabiltz berbetan. Izatasunak edo bizitzako asmo guztiak JAINKOA`ren aztarna eroaten dauan ezgero, BERE izakeran esan geinke edo esan-bearra daukagu izan bear dirala joandako denboretan, gaurkoan eta gero izango direnak, beti izan bear diralako garbiak eta argiak gure bizi-toki edo ludi-gai au beti bardina dalako. Gure nai ta naiezko ekintzak erakusteko tokia.

Onak esan gura dau, bizitzako ekintzari ies-egitea ezinezkoa dala, egikuntzak era-berezia oro-bat daukielako egikeran. Orregaitik, gure lojistikako arrazoiak billatu bear dituz (asmatu), nolako gai-gauzak bear ditun, gure bearrezko eginkizunak elburutzeko, ludi onen izatasunak eskatzen dauan lez. Or ! agertzen da garbitasuna edo egiazko izaera bere indar guztiaz. Borondatea ba, izan bear da jokalaria nagusien arteko bat, zentzumenaren gozo-gozo deituari norkerirako, utsaltasuna, andikeri edo otsaundien zirikadak bastartuaz: garbitasuna, araztasun (pureza) garbi-zariko (limpia) neurri-onean, seni-zati, etorrizko, jaiotze-

tiko eta abar, agertu daiten. Zikinkeriak, guzurak eta naastezkoak, ondasunak naiz batzaile-zaleak nortasunen esku-bidetik lapurtu egiten dabena, legezko bidera eroanda, danok eta bakotzak, bear doguzan ardurazko neurriak ari-izanaz, gure eginkizunak legezkoak izan daitezana. Au da arrazoia, egite-bakotzaren, uts edo garbi-lekutik asten garana, beti adiontasun (oportunidad) berdina eukinda. Nai-ta errakuntza asko eukinda-be, berriz aritik, uts edo garbitasunetik asteko, beti aukera berria. Or agertzen jaku JAINKOA borondate on guztiaz, Leenengo garbitasunetik edo uts-tokitik berriz asteko baimena emonaz!. Izadia eta Europak, bide luzea ibili bear dabe, esaten daben ERRI-AGINTERAINO (democracia) eldu-arte; bakotxari berea eta beren arduragaz esan-gura dabelako itz-orrek; JAINKOAK ipinitako eta bete-bearrezko legeari, nortasunaren elburu ori danok burutzeko, bizitz onetan nai-gabe jaioteagaitik.

Bestela, ¿ zergaitik gaur egunean ainbesteko premina, ordaindu edo itzuli bearra izatasunari (naturaleza), askeneko urte gutxitan ainbat kalte egindako, neurri-bardinean garbitasuna bear dauanak iraun dagien ?. Adibidez: ozonoko zuloak, errekaren eta lur-azaleko zikintasunak dakazan kalteak eta eriotza urpeko arrain bizitzari, lur ganeko abere eta aizeetan dabilzan egaztiari, eta zetan esanik-ez gizadiak nai ta nai-ez artu bear dauan arnas-aizeari, edozein lekuan botatako zikinak; naiz itxas-pean edo lur-pean, eurak dauken kutsapeneko arrisku edo gal-bideakaz, kontuan euki-barik, ostean egin bear diran erabilketak indar-kaltegarritzkoak ezeztatzeko. Bizitz onetan, ez dalako dirua jokatzan dana (legeagaitik aldatu dana), bizitzaren jarraitasuna baizik, garbitasunaren burutasuna edo asmoa (concepto) dalako apurtu doguna, JAINKOA`ren AGINDUA`ri ain erantzukien-ezagaitik ?.

Guzti-onek esan gura dau, lurrari ataraten dautsagun mozkin guztia, neurri-gabeko jan-bear itsutasunekin egiten dogula (diruan, gizartean neurri-bako ifaurketak (estratificaciòn), ifloren ardurak gitxien artean jabetu eta abar). Ardurak tartekatu lotsatu barik, izatasunaren garbitasunak merezi dauan lotsakizuna erantsi eta indar-barritu daiten da au; bidamoduan besarkatu, bizitza on-artu dagien, izatasunaren edestian izango diranak datozan denboretan, BERE AGINDUEN GARBITASUNA zaindu dagien ardura guztiaz.

Gizon/emekumeen arremantetan berdin gertatzen da. Ba..., GARBITASUNA edo BEREZKO ERRI-ARTZE izaten bada BEREN etorkizunetik ematen dauan LEGEA: " EZIN BESTE GAUZARIK EGIN "; eta len azalduta geratu dan lez: izatasuna, erri-jakintza, izatea, legea, izatasunezko bizitza onen nagusien elkartekoak izanda; ez direz ezartzen lojikazko etorkizunetik diran zatizko jakintzetan EGIN-BEARRA, ESKUBIDEA eta GIZA-LOTSA, izatearen geiengo berezitasunezkoak izanda ?. Orduan, arrazoisko antolakuntza ukatzea ezinezkoa da, nai izatezko elkarteetan, bai zatizko jakintzetan, leenengo asmakuntzatik jaiotakuak diralako, eta izatasunak daukan erperatutako legetik azten diralako. Ulertzeko erreza orduan: izatea,

leenengoko asmoaren ondorengotik jaio edo azitea; orregaitik EITENDA eta EGIN-BEARRA dauka BEREN LEGEAREN adostasunekin, bizitzan erperatuta dauana. Beste aldera izan ez-gero, berarekin ez dauzelako ekarten, gerlak eta konpondu-bearrezko egoerak baino.

- ERRI-ERABAGIA - ASKATASUNA edo JABETASUNA -

ONDORIOA:

Ikusi dogu, JAINKOAK gizon/emakumei BERE legeaz inguratu eta berarekin erperatuta, Munduko beti jaio-berri ontara, ordezkartzako arduradunak izateko bidaldu egin dozkula; alegindu gaitez, LEGEA neurri egokian zainduz, iraun dalgiala gure arteko adostasuna baketsu.

Baina au ziurtatzeko, nun geiago ikusi geinke lege ori ?.

Len esan dogun lez, izadi edo mundu guzti-onek erperatuta daukala legea, eta ez ustegabe, gizakiren bearrezko asterkuntzagaitik, egunero argiago agertzen jakun gauza bera da. Einstein`ek, beren ikerketatik argitu ebana, eta gaur ziurtasun aundiagoagaz jakiten doguna da; mundu guztiari begitu ez-gero: " gai-mundu onetan, ez dagoala puntu bat be auzoko barik, eta guztiak berezkotasun bardinekaz, bakotzak, beste guztien erdian esan-geunke kokatuta dagola. Galaxiarik ez dagoalako, besteak baino erdiagoan; orren izadi (cosmos) guztien erdia, leku guztietan agertzen dalako, eta beren mugak inundik be ". Orrek, esan gura dau, izar guztiak daukiela indarra eta ardura bardinak, izadi-onek, neurri bardinean jarraitu dagian.

Ori, ludi onek daukan osotasunean; baina, joan gaitez barrurantz, eta ikerketaldi bardinean, gaiaren zatiketean (begitu noraino zatitu egin dogun) ikusten dogu, zeozer jakiteko: onen ebagiak erdi-banatzeko, bakarrik egin leikezela, gauza, izan edo nortasunezkoak diren artean, eta argira edo ikus-tokira agertuaz, ataltzu (particula) guztietan agertzen dana da, bakotxak bere indar berezia daukiela, leenengo izateko, eta bigarren, eurakaz osotu egiten daben bizi-gorputzari (berarekin egiten dauan lez) indartu eta bultz arduratu daiten JAINKOAK ipini gaitun agindua beteteko, bizitza osoak alai jarraitu dagian.

Gizon/emakumeen aberetasuna eta abere guztien gorputza ikertu ez gero, bardin gertatzen da. Eta orregaitik, emen agertzen dira gauza bi oso ez-bardinak. leenengoa: JAINKOAK eginda eta aginduak emonaz, bizitzaren izaera leun eta alai jarraitu egiten dau, bere il-bizi eginkizunezko aldetatan, atzaltxoak (particulas), bizi ez-bardinak abere/arrain, zomorroak, eta ikusi ez direzan biziak, bai gauzak euren bizitzaz beartuta dagozelako, bir-jabetu egiten dabe osotasunera barriz bizitzeko prest egon daitez.

Eta bigarrena, gizon/emakumeen eginkizuna: jainkoak ez-garan lez, agertzen diran gauzakin baino (nai-ta nork-izan bizi-gauzari, ugaritu egin-azotzeko), ezin gara erabili, ordezkartzak beartu egiten dauzkun arduragaz.

Or ba, non daukaguzan benetako eta izugarrizko ikus-tokia, beretik ikaste-teko eta ordearen ardurak beteteko.

JAINKOAK ipinten daukun aukera aundiena ikasteko da: zelan igoten diran leenengo ataltxotik gauzara edo izatasunera ikas-aldi ori beteteko eta ondo ama-itzeko ibili bear dogun bizi-au; eta ari-era orrek, nola beartuten gaitu izan gaitzean maila berezitasunean beetik-gora, berzko izatasuna betearte: gizon/e-makume, senide, auzune, lurraldeak eta etxe-nagusia edo ABERRIA; beti egiten diralako gauzak erpetik aunditasunera eta aberetasunean, txikitasun egoeratik aundiak izatera. Baina, beste gauza-bat da, gizon/emakumeak egiten doguna, eta orregaitik dabil mundu au ankaz-gora.

ERRI-ERABAGIA - JABETASUNA - ASKATASUNA:

Danok eta banaka ordezkartzaren ardurazkoak garala, ziurtatzen dauana da: nortasunak daukan askatasunaren egarri-bereziak; bete eta lortu egiten diralako JAINKOA`ren legeakin, adostasun guztiaz jokutzen dogunean. Joko onek, izatasu-nezko mundu onetan, izatea edo nortasunaren izaera argitu daiten daualako au. Orregaitik Euskaldunak eta EUSKADIK, badauka zer-bete BEREN LEGEAREN ordain be-arrezko ardurakaz ERRIA argitu daiten.

Berez argitzen dana da, ikerketa onen ostetik: nor-beren erabagia edo erri-erabagia (auto-determinaciõn) izate edo izaeraren ordain-bearrezko berezi-bat dala, JAINKOAK ipini gaitulako orren arduratan jaiotzako guztiak. Eta argiago, ez dala iñoren fabore edo giza-maimenik.

Ori da, ondo-jaiotako Euskaldunak egin-bearra daukaguna beti, JAINKOA`ren agindua bete-gura ba-dogu.

JABETASUNA ez da besterik, legeak ezkatzen dauan ordaina, arduradun danak, bete egitea baino.

Eta ASKATASUNA: esan doguzan gauza guztiak JAINKOAREN legean betetan ba-doguz, eurak ematen daben poza.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 1999`an ORRILLA`ko 8`an

Badagoz egun ospetsuak arduradunaren bizitzan, JAINKOA`k ipini gaitun legearen arduratan ordezekoak izateagaitik. Olakoak dira Ueskan ibilitako ikertzailezko lanetan Euskararen arloan, bere egia argi eta garbi agertu daiten Ludi o-netan; kaizar-zaleek egin dabezan lan zakarrak euren sasi-jainkotasunagaitik, egiaren astarnak guzurrarekin gal-erazteko, il-obiren illuntasunetik argitara atarateagaitik.

Nire poza, zetan esanik ez: leenengo, arduradun aundiak eta jaun jakintsuakaz joateagaitik; eta bigarren: eskuratu egin genduzelako ango agiritegian, billatzen joan ginen argibideak.

Guzti-au dator: Latiegi`tar Bixentek (apaiza eta irakasle izana bera, Gazteizko lanbide-ikastegian), irakurri ebenetik del Arko`tar Rikardo 1913`an argitaratu leen egin ebena Ueska`ko Euskararen buruz.

Bixente atzera begitu-barik, Ueskan dauan agiritegira edo artxibora joan zan, ia nolako astarnak edo argiak billatu egin leikezan Euskalerriko nortasunaren izaera bere zentzuz agertu daiten.

Ondo-artua izan zan artxibo-zain edo agiri-zainaren aldetik. Onek, Balager eta Santxez`tar Federiko`ren gana bigaldu eban, bera baino jakintsu aundiagorik ez dagoala Aragoi guztian esanaz.

Poz aundiaz eta ondo baino obeto artua izan zan Bixente Federiko jaunaren aldetik, eta onek esan eutson: 1349`ko argibide (documento) baten aipamena izan zala, del Arko`tar Rikardo`k 1913`an argitaratu ebana. Bigalduko eutsela esan eutson, argibide-orren bikoiztu-bat, eta alan bete eban be.

Oses`tar Xabier gotzain jaunaren-gana joan zan Bixente, eta berak be Euskaldun sendimendua eukala esanaz: Federiko jauna baino jakintsuagorik ez dagoala gauza orretaz, bai benetako egi-zale dala esan eutson.

Bixente`k, eten-bako lanarekin ortik aurrera, beste argi-bideen astarnak artu zituan; adibides: XIV, XV, XVI eta XVII gizadiko argibideak, eta EUSKERA-ZAINTZA`ko batzarrean ikus-arazi eben, orren argibideen bikoiztuak (foto-copias) etxera ekarri bear zirela esanaz.

Bixente eta Joxe Mari (LATXAGA) geratu ziran argi-bideen billa joateko, eta ni gurdien gidari, bai agiritegian lan egiteko, Garmendia`tar Mari Karmen, gure Eusko-Jaurkintza`ko aolku-emaille danaren laguntzaz.

Lortu genduzan ain garrantzizko argibideen bikoiztuak, XVII gizaldian Ueskan Euskaraz berba egiten zala esaten dabenak, eta pozez beterik etxera ekarri genduzan.

Nundik-nora edo nungo erroetatik artu ebazan 86 urteko gizon onek (Federiko jauna) Euskeraren zaletasuna edo ardurak ?. Ba..., begitu nortzuk agertzen diran emen. Zalduban edo gaur Zaragoza deritxon Aragoiko uri-nagusian, ikastetxe-

naguzian edestia ikasten egon zanean, bere lagun minak, Erronkariko Estornez eta Lasa`tar Joxe ta Mariano ziren. Auek izan ziran sartu eutsoenak ain zaletasun sakona eta ardura Euskera gaitik. Berarekin mintzatzen egoten ginean, sarritan esaten euzkun: bera, beti arduratuta egon dala, euren sustraiak zeintzuk diran jakiteko`en egarriaz.

Gure, Ueska`ko urian ibilteagaitik, ugari ikusi genduzan ormatan margoak, esaten ebenak: " Aragon libre, Aragon es una naciòn, PP y PESOE españolazos, eta abar. Nik, Bixente eta Latxaga`ri esaten neutsen orduan: " onek be, bado-az erri-lez askatasunera ", euren erantzuna izaten zan: " baina orrek anarkis-tak dira ". Bai bere-ala nire bigarren itauna: " Federiko jaunaren sustraien billaketa be-bai ?.

Nik, ikusi egin dotenagaitik, ondorio bakarra agertzen-jat nire bururakizu-netan: ¿ Zergaitik ez doguz bigaltzen (ez dakit bigaltzen diran ala ez) gure edestilari, paleontologo eta abar barriak agiri-tokietara, orrek bear-doguzan argibideok danon argitan ezartzeko ?. Ostikada galanta, Euskara eta Euskaldunai illobiren iluntasunean sartu-izan gura-dabe nai !; eta bete gure ardura naguzia, SABINO`k argi esaten ebenetik: " alboko eta Ludi onek daukazan erri guztiak argitu daitezkan, EUSKALERRIA BIZIRIK-DAGOELA ta BIZI EGIN GURA-DAUALA ", eta ipini egin doguzela daukaguzan gogo ta indar guztiak gure NORTASUNA LORTU-ARTE. Guztiz beartuta gagozelako JAINKO`a-gandik, erperatuta egin euskulako danon an-tzera BEREN LEGEA`rekin, arduragaz ASKATASUNA LORTZEKO.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 1999`an DAGONILLA`ko 25`an

Ez da lan erreza, edertasuna itzez mugatzea: " bera dalako, era`ren itxurazko esaeran, ondoriozko adierazpena ". Gure derrigorrezko egin bearrak gauzarekin eta gauza guztietan eguneroko egikuntzan, era berdinean egon-daitezana, aldi-bateko erri-artze onek eskatzen dauan mail ingurutik bikaintasuna, edo orekan, neurri egokitasunezkoa.

Iztegiak mugatu egiten dau: " gogoaren (esp̄iritu) ikusteari ematen dautson gozagarrria, gauzaren egokitasunak ". Artezko maillan: " antzez lanetan (obras de arte) egindakoak ". Gogai bulko`an (ideal): " eder-zalea`ri (artista) egoki-zaion eredu-naguzi (prototipo) edo molde-erakusmenak ". Edertasunak esan: " gauzaren esan bearrak, itz gozotan ezatia ".

Nik esango neuke: " gauzaren egikuntzak, erak, adoz edo egokitasunezko urreratze aundien egon daitezana gure jakituriaz " dala.

Orrek esan gura dau, gure eginkizunetako edertasunaren mailla agertzen dala, ludi onen, gai guztia bizitzarako daukana bai BEREN LEGE`az bizi-bizi dana BERAK gura-dauan arte, eta gure aurrekoak azieratik edestian zear izendatu egin dabezanak gaur-arte, berezitasunean diranak izateko giza-maillan, abere arloan, gain-gauza maillan, euren jardun-bidea, izadiko indarraren joera eta abar, jakite doguzan neurrian. Ezin besterik egin erri-artze ekintza onetan, gure jakituriak ulertu dagian, zer edo zein dan berezitasunezko mugialdia BEREN-LEGETIK agertzen jakuna, beren aritik jokatzeko, gure bizia bakez eta alai jarraitu dagian. Or ! agertzen da, bizitzaren, bai gure eginkizunaren edertasuna bete-betea bakez izateko, gure eginkizunak orren jakintza egokitasunezko egikeran orde.

Edertasuna, nortasun-gabekoa da; orregaitik ez da zerbait, izaki, edo dan gauza-bat. Edertasuna esan gura-dau, begitu leikezala gauzak ondo eginda dagozen orduan, nor-baiten borondate oneko irriparrea, ondo egindako margozki-bat eta abar, ikusteko gai edo duin dalako; baina batez-be, gure ezinbezteko gauzak egitekoetan beti esaten dozkuna da: " ondo eginda badagoz eta nolako indarrak borondate-on aldetik ipini doguzan, bere esaera egizkoa izan daiten ".

Orregaitik ba, edertasuna da, gure arimako borondateen neurri-emaille, gure alegin onak orren neurrian agertzen diralako egiten doguzan gauzatan.

Ulertzeko erreza ba: " edertasuna ordezkkoa dala gure egin-bearrezko gauzatan, eskubide osoa daukielako gogamen guztiak, nai-gabe, askatasunean jaiotea-gaitik.

Erri baten, edo edozein gogamenaren edertasuna agertzen jaku beren atsegintasun guztian, nai erria edo gogamena osotzen dabezan guztiak, benetako zatidun edo arduradunak direzenean errien edo gogamenaren arazoetan. Banaka izan ez-

gero, zatidunaren indarra, nai aundia izan ez-gero be, uts aundia ordezkartizan izango zalako gure funtsezko balioan. Bizitza izan bear dau, gure funtzezko balio aundienakaz zuzenduta, beren edertasuna izatez-goragoko dala erakutsiaz; errien arima dalako ikusten dogun edertasuna. Eta ori, ikusi, senditu eta igarri egiten dalako da: " edertasunagaz on-bizi egiten dalako, oneragarri orekan lortu egin-dauanagaitik.

Lagun min eta maizu aundi-bat euki neban, gaur egunean-be nirekin dagoana, aita Santi Onaindia zan; eta gure alkar-izketan esate-ustan: guk egineko gair-gauzarekin, zugatzak, lorak, abere, badaukie arimarik ?. Nire erantzuna beti izan zan bardina konturatu nintzanetik: Ludi onen gai guztia, JAINKO`ak emon eutselako bizitza, BERE ARIMAREN borondate ezin-besteko bizitasunean dauka, eta gizarenak, nai ta naiezko ekintzatan, gure arima`ren borondatezko neurrian agertzen diralako egiten doguzan eginkizunak !. Ortik agertzen zalako gaia, azken baten, beti eltzen ginan gizaren nortasun maillara, beren borondatiaz neurtuta. Zer ezanik-ez, bide orrek uzte-gabe, beti eroaten genduzala jakintzaren arlora, eta orregaitik neurtzen gendun gizaren izatea edo nortasuna, beren jakituria-gaitik.

Santik: Burutapen orregaz uzte dozu dana amaitu dala ?.

Nik : Ez !, JAINKOA`ren LEGEA ulertzeko uzte dot jaiotzen garala, eta aurrerantzean, bere adoztasunean gure nai-ta naiezko eginkizunak beteteko !.

Santik: Eta zer ikusten dozu JAINKOA`ren LEGE`an jokatu ez-gero ?.

Nik : Ludi onen bizitzak BEREN LEGE`az betetan diralako, izugarritzko edertasuna erakusten dozkuna eredu-lez; eta gizaki guztia, BERE LEGE`az ofarrituta dauana, bere ordezkartizan jokatu ez-gero !, Ludi onen berezitasunezko izate`aren bakea ta askatasun guztia, ezin besteko edertasunean.

Gogora-zaitez, gure arbasoak, beti euki ebezala JAINKOA eta LEGE ZARRA eredu-lez; eta nolako !, edertasuna euren izatezko nortasunean.

Beste edertasun-bat erakutsiko geunke ABERRI maillan, on-artzen ba-dogu, gure arbasoak emon euskuen eredia. Nolako lan bikaina ta ederra egingo gendun Ludi onek dauka-zan erri-berezi eta on-artuko bai maltzur laterrien aurrean, Batikano ta guzti !; uko ezinean, esan dagian: OR EUSKALERRIA !!!.

AGUR SANTI

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 1999`an AGORRILLA`ko 6`an

Associaciõ Voluntariat Lingüistic`en izenarekin, Organitzaciõ pel Multilingüisme bazkide taldeak " askoren arteko Euro baten " aldikada, urte-bat dala bultzatu eban, Euskara, Katalanera eta Galego`aren izkuntzak sartuta egon daitezcan, Espainari egokitu zaion Euro`en arpegi-aldian eta txakur-txikietan, bi-lla ibili zan. Gauza askoren artean ekin-bide orretan, aldikada orrek lortu ebana, Estadu guztiko 33 politika taldeen eraspina izan zan. Gaur egunean Al-dundi batzarrean diran ekonomi-batza, sal-eroste batza eta erri-altxor`en batzak, lege bat antolatzen dabiltz, arauratu egingo dabenak, Euskara, Katalanera eta Galego`aren izkuntzak sartuta egon daitezcan Euro`en eta txakur-txiki txanponetan. Urbilgo edo urrunagoko aurrerantzean, politikako taldearen borondatean egongo da Euroak eta txakur-txikiak ere Euskaraz egon daitezcan.

Organitzaciõ pel multilingüisme, Kontzellua`ren laguntzaz, A Mesa pola Normalizaciõn lingüistika`rena, Xunta pola Defensa da la lingua Asturiana`rena, Conceyu Xoben`arena, Crica eta Foment e Ensenhament der Aranès " Seillu Anitzak " (sellos plurales) 1999-2000`ko ekitaldiari bultza egiten dautso. Ekitaldi auek daukazan asmoak dira, 150 urte beteak bateratu egite diran lez, Espainak argitaratu eban leen orain-aldiko posta seilluak, 2000`ren Urtarrilla`ko l`ean ospatuko dana: Euskara, Katalanera eta Gailegoa (bai Asturiera, Aragoi`era eta Okzitera (Occitano)), agertu daitezcan Espainia`ko posta selluetan, eurak daukiezan astuntasuna izaera berezitasunakaz edestian zear jakin-mail, lurraldearen muga eta senide-gizan (demogrãfico). 1850`an Urtarrilla`ko l`etik 1998`ko Abendua`ren 31`ra, ia 4.000 seillu paperak FNMT`ak atara zituenetik, Esukaraz`ko itzak lau seilluk eroan dituzte bakarrik: 1979`an Urtarrilla`ko 27`an " Euskadiko Autonomi Estatutoa "; 1985`an Abendu`ko 11`n " Irurac bat " eta " Xavier ", arau-bako Euskaraz; 1990`an Otsailla`ko 2`an " Getxo " `ko tokizena; 1990`an Irailla`ko 6`an Euzkaraz eta erderako tokizena " Estella - Lizarra ". Euskara osoan, sekula ez da izkiratu seillu bat-ere Estaduan bizi diran beste izkuntzetan, gaztelera izan-ezik. Alderantziz eta adibide bat bakarrik aipatuz, Espainak euki eban Marruekos`eko zaindaritzan, 1928 eta 1955`eko bitartean, izkerabiko selluak oso-osoki arabier-gaztelera ziran.

Espainako selluaren gertakizuna gaztelera bakarrik idatzita, aldi-naste (anacronismo) osoa, arau gabetasunezko utsa da, errien-arteko antzez-tokian. Finlandia`n selluak Suezia`tar eta Finesenan argitaraten dauz; Suiza`n Aleman, Frantzezean, Italieraz eta latin-kumean (romanche) argitaraten dauz; Belgiarrak Olandar, Frantzez eta Alamandar`ean argitaratzen dabez; Kanada`n Frantzesez eta Ingelezez argitaraten dauz selluak; Irlanda`k, berak egiten dauz seilluak Gaeliko`eran eta ingelezez argitaratuaz; Zelanda Berriak Ingelezez eta Maori`an argitaraten dauz; Noruegak Noruego`en izkuntz ez-berdidenetasunezko bitan ar-

gitaratzen dauz. Eta olan, 70 gertakizun-arte. Berez, gertakizun auek amaitu ezinezkoak izango ziran, Arabiar`en erriak bakarrik gogoan eukita naikoa da, edo Asia`koak izkuntza bi erabili egiten dabezanak, bai abeze edo iztegi bi: China, Japon, Korea, Bietnan, Mongolia, Laos, Kanboya, India, (geiago jakiteko, Web de Organitzaciò pel Multilingüisme WWW.m-plural.org/segells`en galdetu leike).

Estadu ondoan, izkuntza bi edo geiago, edo iztegi bi edo geiago darabiltzenak euren seilluetan, beste Estadu bizi dira, bete egiten dautsoen lurraldeari, posta arloan, autonomi-osoan emoten dautsienak. Azores eta Madeira Portugalen agertzen dana da; Groelandiak, Inuit edo Groelandar`ean eta Danes`ean argitaratzen dauz seilluak, eta Dinamarkan Feroe ugarteak; Aland ugarteak, Finlandian Sueziatarra izkuntz bakarra dan lekuan; Man`eko ugartea, manx`ean eta Ingelesez argitaratzen dabena seillu batzuk Britania Andian; Kaledoni Barrian, Frantzez`en Polinesian, Saint Pierre et Mikelon, Reunion eta abar Frantzian. Gainera, Eskozia eta Gales`en erriak urte ontan zear (eta Iparraldeko Irlanda balekitez, bera-rako bidea amaitzen danean), euren Parlamento`en bir-eskuratu bateratasunaz Britania Aundiaren jabetasunetik, postaren askatasuna lortu dabe. Britania Aundiak 1958 ezkeroztik " Errialdeko " edo " Lurraldeko " seilluak argitaratzen ebazan, Eskozia, Gales`ko errian eta Iparraldeko Irlandan; erreginarene argazkiak izaten ziran eta ikurdien irudiak zoko baten. Eskozia eta Gales`en erriak urte onetatik aurrera, euren seilluak daukiez, erreginarene argazkiak txiki ta illun geratu direnak seillu zoko txiki baten. Eskoziako seillu barriak eta lenagoko batzuk, Eskozia`ko ikurrinari eskeinuta dagoz: ikurrinarekin argitaratu lez, idatzitakorik gabe eta erregiarene irudia zoko txiki baten. Gales`eko Erriak, Galesez eta Ingelesez argitaratzen dauz seilluak.

Espanian, FNMT`k urte bakoitzean 50-70 arteko seillu barriak argitaratzen dauz, baimena emango leukenak lege bat baieztu ezgero, FNMT`k argitaratzen dauan seillu ta postako arlo guztian arauratu edo neurri barruan lotu ezgero, berea-lako seilluetan erantsia. Organitzaciò pel Multilingüisme, seilluak daukiezan izkuntz-arauak ikertu ondoren, bost asmo-erakuste teknikoak antolatu dauz, balio egin bear leukienak, Euskara eta bai beste izkuntzak ere selluetan sartzeko. Bost izan-gaitasun auek, laburtzpeneko era baten olan murrizten dira:

- a) Selluak, lau izkuntzatan. (edo zazpi izkuntzatan).
- b) Selluak, izkuntza bitan.
- c) Izkuntz bateko seilluak.
- d) Postaren askatasuna, edo askatasun osoa, edestian zear diran bere-jabetasunezko erkidetasunai (edo autonomiko erkidetasun guztiai diranentzat).
- e) Aurreko lau ereduene arteko-jokoa, askatasunezko erkidetasun bako-txak, al izanaz selluak argitaratzeko askatasunezko aukera batzuetan.

Asmo tekniko aukerak, beste-aldeko etorride bat behar dabe, arauaren bidetik, izkuntza baten edo izkuntzatan argitaratzen diren selluak erabakitzeko euren ugaritasuna, alai ere, selluen zabaltasuna eta salketa, erabilten daberen izkuntza-jokoan ala ez.

1998ko urtean zear, Bidalgo eta Urrutizkinako 3garren Lurraldean, Euskadi, Nafarroa eta Rioja osatzen daberen artean, 305 milioi posta-ondorioak sortu ziran (guztitik % 6,7 diranak) eta 382 milioi banandu ziran (guztitik % 8,4ak). 1998an ere, Espainia osoan 162 milioi posta-ondorioak atzeritik artu ebazan eta 174 milioi atzerrira bialdu. Espainan, guztiz, 1998 urtean zear 4.573 milioi posta-ondorioak banandu ziran. Zertzelada aukerak, naikoa izan behar ziran burutasun bat gogoan eukiteko: ikaragarritzko yaurtaldia izango zala Euskerarentzat (bai beste izkuntzari ere), selluetan sartuta egon bazan eta FNMTk beste posta-ondoriotan bialtzen dabezenetik. Ikaragarritzko yaurtaldi bat, diruaren aldetik ezer ordaindu gabe.

Urtarrillaaren amaierako, 22 erakunde ziran Estatu guztitik " Seillu Anitzak " en zabal-unera erantsita. Bertan, 2000ko Urtarrillaaren 1ra orduko, jokuan dauan erabagia egin beharrezko arloan, autonomi esberdinetako lege-biltzarrak, baieztu dagian egin-gaiak, gaztelerazen izkuntz ezberdinak ere selluetan sartuta egon daitezkan eta egin-gai aukerak Aldundiko biltzarrerara eldu daitezkan.

Burutakizun au, 2000 urterako, Euskerazko seilluak egon daitezkan, katalanera eta Galegoraz (bai, Asturieran, Aragoieran eta Okzitanoan) da; teknikako arloan artzen dan erabagia kontuan euki barik. Selluak, izkuntz ezberdinetan agertzea edo ez agertzea, danon ardura da.

Oarra: Argibide-aldi ontara erantsiteko, edo argien egarria asetzeko, ikusi leike Web Organitzaciõ pel Multilingüisme www.omplural.org/sells, Euskaraz, Katalanera, Galegoraz, Asturieraz, Aragoiera eta Okziteraz, galdera egin leiken lekuan.

MOLES i CARRERAk

DEIAN 1999an AZAROko 10ean

ITZULTZAILLE: ATUTXAtar PAUL

Latxagak, Elgeta`ra bialdu ginduzan Peña`tar Lorentzo eta ni Atutxa`tar Paul, zeatz jakiteko, zer gertatu zan an 1937`ko Apirilean, nazionalak sartu ziranean.

Udaletxera joan nintzan eta M^a Anjeles, Udaleko idazkaria ondo artu ninduan, aurkezpena eginda, prest agertu zan batzartzeko eguna eta ordua epetuz.

Batzartu gintzazan gure aldetik Lorentzo eta Paul; eta euren aldetik, Gairai eta Arenaza`tar Bitor, Iturrikastillo eta aranzibia`tar Antonio eta M^a Anjeles Udaleko idazkaria; baiña ez zan etorri Telleria eta Lamarain`tar Antoni, laidotua izan zana.

Asi nintzan itaunak egiten Antonio eta Bittor`eri, eta or dagoz euren emaitzak. M^a Anjeles`eri itaundu neutson, ia zer gertatzen zan Antoni`rekin, eta erantzuna: " Batzarrera ez dala etorten, berentzat, oso gogorra dalako gaur egun ere, gauza aiek gogoratzea. Eskertzen dodaz beren alegiñak gugana etorteko, baiña ezin danean, artara jarri bear.

Eta or !, alegiñaren saria non agertzen dan Arana`tar Sabino iraspenean, nor-baitek ama-alaba`gandik batuta, ama il-orduko egun batzuk ariñoago, euren zori-gaiztoko gertaera.

Elgeta faziztak arrapau eben orduan, gudu-mutillari ordu-bi eta erdi`ko askatasuna emon eutsoen sari-lez. Eta moruak igoeran, baserriko atean nezkaxo bat ikusi eban lez, gabaz " señořita`ren billa joan ziran. Aitak, Telleria eta Askazibar`tar Pedro, alaba zaindu gurean aurka egin eban, eta moruak tiroka il eben, Antoni`ri (alaba) ere, aita zaindu gurean tiro batek eskumako eskutik erdiko atz-bi kendu eutzozan. Amak ere, Lamarain eta Aranzabal`tar Pantxike, alabaren babesean urten eban, eta buruan tiro-bat emonda, lurrean itxi eben oso txarto zaurituta. Gertakizun guzti orren gainera, moruak, Antoni`rekin, eurak gure-ebena egin eben.

Ez da arritzekoa, gura ez izatea gauza orreik gogoratzea.

Bittor argiña dan lez, berak egin eban argazki onetan dagoan oroi-arria, orduko egunean eta izkillatuak izan ziren izenakaz.



- 1) Peña eta Etxeberria`tar Lorentzo (Peña`tar Jesus`en anaia)
- 2) El-Koro eta Arrizabalaga`tar M^a Anjeles
Elgeta-Udaletxe`ko Idazkaria
- 3) Telleria eta Lamarain`tar Antoni (13 urtegarz Laidotua
izan zana)
- 4) Garai eta Aranzeta`tar Bitor (Garai eta Arenaza`tar -
Joxe Bizente`ren semia. Eta Oroi-Arria`ren Egillea)
- 5) Iturrikastillo eta Azkazibar`tar Antonio
(Iturrikastillo eta Aranzabal`tar jorje Abadea`ren Illoba)

Ikerlarien izen-abizenak.....: Peña`tar Lorentzo eta Atutxa`tar Paul
Erantzuleen izen-abizenak.....: Garai eta Aranzeta`tar Bitor
Fusilatuen izen-abizenak.....: Garai eta Arenaza`tar Joxe Bizente
Elbidea.....: Elorrio`ko Gazeta Auzunean, Urizar Baserria 21
Urrutizkina.....: 946 82 03 37 Elorrion

- * Nungo baserrian bizi-zan fusilatua ? : " Bastarrekua deritxon Ansuategi baserrian " .
 - * Zer izan-zan fusilatua ? (politika maillan): " Euskal famili baten Aita " .
 - * Nolako lan bidea euki eban fusilatuak ? : " Baserri-lanetan Arotza " .
 - * Nolako errua euki eban ? : " Etxea zaintzen egotia " .
 - * Nolako familia euki eban fusilatuak ? : " Emastea eta lau umetxo " .
 - * Salatua izan-zan ? : " Moruari Karta-libre emon eutsen eta danak iltzeko asmoan egon ziran " .
 - * Nolako epaiketa euki eban ? : " Moruak elduaz, bereala il " .
 - * Non fusilatu eben ? : " Etxe baztarrean " .
 - * Zelan ? : " Aita tiroka, eta beste bost gudari goratxoago, fusillen ipurdiakaz buruetan jota " .
 - * Zeintzuk izan-ziran beren azkeneko itzak ? : " Ontxe il-nok Domingo " .
Emakumeen aurrerapena edo garapena: Euren gogamenean, bardin edo Karismatikoen antzean dabiltz azaleko jokoan, bai arrotzaren arazoak eurenak diralakoan artuta, gugaz ezer ikusirik ez daukienak, dana naaztuaz, arrazoen oinarririk gabe, eta gainera gure oifarrizko arrazoen ardurak bastartuta edo txarto dauzelakoan.

Nundik nora sartu jakuz orrek indar txarrok !. Menperatzailleak Frantzezak eta Espaiñolak egiten daben indarrezko estukuntza-gaitik kikildu egiten diralako ?. Or ! larritasunezko arazoa gure familien artean, eta aiton gazte orrenean aundia. JAINKOA`ri begira dabiltz ?. Ez da egia ori !. Ez da izango len esan dodan antzera, menperatzaille jokoan sartuta dagozela ?. Gaur egun, dan guztia politika arloan sartuta dago, (arrazoen burruka ain aundia dalako), eta baliteke etsaiak, ondo bideratuta sartu dauskuezala gezi pozoitsu auek. Gainera bizi-bizian dagozenak.

Gauzaren elburuak, sekula ! ez direz konpontzen edo lortzen naaztetasun bidetik; eta lortzen ba-dira be, ulermeneko utz aundiekin. Ori gura dabe ba ! berezitasunaren menperatzailleak, guzurtiak eta arrapatariak, eurek, arrazoiaren egon zirela esateko. Baiña zorionez, giza bizitz-au beti barriztuten doalako, gazteen biotz garbiak, beti alenginduko dira gauzak bere lekuan kokatzeko.

Arazo aundia da bai !, baiña eten-bako alegina egin bear dogu, menperatzailleen jokuan ez jausteko. Auek ez dabelako gura, guk zintzo jokatzia JAINKOA`ren LEGE-bidetik, euren jainkotasuna desagertzen dalako. Orregaitik itxartubearra daukagu, ezeztasuneko bizi baten jauzi ez egiteko.

Ludi onetako bizitza ez da gurea, ordezkari batzuk baino ez garelako; nai ta naiez konturatu egin bear gara orregaz, beztela, bizi-labur edo luze-baten guriak eginda dagoz; eta orrek esan gura dau, Euskaldunak ez dabela jakin JAINKOA`ren agindua beteten.

Badauka bai ! zer esan Euskalerriak Mundu onetan, bere bizi luzean ainbeste ikasi dauelako JAINKOA`ri eta LEGE ZAARRA`ri begira, Ludi onetako giza, bide onen zuzentasunean ezartzeko.

Laugarrena: Zer gertatzen da Abertz^ele sendi baten.

a) Larritasun aundiak, abertzaleak oifarriren bidetik jokatu gure daualako bizitz-au eta Aberkide aundia dalako; baiña beste aldetik, gaurko giza garaiak daukan xautzailetasunezko egarriak, bai goian esan doguzan oinarriaren arloan erdi-purdika ibilteagaitik, esta-baidak gogorak sortzen dira. Abertzalearen sinizmena, beren ardurazko ekintza aituten daualako, orrek errakuntzak argitu eta garbitzen dauzala; beti gura dauelako eguneroko ardurak on-betetea etxearen zorionerako.

Orretaz, ez-ete dauka zer ikusirik eukingo esaera batsuk?: " eskatu daiozu AMA BIRJINA`ri asterketa on-bat egin daizun ", eguneroko ikaskizunak zentzunez bete bearrean?. Aiton gazte orrek, orren gora-beran esaten dauana: " Izkitegitik, nor beren gogoan izki baten utsean edo ez-jakintasunean egoten ba-gara, gure esan-bear guztietan izki-orren utsa beti agertuko da !".

b) Orduan zer lenago, gizon/emekumeen berezitasuna ala interesak?.

Berezitasunezko bidetik zalantzarik gabe. Zereginezko gauzatan, ondo bete edo ordezekoak izan ezkeru, onuraren baldintzak berez bete egiten diralako.

Beste gauza bat da, xautzailetasunezko bizi-baten oso-osoa egonda, berak daukan indarra, bultza egiten dauskulako menperatzaille, arrapatari edo berezitasunezko`en etsaia izateko. Orrek indarrok, ardurabako ordezekoak diralako, bai leenengo lege-oiñarriren utsa daukielako.

d) Nolako egoera eldu da sendietara?:

Egoera larria dudarik gabe, Eta Abertzaleentzat urduritasun aundiko bizia, ikusten daualako nolako kalte eta ostopo egiten dauan erdi-purdiko joko orrek. Bien egin-aldi izaerak aurkakoak diralako.

Aiton orrek beti esan dauana da, gaur egun gure Euskal-telebista eta isparangiak, alegin asko egiten dabezela gure erriari orretaz laguntzeko; baiña begitu zenbat diran aurka jokatzen dabena. Orregaitik E.A.J`ak badaukaz batzoki, elkarte eta erri-batzar tokiak, gure arteko iritsi ustelak edo indar txarrak alboratzeko. Arlo ortan, alegin apur-bat baiño geiago bear dogula uste dau aiton gazte orrek, elkarte orrek gure zentzunetik kanpo dabizelako.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.000`ko OTSAILAN 5`an

Latxaga Jaunak esan uстан, Nafarroan dan Arteta errira, Ullibarrena`tar Joxe ikustera joan-bear gendula idatz-lan bat egitera; berak " Diario de Nabarra "n argitaratzeko, eta nik ZER`en. Emen daukazu, gure ardurazko ekintza, gozatu dagizun.

Arteta, erri-txiki polit-bat da, Aundimendi-pean, Ollo ibarrean kokatuta dagoana. Iparraldetik: Treku`en mendi-kateak eta San Esteban baselizak mugatuta; Egoaldetik: Arteta mendatea eta Ollo ibaia; Mendebal edo Sartaldetik, Ollo, Lizarbe, Saldise eta Ultzurrun erritxoak; eta Sortalde edo Eguzki-alde-tik, Txargain mendiak eta Gofi erritxoak inguratzen dabe.

Eldu giñanean, ots-dei bat egin gendun, eta barrutik aupa-ots bategaz erantzun eban Joxe`k.

Kanpoan eta etxe-barruko tresneri guztien erakutsi ostean, Latxaga bere zerrrendatik itanduten asi jakon:

Izen-abizenak eta noz jaio zintzan ?:

Ullibarrena eta Arellano`tar Joxe, 1925`n urtean jaiotakua naiz !.

Non egin zinduzan ikasketak ?:

Anai-arteko guda aurrera joiala, 12 urtekoa, Iruñara joan nintzan, Udalak euki eban trebetasunezko-langintzaren ikastolara. Margolari eta zinzeltzaritzan asi nintzan, eta bost urte geroago gorputz-irudiak (esculturas) eta tresneri zaarrak erosten alegindu nintzan. 25 urtekoa Paris`era joan nintzan, arte-ederrak lau urtetan ikastera.

Zenbat tresneri-zaar eukiko dozuz gaur bertan ?:

15.600`en bat !.

Zertarako erosi zendun ainbeste ?:

Euskal astarnaren billa ibili nintzalako !.

Zein da daukazun tresnarik zaarrena ?:

Txakur antzeko arri bat, ain-bat milla-mende daukazena. Erze`n, Arnedillo eta Arnedo`ren erdian kokatuta dauan errian aurkitu neban; eta burdinezko-etan, lurra-lantzeko tresna zaar-bat, erromatarrak agertu aurrekoa, millaka urteak daukazana. 2.000 pezeta ordaindu neban beragaitik, 27 urte neukazala.

Euskera landu-zendun ?:

Bai !, 1956`an Estornes Lasa`tar Joxe`rekin ibili nintzan, eta orduan kon-turatu be, Euskal-Izkuntzan nolako nortasuna dauken Euskalerrian daukaguzan abereak.

Zein da zurentzat abestirik ederrena ?:

" Coplas de Monte Agudo ".

Baiña ori erderaz da !:

Gu gera ala ez gera ?. Gera !! eta kitto !!.

Norentzat izango da daukazun tresneri guztia ?:

" Nafarroako Don Pedro Mariskala iraspena`rako (fundaciòn) izango dira zati batzuk, eta besteekin, semeak jakingo dau zer egin.

Erakusketarik egin dozu ?:

Bai !, Donostin egin neban 1969`an, eta egin neban zabalkunde mota gaitik, iru egunerako espetxeratua izan nintzan. Gazteizen be egin nuen 1972`an, " Casa del Cordon " deritxonean eta debekatua izan zan.

Nor da zurentzat Naparrik ospatsuenetarikoa bat ?:

Niretzat, Euskal-Basarretxeoak..., bardin-bardinak gara (ez dau esan-gura nor). Euskarok, danok bardinak gara, lengo-lez !. Euskarok bai !! baskoz no !!.

Bere erantzun bizi-bizia izan-zan au.

Zein jazokizun izan da Euskalerrian zuretzat aipagarriena azkeneko denboratan ?:

Euskalerrian, asko izan dira aipagarriak, baiña niretzat Nafarroan "Gama-zada ".

Gaztedi artean zer ikusten dozu ?:

Gazteak jatorrak dira !, baiña diruak zapalduta.

Zergaitik erosi zendun etxe-au ?:

" Zortzi zuta-be daukazelako orma-nagusi barik ".

Erri ontan Euskara noz galdu da ?:

1951`ean il-zan azkeneko Euskalduna. Baiña..., Bizkaitarrak, Giputzak, Arabarrak, Nafarrak, Benafarrak, Laburdiko eta Zuberoarrak ez gara ?, ba gera !, Euskarok gera eta kitto !!.

Berriz ere, bere biotzaren erantzun zuzena.

Itaun eta solaseko mintzaldi ostean, ain-bat zabalkunde-orri emon euskun eta, batez be, berak argitaratutako liburu bat " Iruñako Erreñuaren Abend-izti Erakusketa " Julibarrena izenpetzen dauana.

Liburutxo zabaldua, erakutsi euskun, zer esaten dauan Sanchez Albornoz`ek Euskara dala-ta: Gaztelar lurraldean, Bureba`ko Bibar`en ain zuzen, Euskaldunak izan zirela, eta Cid Campeador be Euskalduna izan zala.

Badaukagu bai, Euskalerrian zer ikusi eta gazteari zer irakutsi gure lurralde ontan, solaseko osteraldi alai bitarteekin, Euskal zaletasuna bizkortzeko eta giza-barrena osatzeko.

Arteta`ko Jullibarrenak, besoak zabalik eta pozik artuko ditu joaten diran guztiak.

2.000`an Otsailla`ren 14`an

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.000`an OTSAILLA`ren 18`an

Alango izen polit bategaz ezagutu genuen Karakar edo Kar-Kar`eko andra jator au, " UNAI`REN AMA ". Izen orregaz ezagutzen dalako erri ortan emakume bi-oztsu au.

Urbiola`tar Mari Karmen, 33 urteko andra gazte-bat da, eta bere senarra Roldan`tar Prantzizko 36 urtekoa, Karakarre edo Kar-Kar, mendi txiki baten ganean, batu-batua dan erritxoan bizi diranak. Milla ta bosteun biztanle edo erri-lagun dira, nekazaritzako lanetik bizi diranak.


Iparraldetik eta 18 Kilometrura lerin`go erriak mugatzen dau; Ego aldetik, Ebro ibaiak eta Ego-sartaldetik 17 Kilometru`ra San Adrian`ek; Mendebal edo Sartaldetik Andosilla; eta Sortalde edo Eguzki-aldeetik Sartaguda, sei Kilometru gorago Lodosa, emendik Karakarre`ra 13 Kilometru dagozala inguratzen dabe.

Erriko andra bateri galdetu genion, ia no bizi izan Unairen Ama, eta bere etxeraino lagundu euskun.

Urteneban Mari Karmen`ek eta onartuak izan ginan aurkezpen ostetik.

Mari Karmen`en aita agertu jakun, eta zukaldeko gelan, Unai jolasten dabil-
lela, solaz-mintzaldi bide batez Latxaga galdezka asi jakon Mari Karmen`eri:

- Zenbat aur asi dira Euskeraz ikasten ?.-
- Leenengoetan 30 aurren izena eman zuten, gaur 39 dira. Iru urtetik zortzi urteraino, 3 garren ikastaroa amaitu arte; honi amaitzen dalako lege-bidea Lat-erriko eskolatan.
- Nolako eredia eta zenbat izkuntza ikasten dabez aurrak ?.-
- A eredia daukaguna da, ordu bat Ingleses eta iru Euskeraz ikasten dabe abes-tuz.
- Pozik zaudete gurasoak aurraren ikasketakaz, eta nolako fruituak ikusten dituzue ?.-
- Oso pozik gagoz ematen dauskun fruituaz, aurrak argiago, alai eta arduratsu agertzen diralako.
- Noztik daukazu Euskera`ren zaletasun ori, eta zergaitik ?.-
- Umeetatik maite dut Euskera. Iruñan, bai Donosti daukada-zan senideak Euskeraz dakitenak diralako, ez gara Euskaldunak ba ?.-
- Eta zure Euskera ?.-
- Zori txarrez, ez dot euki aukera gutxi baino; baina gaztetan iru urtean ibili nintzan ikasten, eta 17 urtegaz, Iruñean eder-sentzurako (esteticien) ikasten ibili nintzanean Euskeragaz be zeozer arduratu nintzan.
- Erri ontan Euskerazko ikastarorik bai ?.-
- Ama-zortzi urte dirala ama-bost gazte inguru, nire senarra artean dala asi ziran Otxoa irakasleagaz Euskera ikasten, baina zori txarrez ez eben iraun.
- Euskaldun baten-bat bai Karakarren ?.-
- Preziado`tar Joxe Luis da Euskaldun dan bakarra, berak Bartzelonan ikasita,



eta Lodosa`n bai Kar-Kar`en irakasten ibili zana.

- Dantza talderik bai ?.-

- Lodosa`ko dantza taldera joaten dira gazteak, ango ikastolako " MUZKAIA " izendatzen danakin arreman estuak eukinda.

- Arazo aundirik euki zenduen Euskera eskolara sartzeko ?.-

- Amen, Mari Karmen`en aitak berba eben esateko:

Ai-ama !, andra gazte batzuk batzartu ziran, eta ikaragarritzko txingarkada urte eban andizik.

Mari Karmenek beraz esan eban:

Euskara, ez dogu gura politika arloan sartu daiten, eurak diralako naikoa politikan sartzeko.

Batzuk, ez eben gura iñondik iñora be Euskera eskolan ikasi daiten, eta ma-traka aundia sortu zan.

Berez edo beartuta, nire eritsiak ez ziran onartuak izan eta balekite uler-tuak be, baiña etxerik-etxe joan nintzan Euskal-ikastarorako aurraren ize-nak artzen, eta 30 lortu nebazan.

Eskolako zuzendariak lagundu eustan, guraso guztieri batzar batera deituaz.

- Eta ori noiz izan zan ?.-

- 1999`ko Apiril-Lorail artean. Gaiñera, guraso batzuk Iruñara joan giñan, Euskeraren arloko legeak zeintsuk ziran ezagutzeko, eta andik urrutiko idatz-gailu bitartez (Fax) mezuak bigaltzen genduzan, batzarrak legearen ezaguntza euki dagian, arazoak bastartzeko eta arrazoia argitzeko. Izenak emoteko askeneko eguna zan edo epemuga legearen esanetan, lortu gendun guzti au. Karakarreko amak zoriontzu gaude, aurrak pozik joaten diralako Euskaraz ikasten.

Benetan bear dogula lekuren batetik ardurazko laguntza apur-bat.

- Latxagak, itaundu eutson Mari Karmen`eri, ia nun kokatzen zan eskola, eta beren aita bigaldu eban guri laguntzera. Argazki batzuk atara genduzan agurtuaz batera.

Eskoletara eldu giñanean, Mari Karmen`en aita agurtu gendun eta itaun genu-en euskerazko andereño-maizu gaitik. Bereala agertu jakun Kalbillo eta Artea-ga`tar Joxe Antonio. Onek, eskertuaz ara joateagaitik, zuzendariaren-gana eroan genduzan baimena eskatzera. Munarriz`tar Pili, Atarrabian bizi dana nai jaiot-zez Iruñakoa izan-da bera. Andariño-zuzendari onek, ate guztiak zabaldu eus-zan bear gendun guztirako, eta gure serbitzura geratu zan. Gu, kazetari-lez egin gendun aurkezpena, Diario de Nabarra`rako Latxaga eta ni ZER`en argitara-tzeko.

Aurraren argazkia atara orduko denbora euki gendula ta, Kalbillo eta Artea-ga`tar Joxe Antonio`ri Latxagak izketaldi labur-bat egin eutson:

- Nun jaio zinan ?.-

- Ordizian jaio nintzan 1973`an Abustu`ko 29`an, gaur Beasain`en bizi gara.

- Nun ikasi zendun ?.-

- Donostian, majisteritzako eskolan.



- Etxean Euskaraz egiten dozue, eta zaletasunik bai ?.-
- Bai !, ama izan ezik, eta zaletasuna txiki-txikitetik jatorku. Etxeko giza-barrena Euskalduna da !.
- Nola zaude Nafarroan ?.-
- Oso atsegintzu aurkitzen naz. Gaiñera, aurrak oso pozik artu naute, eta orrek bakarrik asko esan-gura dau !.
- Noztik daukazu Euskeragaitik maitasun ori ?.-
- Senideak dira zaletasun aundikoak, eta nik Euskera txiki-txikitatik maite dot.
- Nafarroan, Euskera nola ikusten dozu ?.-
- Apurka-apurka aurrera doiala, eta leku guztietan asi dala sartzen, izenetan, iragarkietan eta abar. Lerin`en, Euskerazko jolas-jai bat antolatzen asi dira, Euskeraz ikasten dabilzan umeentzat, goizeko 8`retatik egun-erdiko ordubatetaraino. Aurrak, oso pozik dagoz jolas-jai orren itxaropenean.

Argazkiak atara ostean, danak agurtu genduzan Los Arkos`eko bidea artuta, Rafa eta beren emasteari, Latxagak argitaratu eban "NAFARROA EUSKAL ARROBIA"ren ariñago agindutako liburua emoteko, eta beraz, Kar-Kar`eko barriak esanaz. Rafa`ri, tximista baten antzera biotz-biotzetik irten eutson emazteari esanaz: " BAINA GU ZETAN GABILTZ !! ".

Badakit-bai !, Los Arkos`en ere, laster izango dala alangoko barri on bat. Baina ikusten dogun-lez, laguntza apur-bat geiago bear dabe ainbatetik, Nafarroako erribera guztian Euskerazko bidea ezarri daiten, gure Euskal-etxearen giza-barrena osatuaz, Euskal-seneko berezitasunean agertu gaitezan.

OR ! NAFARROA BERE NORTASUNAREN BILLA.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.000`ko EPA-ILLA`ren 10`an

Ainbateko iturritik, Latxaga`k jakin eban Arkoz`en ere bazela senitarte abertzale bat, eta niri esan eustan bertara joan bear gendula, eurekin alkar-izketa bat egiteko. Urrengo astean bertan egon giñan Abaskal`tar Rafa eta zanz de Galdeano`tar Juli`rekin. Eskon barriak ziran orduan, gaur, aste onetan ain zuzen, umetxo bat itxaroten dabenak.

Los Arkoz, erri txikerra eta polita baiña beargiña da, Nafarroako Ego-Sartaldean kokatuta. Bere Ipar-Ekialdean edo Ipar-Sortaldetik Lizarra; Ego-Sartalde edo Ego-Mendebaletik Biana; Ipar-Sortaldetik Kantauriko Mendekatea; Ego aldean Mendabia; Ego-Ekialdetik Sesma eta Sortalde edo Eguzki-aldetik Allo dira inguratzen dabenak.

Los Arkos`era eldu giñanean, edaritegi batera joan giñan galdezka, eta ango jabea Rafel`en anaia izan zan, Abaskal`tar Tomas. Onartuak izan giñan eta beste edaritegi batera, aurrez-aurre, bidea eta enparantzaren beste alderdian kokatuta dagoana bigaldu ginduzan; bertan aurkitu gendun eta irripartsu artu genduzan gu eldu orduko, anaiak urrutizkiñetik esan eutsolako bidean garala.

Aurkezpena eginda, ezkertu genduzan, ez beragana joategaitik bakarrik, bai berak esaten dauan-lez Arkuetara joategaitik, ango nortasunezko ardurak oso negargarriak zirelako bere eritsian: " eskerrak, erri ontako gauzak berez sortzen dirala, bestela...".

Latxagak esan eutson, gure asmoa, berarekin izketaldi sakon bat egitea izan zala Arkueta`ko Euskera`ri buruz. Bere erantzuna: edaritegi arrabots edo zaratarekin eta berak bertako morroiketa egin bear eban ezkerro, zentzunezko elkar-izketarik ez gendula eukiko, eta gura ba-gendun beste egun batean egingo gendula bere etxean emaztearen laguntzaz, eta orretan geratu giñan.

Berak esaneko egunean joan giñan euren etxera, onartuak izan-da. Aurkezpeneko sarrera eginda, Latxaga itanduten asi zan:

- Erri onetan Euskeraren zaletasunik bai ?.
- * Lengo egunean esan neutson, Arkuetako errian, gauzak berez sortzen dira-ba !. Baiña badaude bai, barrenetik zirikitu ez-kero.
- Euskerazko ikastarorik bai ?.
- * 1975`an Villa Mayor de Monjardin`eko gizon batek emote-bazan orrek ikaskizunak; orduan gu oso gazte izan giñan eta ez naz gogoratzen bere izenarekin.
- Nun eta zer ikasi zendun zuk ?.
- * Gizarteko mailladun Iruñean.
- Zure gurasoak Arkuetakoak dira ?.
- * Ama bai, Aita kantauriarra, baiña kidetasun aundia daukona Euskerarekin.
- Eta zuk nolako zaletasuna daukazu Euskera gaitik ?.

- * Txiki-txikitatik Euskalduntasunezko izaerak beti arrotu nau !.
- Eta zuk Juli, nun eta zer ikasi zendun ?.
- * Batxillerra ikasi neban Principe de Bianako ikastetxean, eta Gizarteko Mailadun, Iruñako Erri Ikastetxe Nagusian.
- Euskeraren zaletasunik bai ?.
- * Zori txarrez ez dot ikasi, baiña laster izango da Rafa`ren laguntzaz.
- Nondik nora izendatzen dautsazu Los Arkos`eri Arkueta ?.
- * Lizarra`n, Eusko-lege-zaarraren liburuetan agertzen dalako, eta Jimeno Jurio` en toki izeneko liburuan ere.
- Ikastolaren ametsik bai ?.
- * Bai !, baiño sortzen dana, erriko ikastarorako ez dagola aurrik. Len ingurutako erritatik batzen ba-ziran irureun ta larogei aur..., gaur eun ta emeretzi baiño ez dira. Urte baktzean amairu bakarrik izena emoten dabe. Erriko eskoletan, 2.000`n urterako adierazpena egin zan Euskera ikas-gai izateko eta irakasle bat ere ekarteko izan giñan. Amairu ama-aurren artean, amaikak baietza emon eben, bat itaun egin bear ebala eta bestea ezetz. Dana pikutara joan zan bertako erak aldatu ziranean. Guk, eta gure errian beste batzuk, gero ta geiago maite dogu Euskara, eta nai-ta naiez lortu bear dogu ikastea.

Begitu nolako aldakuntza Nafarroako ur-baztar guztian; gura bai, baiña gaurko arazo barriekaz ezin !.

Nik, uste-dot laguntza apur-bat bear dabela Arkuetako sendi-gazte auek, giza-barrenaren osasuna Nortasun aldetik bizkortu daiten.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.000`ko APIRILLAN 22`an

Nik ezetz esaten dot. Baina baleiteke egia izatea, gure Euskal gorputzari ikerketa sakon bat egin ez-gero.

Dan guztia uste-dot batzen dauela, izatearen azalkuntzak edo adierazpenak. Or ! agertzen dalako, nola ! daukagun giza-barrena: " beterik Euskal arduraren elburuarekin, edo azal-apainketako itxura baten ".

Orregaitik uste-dot, esaten daben antzera: " neurtuta gagozala ".

Leenengo izaera indartsua da eta inundik ifiora makurtzerik nai-ez dauana, indar aundiak izan-arren aurka, berezitasun osokoa dalako. Bigarrena barriz, aiziaren indarra naikoa aldebatetik bestera ibiltzeko, bota ez ba-dau egiten, ondo erpaturik dauelako.

Egin daigun ikerketa au-ba, gure lotsagizunezko ardurak eskatzen dauskun-lez.

Lau zatitan banatuko dot azterketa-au, askenean ondorio baten bidez buru-ausste oneri argitasuna emoteko.

Oinarrizkoak izanda.....= a) NORTASUNA
b) ASKATASUNA

Itxurazkoak izan ez-gero.....= a) ARROKERIZKO NORTASUNA
b) GAIDUNAREN ASKATASUNA

a) Nortasuna edo izatea da, ordezkartzako bizi-on baten bidez elburutzen dana gizon/emakume`en artean, eta goragoko ekintzan elburu nagusi-lez, erriaren nortasuna.

Orrek esan nai dau, gizon/emakume eta erria`ren nortasuna bete egiten daben zertzelada guztiak, bikain ordainduta izan bear dirala bizitz onetan, izateko.

Sabinok, Arantzadi`ri 1901`an idazten dautson ezkutitzan, argi esaten dautso zein zan nekerik aundiena: " onetaz edo endaren gora-beran azterketa egiten asten nazenean, au bajoakula aitzen dot, eta bajoaku asi dogun gizaldia amaitu orduko ". "" Baserritarrak geiegi daki Euskereak ez dautselan ezertarako be balio seme/alabai ". Zuzen-bide bakarra ba, lantokiak sortuaz da, baserriak erosi, lagun-arteko ontzigintzari eutsi, langintzako eta trebetasunezko elkarteak antolatu, anai-arteko ongilleak eta arrantzeleentzako elkartasunak, nekazaritzako, abel-azikerarako, ibilbideak zabaldu eta jabetuz....., bizitzan, eskutarteko guztiak, Euskerea zeozertarako balio dagian; nai-ta naiezkoa izan daitela artukizuna eukitea ".

Or ba, zergaitik diran zertzelada guztiak izatezko nortasuna beteten dabena. Danak !, gorputzarenak ere-bai, atal txikerrena ere sartzen dalako izatezko kopuruan.

Emen baten-batek (etsaiak batez-be) esango dau: " ori endakeria da ", edo " urrundik-be ez da egia ori ". Ludi onen gizatasuna, oraindiño zentzunezko

erabagi aundiak artu bear ditualako, eta orreik, or diran artean bete bearrezkoak diralako. Orregaitik gaur, NORTASUNEZKO GARAIK DIRA, JAINKOA`ren LEGEAK agintzen dauzkun-lez; Ludi onen ardurak, Nortasun bakoitzak berezitasunezko burutakizun (conceptos) guztien artean beteten dabezelako; gai ontako sasi-jainkotasuna alboratuz, Ludi onen gizon/emakumei aukera bardifia emoteko BEREN LEGEAK eskatzen dauzkuen-lez. Ez da bide ona, gaur sortzen dana, sasi-jainkotasunarena dalako, gauza guztiak esku gutxitan egoteaz; Ludi onen gisan, larritasun aundia dago ainbeste diru-goseko jokuan jolasteko. (Espainako jaurkintza, aldan guztian dabiltz zirikatzen, Euskaldunak bear daben arrazoizko gauzak geldierazteko, gu, ia aspertzen garan, eurok irabazle agertzeko. Amets-ori ez dabe lortuko).

Orregaitik zaindu bear dogu ainbeste etsaien aurka gure izaera berezia, eta esaten bada-be gu endakerietan gabiltzala RH`rekin, salatu ! faziztak diralako orrek gauzak esaten dabezanak; guk beti esan doguna dala: " Bereizitasun ori Euskalerrian aundia izateagaitik, eta artera etorri diran arrotzak, euren bereizitasunak itxi-arren, oraindino geien daukana Euskalerria dala ".

Eta guzti-ori, Erri-bat, bai zaarrena be European garala etsaiari esateko. Giza-iztia (Antrpologia) ikaskundearen fruitua dala, eta giza-izti fisikatik geien, giza`ren zertzelada guztien asterketa egiteko, bereizitasunak lortzeko eta jakiteko nortasunen ez-berdintasunak zergaitik diran.

" MAKETOA`ren " itza ere, ez dala guria, guk ez dogulako asmatu sekula ! alangoko itzik. Santander`en asmatu zala itz-ori, gaztelarren kaia izan zalako, atzerrira itsasotik urteteko, eta an geratzen ziran zaarrako gaztelarrak, ez ziren konpontzen bertakoakin, ortik ! izen gaizto-ori. Orain be deitzen dautsie gaztelarrai izen gaizto orregaz Torrelabegan. (Aita Mauro`en ikerketatik neuri esanda).

b) ASKATASUNA lortzeko jaiotzen gara Ludi onetan. Baina zer da askatasuna lotuta ba-gaude nai-ta nai-ez lur onetan zutunik erakar-indar edo astun-indarra rekin ?. (fuerza de gravedad)

Ori da itauna, beartuta gaudelako. Erantzuna erreza da, giza guztia bardin jaiotzen garalako Ludi onen fisikotasunera eta gelditu ezinezkoen bizitzara. Ortik ! jaiotzen jakuz egin bearrak, eta ez edozelan eginda, gauza bakotzak era berezia daukielako euren eginkizunetan. Gai-au danontzat bardifia izanda egin bear berezietan, or ! non jaiotzen jakun ardurea. Errezago orduan ulertzea: " danok ardura bardinekin jaiotzen garala ", izaera bereizitasunekin zaintzeko.

Askatasuna orduan. zenbaketa-bateko erabide baten argitu ez-gero izango litzake: " Askatasuna`ren ardura jaiokeran emoten dauskun eskubidea, gauzak lotsagizun guztiaz egiteko, danok daukagun azpiko bardintasunagaz ".

Gizon/emakume eta gauzak, gogamenak (conceptos) baino ez diran lez..., bakotzari berea emotea baino ez !, bere bete-bearrezko ardurak lotsagizun guztiaz bete egin-bear dabezelako.

LEGE orrekin jaiotzen gara Ludi ontara, eta lege-ori JAINKOA`rena izanda

" ez dago nork " or ifloren mezede edo giza maimenik izateko, nai koroi edo izkillu asko euki-arren. Ortik aurrera, dan guztia indarkeria dalako.

ITXURAZKOAK IZAN EZ-GERO:

a) Arrokerizko nortasunean, edo giza-arteko norkerietan ibili ez-gero, arrotasunezko andikeri jokuan sartuta gabiltzala esan nai-dau orrek, umeen jokuen antzera. Eta egia da goitik begitzen ba-dautsagu, gu etxura-gabetu egiten gaituan jantzi politikaz, umien edo ulermen-bako joko oneri, itxura aundiak emeteko.

Orregaitik gabiltz xautzailetasunezko jokuan sartuta edo ez-jakintzako bizi bat on-artuta; ardura bereziakaz JAINKOA izurratu naian, gai-Ludi ontan sasi-jainkoak izateko. Bildur aundi emoten daukulako, bear diran ikerketak JAINKOA`ren LEGE bidetik eroateak alde-batetik, eta beste aldetik mozkortzen garalako, gaiari ataraten dautsagun on-mozkin guztiakaz zentzunez bizi al izateko. Aldenduten doguz gure gogoak ondo beteta egon daitezcan, orko bidetik ifloiz betetan ez diranak, urren-eguneko goizean gozez beterik itzartzen garalako, eta eriotzea agertzen dalako bakotzaren bizi-bide onen amaieran gazte edo zaartuta. Or ! nun joaten garan JAINKOA`ren gana BEREN agindua bete barik, eta ziur gisa, etxea, erria larritasun aundi baten itxita, " NORTASUNIK GABE ".

Gazteak, ez dabe madarikatuko gure ardurabako egikuntza, eta etsaiak orren joko-era gaitik jakinean sartzen dautsiezcan ziri-pozoitsuak erria iraun ez-dagian ba !!. Bereala urten bear dogu zulo ortatik.

Arrokerizko Nortasuna, ez da ardurak zentzuz betetan dauzana; orregaitik utsean geratzen dira, ez diralako kontuan eukiten, balio-bako gauzak diralako. Alderantsiz bai ! okerkeri galantak.

b) Gaidunaren askatasuna, amets ustela da, gaia ez dalako nor. Ez dauka bizirik, JAINKOA`ren agindua bete baiño ez dabelako egiten beartuta egoteagaitik, gure gorputza eta janaria izateko; borondaterik ez daukalako; arimarik ez daukalako; beartutako ARIMA`k, gu ! gizon/emakumeak garalako.

Baiña badauka indarra bai !, norkerian edo buru-zalekerian sartzen gaitualako. Bere indarraren ditzira, gure Arimaren antolamenduko ardurak, nastu edo naspiltzeko izugarrizko deia egiten dauskulako, larritasun aundietan sartzen gaitu: leenengo, emoten dautsagun balioa antolamendu berezi-bat lortzeko, norgeiago batu edo euki, arrokeriz eta gai pozez bizitzeko, eziñ ikusiak sortuz. Bigarren: antolamendu berezi-bat bear dogulako, danon ardurak eta gose bereziak azetzeko neurri egoki baten, lapurketara bultzatzen gaitu; eta lapurketa orreek, begitu noraiño eltzen diran, lurraldeak eta emakume/gizonak, euren borondatearen aurka menperatuta eukiteko.

Len, burutakizunaren (conceptos) berezitasuna aipatu dogu: ez dago bat ! lapurketaren gaizkapenetik askatzen dana.

Ori da, gaiak emoten dauskun askatasuna ? : " Ori, gaiar`ren giltzapean ego-

tea da !, gaia`ren morroi ! ".

Orregaitik konturatu bear gara, gaia itsua dala, gure Arimaren zeregiña beren antolamendua dala, JAINKOA`ren agindua beteteko. Or ! askatasunaren joko, Ludi onetan poza ta pakean kokatzen gaituna; eta eriotzea eltzen danean istripuz edo indarra amaitu jakolako gure gorputz-burdi oneri, irabazi dogulako gai ontan, askatasun guztiaz BERE aurrean agertu gaitez.

Gizaren askatasuna ba ! ordezkartzako bizi berezi on-bat da, gaiak eragin bardiña daukalako gizaldietan zear.

ONDORIOA

Lan ontan esan-gura izan dotena leenengo eta beif, nolako arazoak diran sortzen jakozanak gure giza-bizitzari lur onetan. Kontuan eukiteko, danon arrizkuak edo gal-bideak bardinak dirala.

Gaur-arte eta gaur egun egin diran eta egiten diran izugarritzko lapurketak erritar eta erriari, beti ! espataren indarraz izan dira eta dira, bestela, begitu baiño ez da bear gure erriaren edestiari eta gaur egunean Espaiñako guda-lostearen keifadurai. Gaur, arrazoizko jakitasunaren buruz, beste goi-mailla baten gaudelako, espataren indarrak jokoz-kanpo geratu dira. Orregaitik guztiau ikusita, begitu daigun nolako joko bear dauan gure erriaren askatasunak, eta nola neurtzen gaitun Euskaldunak.

Euskalerrria, bere bizi luzean erri-lez jaio zanetik gaur arte, beti ! askatasuna edo erri-agintea (democracia) gogoan euki dau elburu-lez, bere berezitasunak alan beartu ebalako leenengo elkarte sortu zanetik. Orregaitik daki ainbeste askatasunaren gora-beran, eta orregaitik bere indar guztiaz eutsi gura dautso beren sinismenari. Au da ziurtatzen dauana, gure jakintsu artean sortu diran zalantzak agertzeko: Euskalerrrian, zazpi lurraldeen izkuntza Euskara ba-da, lurralde bakotzaren Euskara izkuntza berezi-bat dala, ez dirala euskalkiak, eta baliteke arrazoa izatea, Euskalerrria berezitasunezko elkargo edo antolamendutik (pacto) sortu zala. Orregaitik gaur egunean eutsi egiten dautso leeneng sinismenari, JAINKOA`ren LEGEAK bultzatu egiten gaitualako. Elburu lez ?. Dana dala, orren bidea daroagu arrazoiaren bidez, ez ! indarkerien bidez.

Beste gauza-bat dira, zortzireun urteko erri gazte auek (nai asmakizuna Godo gandik etorri arren), Espainaren antzera, ezer`etik erri aundiak izan gura dabenak, sasi-jainko edo kaizar-zale izanda aginduan, beste erri bereziak diran en eriotzagaz. Eta orretarako ez dago beste biderik euren elburuak lortzeko, aurrera egitea, jaio ziran egitamu-saio`rekin: lapurketa, eriotzea, guzurra, eta abar. Au-da, JAINKOA`k ipini gaitun LEGE BEREZIEN aurkako eritziakin.

Olan jaio ziren, eta olan iraun egiten dabe gaur egunean.

Euskalerriko seme/alabak, iñundik iñora ez dira jauzi bear euren jokoan, guzurra eta amarrukerian, orko bidetik eurok maisuak diralako, eta joku ori bear dabelako, berezitasunezko arrazoa zalantzan ezartzeko, bitartean, indarra- rekin al ba dira irabasteko.

Gainera jakinda, Ludi onen mailla aundiko ulermenean, baietza emon dautzoela ERRI-AGINTEARI.

Biotzeko min aundia emoten dau, daukaguzan gazte espetxeratuak, eta alegin- du bear gara, dagozan lekuetatik etxera ekarteko len bait-len. Baiña ziur, gu- re gaur eguneko alegiñak, ez dirala eriotzak, guzurrak eta abar, euren jokia dalako. Eta ortik, neurtuak izaten garalako; bai ! euren indarra aundiagoa dalako.

Gure borroka, giza-barrena osatuaz da SABINOK esaten euskun-lez, arrazoi- az jokatu bear dalako gaur, EUSKAL NORTASUNA ikusi dagian beste erri guztiak.

Eta ziur esango dabela OR !! EUSKALERRIA

Arrazoa gudan dago, eta zintzo jokatzen ba-dogu, benetan irabazita daukagu.

GORA EUSKALERRIA !!!

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.000`ko APIRILLAN 22`an

Latxaga, gizon jakintsua eta Euskalerrri`ko seme zintzoa dana daukagu, Euskalerrriagaitik beti pentsalari eta beren gogamenean, Euskal-izaeraren edestitik zear, bai gaur eguneko gertaera gaitik ere, egiañalak egiten dauana.

1976`an " JAKA`ra OÑEZ NAPARROA`n ZEAR " liburua idatzi eben, erritxo guztiak oñez eta urratsean arakatuz; gaur, bitxi-bat dana eta aurrerakoan garrantzi aundiagokoa izango dana.

Orregaitik, neuri esan ustan: Aragoi`en dauan Santa Orosi`ren Baselisara joan bear gendula beren jai egunean 2.000`an Ekaina`ko 26`an, ikusteko nola ospatzen daben gaur egunean jai berezi ori.

Nik, baietza emon neutson, eta bai arduratu zan ere bere lagun bategaz, Urkola eta Elizegi`tar Mikel ta beren emaste Bustillo ta Gonzalez`tar Elisa, UPV`an goi-maillako maisua bera eta Elisa Erriko eskolan zuzendaria dana.

Lizarran jagi giñan goizeko 6`retan, eta gosarien ostean Iruña`ko bidetik Jaka`ra eldu giñan, Sabiñanigo, eta Osan`en desbideratu Yebra de Basa`ra eltze-ko.

Erri onen Eleizan daukiez Santa Orosia`ren irudi eta bai beren buru-ezurrak, irudia`ren buru-barruan sartzen dabezanak, erromerian, Santa Orosia`ren Baselizara joateko urtean baten, jaia ospatzeko Orosi Martiria`ren omenez.

Yebra de Basa, azkeneko erritxo-bat da Oturia mendi azpian kokatuta dagoana.

1920 metru daukaz Oturia mendiak goitasunean, eta Santa Orosi`ren Baseliza bere zelaikada aundiaz 1.500 metro`ra dago kokatuta goitasunean. Bertatik, argi-argi ikusten da Oturia`ren gallurra.

Yebra de Basa`n alkartzen dira goizeko seiretan inguruko erritxo`koak, bai bertakoak ere, eta zazpiretan urtetan dabe Santa Orosi`ren baseliza`rantza eliz-biran; Yebra de Basa`ren Eleizako Gurutzea aurretik doala meza-mutil bategen eroanda; urrengoak dantzariak makil-dantzan doazela txistilarien doñuarekin; urren, ingurutako Gurutzeak, erromezak eroaten dabezanak (aurten, 12 izan dira, antziñan 100 baiño geiago izaten ziranak) euren erromez jantzirekin, eta eleiz-ikurriñak; ondorengo, Santa Orosia`ren irudia, lau andariren artean eroaten dabela; eta asken abadeak.

Geienak oñez igoten dabe eliz-biran, eta Santa Orosia`ren Baseliza inguruan 5-6.000 giza-seme batuko ziran.

Goi-aldera 9 1/2 - 10`etarako elduko ziran, eta otoitzan bai jantzan ere ekiten dabe, 12`etan Baselizako kanpaiak deitu-arte.

Leku askotatik joaten dira ospakizun ortara, ez bakarrik Yebra de Basa eta ingurukoak, bai Bartzelona, Zalduba (Zaragoza) eta Madrilgoak ere, eta zer esanik ez, Oska`koak (Huesca) ere.

Meza Santua kalean ospatu zan, ain-bat kobla edo bertsu Santa Orosia`ri abestuz; dantzariak, baselizaren barruan azken dantzak Martiria`ri ezkeñiz.

Meza Santua ospatuz, abadeak dei egin euskun an egon giñen guztiari, baskaldu ostean, arrastiko bostetan ain zuzen, pastoralak egingo zirala Orosi Martiren omenez, ospakizun guztietan egiten dan lez. Eta orretarako, lekua mugatuta egon zan aurretik, iñorengo arazorik ez daitezcan agertu.

Ezan egon lez janaririk, edo ogi-tartekorik saltzen, edariak baizik, gure zakelak arrastiko ordu-bi ta erdietan, berantza joan bear gendula esaten euskun.

Artean, ez gintzazan geldirik egon, eta arduratu giñen txistulariekin, bere jo-galluak nolakoak ziran jakiteko, eta an ikasi gendun: txistua egurrezkoa zala, sugearen larruekin azalaztuta; txun-txuna ere, antziñekoa izanda ondo zainduta egon zana zan. Galdetu genion, ia zenbat abesti eukazan beren jakin-sortan, eta amasei daukazela esan euzkun, geienak Zubero`koak edo bardiñ-antze-koak izanda beintzat. Gazteak ere, makil-dantzaz jantzan egiten ebenak, gureak dirala esango genuke. Mikel`ek esan eban makil-dantza orren buruz: " AUÑAMEN-DIKO OITURA ZALA " eta orregaitik " EUSKAL OITURA " ain zuzen.

Ezin dabe esan ez ! Euskaldunak ez zirenik, eta euren itxura eta izaerari begitu ezkerro, ni " EUSKALDUNEN ARTEAN IKUSTEN NINTZEN ".

Latxaga, txistulariaz berbetan egon zan, eta 1976`an beren aitagaz gaurko egunean Ekaina`ko 26`an egon zala, argazkiak atara eutsozela mutil gazte-bat ondoan eukinda " JAKA`ra OÑEZ NAFARRO`an ZEAR "`en liburua idatzi ta argitaratzeko. Txistulariak esan eutson, txistularien ondoan egon zan umea bera izan zala eta txistularia beren aita. Datorren urtean, osterera ere joango giñela esan eutson Latxagak, eta liburua, nai Euskeraz idatzita egonda-be, eroango gendula berari eskaintzeko.

Sabiñanigon baskaldu gendun, eta jakintsuen artean, solaseko alkar-izketa gozoa izan zan.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.000`an UZTAILLA`ren 3`an

Euskerazaintzako batzarrean aipatu neban, gure Apaiz, Lekaide/lekaime aber-
tzaleari omenaldi berezi-bat egin bear jakiela, Erri`ari eurak egindako jakitu-
rizko ezkeintza gaitik; bai, aurrekoagaitik ere, baiña batez-be Sabino`ren
eredua artu ebanai Erri-Askatasunaren egarria asetzeko; Eurak izan diralako
" aldi-artu " dabenak, Euskal-indarrak jakituriaren bidetik eroateko arduradun
nagusiak izanda, eta lan-orretan: " Maisu-langille izan eta diralako " Euska-
lerria`ren askatasuna bideratzeko.

Lizarran, Latxaga`ren etxetik, Jurramendi, Iratxe`ko Lekaidetxea bai Mon-
jardin ere, aurrez-aurre begi-ikuspegian eukinda idazten dot gogo-eskari au.
Eurari begira eta Euskalerriko edestia gogoratuz, nai-ta nai-ez arlo aundi-bat
en irudimena ikusten dalako. Berak esaten dauan lez, Iratxe`ko lekaidetxea
ikusiz, beti gogoratzen dala 1936`an Uztailla`ren 18`ko besperatan, an egon zi-
ran gogamenak burutakizun txarrakin Mola eta beste batzuen artean Espaina`ko
agintea artuz, Katalunya, Galitzi eta Euskalerrria`ren Nortasunak galerazi edo
ezeztatzeko.

Gure etxean, Apaiz, Lekaide/Lekaimeak izan diralako, eramakizun aundiena
euki dabenak, ez-jakiñaren edo jakifiñ gaiñean arteko aopaldiaren aurka, edo
Euskal-izaeraren egiari, menperatzail-gaitzeslearen erizpenak, euren artean
jokatuta ezeztatu egin dabezanak. Nai gure artean beste darda-pozoitzu bat eu-
ren aurka agertu, guk ao-zabalik iruntsi genduna (MARX) gugan eta gurekin ezer
ikusirik ez daukana, gure askatasunezko bideak, orrek gauzak berez aurkitzen da-
bezelako zuzen eta erri-agintearen eritxiz. Nok sartutakoak diran, iñork ez
daki, baiña argi ikusten diranak, etsai baten lanak bakarrik izan leikezanak.
Dana dala, guk bada-ezbadan iruntsi, eta or gure gaurko egoera larria, gure ar-
teko aitu-ezinaz, elburu ezberdiñak gure artean kokatu diralako. Apaiz, Lekai-
de/Lekaime Abertzaleak ez ziran jausi sare ortan, geienak jausi diran lez eta
orrek bakarrik oparitxo-bat bear dau. Konturatu ziran, Ludi onen borroka baka-
rra, berezitasunaren aurka joatea dala, sasi-jainkoak gai ontan izateko ?. Ez
dakit !, baiña euren elburua ABERRIA izan dala, bai !. Sinismen osoarekin jo-
katu egin dabelako JAINKOA`rengana igoteko; eta nik geiago esango neuke:
" LUDI ONEN ARDURA BAKARRA DALAKO JAINKOAREN AURREAN GARBI AGERTZEA ".

Bestela, begitu Euskera`ren berbiztasunari buruz ere zor dautsaguna, arlo
nagusienean beintzat.

Zer esanik ez, etzaiak ibili diran jainkotasunaren arloan guk Iparra galdu
degun alegiñetan, Euskalerrriaren ez-izatea lortu gurean EURAK IZATEKO !. Emen
arlo onetan bakarrik egin daben ikerketak edestiko bidetik, ziurtasunezko bidea

irabazi-ta, aurka egiteko arrazoia bere lekuan kokatu daiten. Eta ez lan gutxiago apaiz, lekaide/lekaime eleiz-menperatzaile`en alde dagozan eta egon direnai aurka egiterakoan, euki daben eta daukien ulermen-zeatz aundiko jakituri`en arduradunagaz.

Ez gaitez an aaztu: * Izkillatutako..... 16 Apaiza/Lekaide`rekin
* Espetxetan sartutako.... 211 Apaiz/lekaidekaz
* Erbesteratutako..... 500 Apaiz/lekaidekaz
* Kargu-gabetuakaz..... 9 " "
* Jazarkunderatuak..... 11 " "
* Espetxeetan eta
erbestean il-dakoak..... 8 " "

Eta menperatzaile`en alde egon ziran Gotzaiñarekin, euki ebazan borroka gogorrak, auk ez ebalako on-artzen gure Erriaren berezitasunezko izkuntza, izaera eta gutxiago askatasuna Erri-Berezi lez. " JAINKOAK AGINDUTAKO`EN BEREN BEREZITASUNEZKO LEGE-PEKOAK IZATEA GAITIK ".

Beste aldetik, Euskalerrian euki daben adimendua, Erria ulermenduz JAINKOA`ren askatasunezko agindua betzeko ordezkartzaren bidetik. Besterik ez dauelako, eta ezin dalako askatasunik lortu NORTASUNIK gabe, gizon/emakumeak diralako orren ordezkari arduradun jaun-bakarrak. Eta bide orrek bakarrik eroaten gaitulako berezitasunaren askatasunera, bide bakarra dalako ordezkartzako bizi onetan.

Zergaitik omenaldi au ?: Gure etxea jasteko daukaguzan edertasun onenakaz. Beti bizi gaitez an etxeko Nortasunaren ikus-begian, aurrerakoen egiña omenduz; datozan berrari, beti euki ta kokatu daitez an etxeko berotasunean, bakoitzaren berezitasunezko zertzeladak alan beartzen gaitulako.

Ludi onen giza, bakoitzak bere berezitasuna dauka, bakotzak beren Nortasuna daukolako, eta burutapen (concepto) ori, bear daben senitarte maillan ezarri ezkeror, or ! Ludi onen arrazoi berezia. Nik, orrez gain esango neuke: " ordezkari LOTSAGIZUNA tartekatu ezkeror, or bake ta JAINKOA`ri begiratzea ". Baiña Onandia`tar Santi gaur bizi bazan eta Olazar`tar Martin`ek laster esango eben " Geldi or !, beti agertzen dalako sasi-jainkoaren-bat ". " Giza`ren pekatuak atzo, gaur ta biar, beti izan dira berdiñak, eta aurrerantzean ere bardiñak izango diralako ", JAINKOA`k nai ba dau.

Euskalerrian etxeko seme/alaben arteko arduradunak asko dira (gaiztoak ere bai), merezimendu aundia daukienak bakotxa beren maillan, baña danez gain: Apaiz- Lekaide - Lekaime Abertzaleak dira nere ustez. Euren jakituriagaz jakin dabelako Euskal-berezitasunezko gudan, ze arlotan kokatuta egon bear diran. Eta benetan sinisten dot, euren alegin guztiaz jokatu dabela, JAINKOA`ri ezkeintzeko Bere Aginduaren Ordea.

Nire aurrean daukat egiten nabillen lantxo-bat, gure gudan, Euskal Gudari-izkillatzeko zirenen azkeneko itzak edo mezuak itxi ebazanak edozein paperetan

idatzita: " GURI EZ DAUSKUE IRAKATSI ESPAINA`ri NARDA EGITEN EDO GORROTATZEN;
GURI, EUSKADI MAITATZEN IRAKATSI DAUZKUE eta EUSKADITIK JAINKOARENGANA ".

Onen gora-beragaitik, gure gazteak ez dakie ezertxo be. Orregaitik kontu-
ratu bear gara, Euskal BEROTASUNAZ besarkatu egin bear dogula gure EUSKALERRIA,
gaztediren maitasuna bizkortzeko eta Nortasuna Zendotzeko.

Orregaitik omenaldia Abertzaletasunari APAIZ - LEKAIDE - LEKAIME gandik
asita.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.000`an UZTAILLA`ko 26`an

" Mintegi`tar Jose Ramon`en il-otoizketan niri gertatukoa ".

Neure bizi guztian ezagutu neban gizon ona ta Euskal Abertzale oso-au, Jose Ramon.

Artu emon aundia euki gendun euren denda dala-ta, neure bizitzako arlo aundi baten beintzat, beti ezagun ta adizkidetasun aundikoak izanda. Azken denboratan geiago, neure zuiñaren osabia izan zalako.

Erriko lagun-talde asko batu giñan Eleizkizun ortan, gure otoitz`ekin laguntzeko. Eleiza beterik zegoen.

Gorputzaren sarrera abestuz artuta eta abadeak Meza Santuaren Elizkizunak Euskeraz asita, lekaide karmeldarra Mezako idazkia erderaz asi zan irakurten. Neurentzat, arpiko aundi bat artutako bezela geratu jatan. Eneban ulertzen, Jose Ramon Euskaldunari, otoitza eta asken agurra erderaz egitea. Baneukan atzetik ere, neure illobaren bataiatzea erderaz eginekoa; eta nire gogoan itaun bakarra agertu jatan: " baiña zertan gabiltz ? ". Enitzen izan gai onartze-ko eta Eleizatik urten neban emastea bakarrik itxita.

Eleizatik urtetan noala, neure gogoa zalantzan asi zan: " ondo ?, txarto ". Baiña azken baten eritzi au artu neban: " geldi egon barik, baten batek salatu egin bear dau egoera au eta oraingoan neuk izan bear dot ".

Euskalerrian, arazo geiegi daukaguz gure nortasun gaixoa sendatzeko, Euskaldun benetakoak gariela ikusi dagian inguratzen dauskun auzokoak, eurak-be alegindu daitezcan gure askatasunari baietza emon dagian, gu, erdi-purdiko jokuan ibiltzeko.

Gure utzieziñezko Elizkizunak, beti izan dira oneneitako bideak Euskaraz bizitzeko, ondo entzunaz eta ikasiaz, Euskalerrian gure bizitza dalako bete egin bear doguna gogoz. Orregaitik azalduko dizuet, nola ulertzen dodazan gure bearrezko eginkizunetan, bear diran arauak.

* Nortasuna da izadi onetako askatasuna lortu leikena gai-gizaren bizi-bidean elementu edo egoera bakarra, bera dalako arduradun bakarra edo jabetasun bakarra daukana arlo orretan. Eta ez da edozelako jabetasuna, JAINKOAK emon dauskulako bakotzari agindu ori; giza-gai onen bearrezko neurriak, nai-ta nai-ez arduradunak izan da zaintzeko.

* Bestela zer gartatu leike ?. Gaur bertan gertatzen dana: " urdurikeria, naaspiltasuna edo konpondu ezifia gizartean ". Batzuk, nortasunik gabe gura dabelako giza-gai ontako arazoak konpontzea. Nola ulertu gauza ori !!. Erreza

orduan aitzea, berezitasunezko nortasunak dirala arduradun bakarrak. Kontuan euki bear-ba, zer ekarten dauskun nortasun gabeko egoaldiak. Eta ori da gure ETXE NAGUSIAN bai TXIKERREAN ere gertatzen jakuna: " Nortasunean, gaixoak garela ".

* Badagoz gaur egun, aitu ezinezko gauzak edo eritziak, Euskal-Nortasunari kalte aundiak egiten dautsozenak: gure KRISTAU erligioan adibidez. Apaiz, lekaide/lekaiame Euskal Abertzaleak ez diranak, edo baleiteke menperatzail-abertzaletasunezko jokuan sartuta dagozanak, eta orregaitik berezitasunaren aurka jokatzen dabenak: " Kristautasunezko bidetik, danok bardin izanda jokatu bear dogula ", esaten dabenak.

Ori baleiteke izan, Nortasun guztiak adoz egonda baietza emoten dauanean. Baiña zelan aitu, JAINKO AITA - GUZTIZ ALDUNA alboratuta itxi ezkerro ?. KRISTO JAINKOA izanda, JAINKO AITA da bizitza emoten dauskuna: " Zuri, Beltz, Ori, Kobre-antzeko zertzelada margoakin; bai Euskaldun, Keltiar, Alaman, Irlan`dar, Katalan`dar, Gaztela`tar, Sabino eta abar, jaiotzen garan zertzeladarekin. Orduan, zelan izango gara Kristauak, Euskaldun eta abar izan baiño lenago ?. Argi dago, leenengo Nortasuna dala, eta KRISTO-JAINKO ereduaren bidetik JAINKO-AITAREN`gana igoteko Europa`ko mendebal ontan; bai poztgarria izango zana ere, Mundu guztian izan balitz egoera bakar ori; Ludi onen gizarentzako bear-bearezkoa dalako, danok (Zuri, Beltz, Ori eta abar) oitura baten egon ezkerro, obeto ulertu gendukelako, ze neurri emon bearrezko eginkizunari Ekanduan, Etikan edo oiturazko arloan.

Ardurazko baimen ori, ikusten dogu-lez, ezin da lortu espata, bonba, atomosko lerkaiekin eta abar; bai-ta gutxiago ere Nortasunik gabe. Nortasun-berezitasunezkoa dalako Jabe eta Arduradun bakarra egoera ori lortzeko.

JAINKO-zale edo Kristauak dira olan jokatzen dabenak ?. Nik, benetan uste dot, sasi-jainko kaizar-zale edo menperatzaileen jokuan sartuta dagozanak dirala, gauza orreik edo eritziak gure artean sartzen dabezanak, Euskal izaera dasagertu daiten ?, bestela ezin aitu.

Orregaitik, Nortasunaren ardurazkoa da, eritzi oker oiek salatzea, kalte aundiak egiten dabezelako gure osasunezko bidean NORTASUNAREN ASKATASUNA IRA-BAZTEKO. ETA OR !!

ARIMAREN ASKATASUNA !!

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.000`an ABUSTU`ko 26`an

* SARRERA:

Gaurko itzaldia ta mintzaldia, zergaitik Bidalgoa Euskeraz euki bear dogun, da!, alde batetik; eta bestetik, zergaitik izan bear dau gauza ber-berori olan!. Bai aundiena ere: " bere izatasunezko izaerak ez daukalako beste biderik uler-menean, beren elburua ezagutzeko ". Bestela, iñoiz ikusi dozue eta geiago uler-tu...., bide-zalketari baten-bat..., beste bide zaltzaille baten mozkiñagaitik zabalkundea egiten ?. Erotuta dagoela esango geunke zalantzarik gabe.

Ori da, gaur egunean Euskaldunak egiten doguna. Beartuta ?, edo ardura aundibarik gabiltzalako tresna orreik gureganatzeko ?. Dana dala, Euskalerriko arduran garrantzi aundiko atal-bat, atzeritarren eskuetan dagoala bai!. Orre-gaitik ainbeste " Quevedo, Pelayo, Azorin, Espaina`ko errege, beren sendikoak eta abar; oso ezberdiñak diralako gauzak, Madril`tik edo Euskalerririk ikusita.

Euskaldunak badaukagu aitzakia, 1839`a ezkeroztik, Espaina`ren indarkeria gaitik menperatuta geratu giñelako, Europako Erri-berezi guztien antzera, nai-ta Erri berezi askok bidaien antolamendua euren eskuetan euki. Baiña..., ni ez naz konturatu gure ardurazko arlo onekin LATXAGA (Joxe Mari San Sebastian) jaunak nire begiak zabaldu arte. Arduratu egin gara ?.

Selluak, oso urrutikoak izan arren (Grekoz: " Laguna eta Zerga esan gura dauana, Eta HERODOTO`k 484-425 KRISTO baiño arinago bizi zanak, PERSA`ren bidal-goan antolamendua goratzen dau), 1840`an Loraila`ren 10`an Britania Aundiak arreran ipini eban, Rowland Hill asmatzailleari esker.

Espanan, 1850`an jaso ziran, eta ordago arrazoia Euskal bidalgoko sellurik Euskeraz eta Euskalerriko gizon/emakume ospetsuak, txori, abere, itsas-baster ederrak, baita tokirik politenen irudiak bidalgoko selluetan ez agertzeko, 11 urte ariñoago arrezkeroztik Espaina`tar MENPERATZAILLE`en ankapean lotuta geratu giñelako.

Orregaitik azaldu bear doguz, zeintzuk eta nolako arauak diran, selluari emoten dautsozan eskubide osoa, berem izaera berezia, Ludi onen gizartean azal-keratuta, arreran ibiltzeko.

Orretarako, erazko azterketa batekin ikertu egingo doguz, beren zertzelada bereziak banan-banan argituaz.

- * a) Zer dan eta zertarako da Sellua.
- * b) Zergaitik eta nork azalkeratu leiken Sellua. Bai-ta, nork izan bear dauan Bidalgoko antolamenduaren ar-duraduna ere.
- * d) Erriaren Nortasuna.
- * e) Ondorioa.

* a) ZER DAN ETA ZERTARAKO " SEILLUA ":

Zer dan Sellua: gizon/emakume, elkargo, erakunde edo erri baten berezitasunezko agiri bat da; eta emen mota guztiko selluak sartzen dira: ikus-txartelak, ordezkari-txartelak ere bai, seilluaren esangura bardiña daukielako.

Zertarako: norenak diran eskutitzak, ordain agiriak, atsegin-sariak, mezuak eta abar, egiztatzeko, eta nereko, bereko edozein motako mezuak, arreragure artean ibili daitezak. Nortasunarteko mezu-gauzak bearrezkoak diralako, ekintza orren agiria da !.

Emen, mota askotako selluak agertu jakuz, Euskalerria menperatuta egoteagaitik, gaur arte danak ! arrotzaren izkuntzan idatzita egon diranak. Aibesterarte izan dalako galazotasuna Espainia`tar menperatzailleak egin dauana (gaur ere..) gure Nortasuna ez daiten agertu ifundik ifora be.

Gaur`egun, askatasun aundia eukin da be, asko !, ia larregi esango neuke, erderaz idatzita dirala dagozan. " Or ikusten da, nolako ardura daukagun gure Euskal-Nortasunaren osasunagaitik ". Aitzaki asko ipinten doguz: " artzen dabenak, ez dabelako ulertzen "; eta ori ez da egia, gure izen-abizenak, bai elbideak ere Euskaraz daukaguzelako, ta orrek, danak ! ulertzen dabe. Senideok !!, or ez dago aitzakirik.

Dana dala, gu arduratzen gaituna: Grezitarrak ezaugarritako selluaren esangura da " Lagun eta Zerga "; ori dalako erri batek daukan agindupean tresneri onenatariko bat, mezuaren seillu bidetik, gure izkuntza, gizon/emakume ospetsuak, Euskalerriko toki politak, bertoko txori-abere ata abar`zen irudiak, ezautzera emoteko, gure auzoko ta Munduko erri guztiari. Baiña ori, beste adierazpen mamia da.

* b) Zergaitik eta Nork azalkeratu leiken seillua.

Zergaitik: Gizon/emakume, elkargo, erakunde, jaurkintza eta batez-be Erriak, beti ! gura dabelako beren idaz-mezuak ondo apaindutako gauzakin eskaintzea, eta ze obe, beren Erriak daukazan edertasun guztiak ezagutu daitezak seillu txukun baten.

Nork azalkeratu leiken seillua: Eskutitza, nai jaurkintzakoa, gizon/emakumeena, elkargo, erakunde eta abar izan..., " nereko - berekikoa da! ", orduan, zalantzarik gabe NORTASUNARENA. Orregaitik Nortasunak jokatu bear dau zeregin guztiaz, eta ez ! erdi-purdika, Nortasunaren eza, oso-osoan agertzen dalako.

Gaurko giza-garaian, lagun-arteko berezitasunak guzurra eskatzen dau ?. Lagunak, beti ! jakingo dau norberen berezitasunak zeintzuk diran, eta gaur eguneko seilluak Euskalerrian guzurra esaten dabela ere bai; agiriko izkuntza ez dalako geuria, eta irudiak ere ez !. Baiña atzerrian ez dakitelako gutxi bai-

ño, eta gu erdi lotan edo oker gaudelako, eurak errez eroaten dabe zapaltza ori erdi ostonduta aurrerantza; orregaitik atzerrian ez jako ainbesteko ardurarik emoten. Baiña zalantzan ipinten badoguz indar guztiaz zabalkunde bidetik, gu-txien beintzat, begiak zabaldu bearko dabez; eta or! Espaina`ko bai Munduko fazizta guztien guzurra ta ipurdia agirian.

Gaur Europak egi-ziurraz joan bear daualako aurrerantza, eta ez tiroka, bide zabaletik bada ez-badan ostondu egiten dira, alboratu egiten dira bide erditik, eta ostera be asteko indarrak berritu egin bear dozuz lan askorekin aritik artuaz aurrerantza bakez jarraitzeko. Orregaitik, Espaina`tar MENPERATZAILLE`en guzurra danak jakin arren, ondo baiño obeto ostondu egiten dau beren gezurra ta maltzurkeria, eta danon begiramena aldatuz beren arazotik, gure arazo biurtuz. Guzti-ori, guk! emoten dautzugulako aukera berezia da!.

Begitu, zenbat gauza eder daukaguzan ezagutzara emoteko: " txori, abere, izpaster edo itsas-baster ederrak eta zoragarriak, bai gaurko gauza barriak ere; baiña danez gain, gure gizon/emakume ospetsuak: " Arana`tar Sabino, Kanpion`tar Arturo, Barandiaran`tar Joxe Miel, Lekuona`tar Manuel, Orixe, Lizardi, Lauaxeta, Onaindia`tar Santi, Akesolo`tar Lino, Oñatibia`tar Jon, Zipitria`tar Elbira eta abar asko.

Norenak izan bear diran bidalgoaren antolamenduzko ardurak ?: Argi dago, Nortasunaren ardurak izan bear direla, berezitasunaren (berekiko-nerekiko) gauzak diralako. Nortasunak bear dituztelako selluaren zergak, askatasunez Euskal-Bidalgoaren ogibide-langintza antolatzeke, eta Erri-Agintearen ekandua, oitura edo etikak, aots-karrazian eskatzen daualako.

Beraz..., begitu nortzuk izan bear garan bearrezko gauzak gureganatzeko.

Sabinok esate eban: " Euskalerrria babes barik egoala orduko denboratan " eta egi ber-bera da gaurko egunetan, MENPERATZAILLE`ak desagertu arte.

" LAN ORI, GURE NORTASUNEZKO ARDURAK IRABAZIAZ LORTZEN DA "

* d) ERRIAREN NORTASUNA: Giza seme/alabaren ordezkartzako bidetik lortzen dira berezitasunezko zertzeladak, gizon/emakume eta erriari izaera bakarra emoten dautsozenak, euren arteko egin-bearrak ikasiz eta oituratuaz, nortasun berezi bat emoten dautsielako. " Euskadi oso zaarra da edestian zear, ori berori ez-jakiteko ".

Ba-dira gizon aundiaren esanak, menperatzailleen zapaltza orrek salatzen dabezanak. Aristoteles`ena adibidez: " beartutako agindua galerazo egin ez gero erri berezi bateri, erronka edo aokaldi benetan astuna izango zala euren Nortasunentzako eta JAINKOAK ipinitako berezitasunezko legeari, aokaldi ezin izan aundiagokorik.

Orregaitik, len argi geratu dan lez, Nortasunaren gauzak dirala eskutitza-

ren, bai seilluen egin bearrak ere, berezitasunak bear dabelako eskutitzaren berotasuna, arremanak eta sinismena erri-arteko gizan sendotzeko.

Nortasuna da orduan, indar berezia emoten dautsona berezitasunari, benetako ordezkaria izateko, JAINKOA`ren Legeak agintzen daskun lez. Orrek esan nai dau, Nortasunak bear dauan tresneria, izateko, berak! euki bear dituztela, beren gorputzak eroaten dauazan: gibela, biriak, urdail edo sakela, nai bularrak eta koskabilloak, bizitzako gauzak beteteko. Norekiko-berekiko gauzak diralako JA-INKOAK bakotzari emondakoak.

Nortasuna, saldu-ezin edo eman-ezinezkoa da, eta eginekotan eriotza da, kendu egiten dautsozenentzat, bera dalako gure ARIMA, Mundu ontan gizatua eta berak bakarrik egin leikena, edo bete egin leikena JAINKOA bakotzari emondako agindu berezia. Orregaitik Euskalerrian Nortasunaren ARIMA, EUSKARA da!, eta EUSKARAZ euki bear dau gorputzak eskatzen dautson tresneri guztia: " NORTASUN BARIK, EZ DAUALAKO BIZITASUNIK ".

* e) ONDORIOA:

Lan onetako sarreran leenengo ikusi doguna bidalgoari buruz, Nortasunaren gauza-bereziak dirala eskutitzarenak, bide-zalketaren ulerpidez. Eta nola ez diran gauza berdiñak Madril`tik edo Euskalerritik ikusita.

Aitzakirik badaukagula aipatu dogu. Bai-ta zer lortzen dogu aitzakian geratu ez-gero.

Bai, nola ez dauan seillurik Euskaraz idatzita 1839 urte arrezkerotik, menperatuta geratu gifelako.

Guzti-au ikusita, erazko azterketa egin bear izan dogu, noren ardurak diran ziur jakiteko, eta argitu egin dogu Seillua zer dan, bai zertarako dan ere a) baztarrean; beragaitik nolako ardura daukagun ikusiaz oiñarte beintzat.

b) Baztarrean, zergaitik eta nork azalkeatu leiken seillua. Nortasunarenak dirala oso-osoan ikusiz, berezitasunarenak diralako.

Eta d) baztarrean, Erriaren Nortasuna nola lortzen dan, bai-ta asken baten, zelan diran gure ARIMAREN bizi-esakuntzak bidalgo`en gauzak: " gure gibel, biriak, zakel nai bularrak eta koskabilloak diran gure gorputzak bear dabezanen antzera, bizirik iraun eta jarraitzeko.

Guzti-au ikusita, ez dogu artuko lotsa apurbat geiago, gure giza-barrena`ren egarria asetzeko ?. Nik uste dot Erriaren giza-barrena izartzeko badaukaguzala batzoki, elkarte eta erri-toki ugari, auek ardurak ezagutzara emonaz lanean asteke. Gure gauzak diralako eta bearrezkoak Euskal gorputzaren osasunerako.

Begitu bestela, Sabinok nolako ardura eta zelan ulertze eban egoera au, Arantzadi`tar ingartziri idazten dautson 1901`an Urtarrilla`ren 5`an eskutitzatik.

" Gogoratzen asten nazenean onetaz edo endaren gora-beran, au bajoakula aitzen dot, eta bajoaku asi dogun gizaldi-au amaitu orduko ".

" Gure erriarentzat zabalkundea latz biurtu jaku, asarregarria da! ".

" Aukera bakarra diruan dago, eta au ez da aurkitzen ". Baserritarrak geiegi daki, Euskereak ez dautsola ezertarako be balio semeari. Zuzenbide bakarra langintzako eta trebetasunezko elkarteak antolatu, anai-arteko ongilleak eta arrantzaleentzako elkartasunak (mutualidades), nekazaritzarako, abel-azikerarako, ibilbideak zabaldu edo jabetuz..., bizitzan eskutarteko guztiak legez erritartuaz (nacionalizando), Euskereak zeozertarako balio dagian; nai-ta naiezkoa izan daitela eurakaz artukizuna eukitea. JAINKO Aundia, Aalduna eta Bakarra da zuzendu leikena!. Bearrezkoa da, Euskera naikoa izan dedilla, eta gertatzen dana da, ez dauela balio nekazaritzako egintzaren izketarako baiño. Bizkaian bear doguzan liburuak be ez daukaguz azibidea burutzeko, guztia ez, baizik erlijiozko-oituraren azibidea, bear-bearrezkoa dana emakume gaztea sendi baten ama izateko be. Ai, nere laguna!. Au baserriaren barruko bizitzan sartzen asten danean, nork-berak argi ikusten dau; gauza-bat oartzten dau: " biotzak negar egiten dauala, eta negar egiten dau zuzenbideak aurkitu barik ". Gure aurrekoak zer egin dabe?. Zer egin dau Eleizak?, elizkideen amak?. Gizaldi asko dira gure erria laguntzarik gabe dagoala: " Euskeran ber-beran dago orren ezaugarria. Egiatzko mirari aundia da, gure zoritxarreko erri au, asierako bidetik eta apaizak bideratuta, ez ziurtasunez txarra, baiña ardura gitxikoa. Gaur arte gorde egin dauana, ara ez dan eldu oraindik araso-aldia, beren duintasuna eta zintzotasunak izan dira. Alan ba, bera begituten badogu, erri ber-bera esan leike nai-ta naiez iltzeko bidean dagoela. Baiña JAINKOA`ren eskuari begitzen badautsagu, Bera da eutsi dautsona. Nork-berak itauna egiten dau: " izango da JAINKOA`k gura ez dauana au desagertzea ?.

Benetan konturatu zala, Euskal-ARIMAREN gauzak dirala, gure gorputzarako diran gibel, zakela, bularrak eta koskabilloaren antzera, bizitza, bizitzeko tresneriekin bete egiten diralako.

" Guri egokitzen jaku, bidalgoaren tresneri guztia berrezkuratzea ! ".

" NOZ DA ERRIAREN TXANDA ? "

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.000`an IRAILLA`ko 26`an

AURKEZPENA:

- * Arraztion, etorri zareten guztioi itzaldi onetara, eta on-egin daigula danori, beren mamitik ulertzen dogunak.
- * Gura neuke, azkenean, zuek-ere galderak egitea, nik-ere zeozer geiago ikasi neikelako, danok batzarretik, al dogun ulermen guztiaz urten daigun.
- * Leenengo, esango dautsuet, itzaldi onek uztekabea arrapatu nauala. Latxagaren gogoak leenengoetatik: " bera izan zalako argi emoille " eta bion arteko gogoak, lan ederra edo guztiz argiduna gura gendulako izan daitela.
- * Dana dala, ni arduratu egin naiz argitzen " aren ezean... ", bidalگوen ikurrak, Euskeraz zergaitik izan bear diran.
- * Eta, ori eskeiñi egingo dautsuet. Leenengo bidalگوaren edesti labur bat egifaz.

Luze eta zabal aztertzen dau Britaniarren Entziklopediak gaurko arazo au, baiña guk aztertzen dogun gaia, ikurrarena, ez dau aztertzen.

Lenengo bidalگو-ikurra zer dan diño: Errian edo kanpoan gutuna edo fardela bialtzeko almena emoten dauan txarteltxua: Bialtzailleak aurretiaz ordaintzen dau, urteen joanean ordaintze ori laterriaren eskuetara jausi zan eta laterriak bidalگو-sare bat sortu eben.

Gutunak naiz fardelak gaur mundu guztira bialdu leiz, astuntasuna ta neurria kontuan dirala. Orretarako bidalگوan gutunak artu, moltzotu eta norako diran ikusten dabe, gero eroan trenez, naiz autobus`ez, itxas-ontziz, naiz egazkiñez. Eltzen diran lekuan barrero moltzo txikiagoak egiten dira, etxerik etxe eroan edo kutxatillak ipini artzeko. Gaur, asko aurreratu da lan oneik egiteko lana-bes barriak, konputadorak dagozelako, baiña alboan dago " konpetentzia " eta azkar ibili bear da. Emen esaterako SEUR.

Gero bidalگوen edestia, istoria, egiten dau luze: Antziñatik aginterriak ikusi eben komunikabide onak bear zirala aginterriari eusteko. Ejipto`n Kristo baiño 2.000 urte lenago ba-ebiltzazan bidalگو-gizonak. Erodoto`k eta Jenofonte`k diñozkuen lez, Persia`ko aginterrian, 700 urte Kristo baiño lenago, batez be Ziro`ren denporan, ondo eratuta egoan bidalگوa. Grezia`n uri bakoitxak bere bidalگوa eratu eban eta lortu eben egokitasuna, ez da obetu emeretzigarren gizaldira arte: berreun eta irurogeta amar km. egiteko, egun bat eta gau bat ziran naikoa. Erromatarrak ondo jarraitu eben bide ori.

Gero bisigodoak be onak izan ziran bidalگوa eratzen, baiña Karlomagno`ren ostean erri txikiak sortu ziran eta bidalگوak asko galdu eban. Gatxagoa zan.

Bizantzio`tarrak berbiztu eben jokabide au, eta gero arabiarrek ondo be ondo eratu eben.

Ameriketan be, Kolon ara eldu baiño askoz lenago, Kristo baiño milla urte lenago, Mayak eta Inkak ba-euken bidalگو ondo eratu.

Erdi-Aroan, gutun asko ebiltzazan ara eta ona, batez lekaideen artean, eta ikastetxe nagusien artean. Oneik bidalگو taldeak eukezan, batez be Paris`koan.

Italia`ko sal-erosleak be onak izan ziran bidalگو arloan eta oneik asmau eben bidalگو ordainketan egiteko bidea. Baiña ez da aiztu bear, Erdi-Aroan ia iñok ez ekiala idazten eta ez eukela bidalگوaren bear-izanik.

Milla lareun eta berrogeta amargarren urtean irarkola edo inprenta asmatu zan, eta orrek indar barria ekarri eban gure arlor. Laster ikusi eben laterriak, or irabazbide bat eta " MONOPOLIOA " sortu zan, Paris`ko Ikastetxe-Naguziak be galdu eban bere almena.

Napoleon`ek, aurrerapen aundia emon eutson bidalgoari, eta milla zortzireun eta amazpigarren urtean egin zan " COLINA ROWLAND "`en aldaketa. Or agertzen da laterri arteko bidalgo ikurra eta ortik sortu ziran arazo barriak, batez alkarren arteko ordainketak. Lenengo amabost laterri batu ziran eta azkenean dana dago Munduko Laterri Batuen edo ONU`ren eskuetan.

SARRERA:

Gaurko itzaldia ta mintzaldia, zergaitik Bidalgo-ikurrak Euskeraz euki bear dogun, da!, alde batetik. Eta bestetik, zergaitik izan bear dau gauza ber-berori olan!. Bai aundiena ere: " bere izatasunezko izaerak ez daukalako beste biderik ulermenean, beren elburua ezagutzea baiño ". Bestela, iñoiz ikusi dozue eta geiago ulertu..., bide-salketari baten-bat..., beste bide-saltzaille baten mozkiñagaitik zabalkundea egiten ?. Erotuta dagoela esango geunke zalan-tzarik gabe.

Ori da!, gaur egunean Euskaldunak egiten doguna. Beartuta ?, edo ardurua aundi barik gabiltzalako tresna orreik gureganatzeko ?. Dana dala, Euskalerriko arduruan, garrantzi aundiko atal-bat atzerritarren eskuetan dagoala, bai!!. Orregaitik ainbeste " Quevedo, Pelayo, Azorin, Espainia`ko errege, beren sendi-koak eta abar. Oso ezberdiñak diralako gauzak Madril`dik edo Euskalerritik ikusita.

Euskaldunak badaukagu aitzakia, 1839`a ezkeroztik, Espainia`ren indarkeria gaitik menperatuta geratu giñelako, Europa`ko Erri-berezi guztien antzera, nai ta Erri berezi askok bidaien antolamendua euren eskuetan euki. Baiña..., ni ez naz konturatu gure ardurazko arlo onekin LATXAGA (Joxe Mari San Sebastian) jaunak nire begiak zabaldu arte. Arduratu egin gara ?.

Selluak, oso urrutikoak izan arren (Grekoz: " Laguna eta Zerga " esan gura dauana, eta HERODOTO`k 484-425 urteetan KRISTO baiño arinago bizi zanak, PERSA`ren bidalgoa`en antolamendua goratzen dau), 1840`an Loraila`ren 10`an Britania Aundiak arreran ipini eban, Rowland Hill asmatzailleari esker.

Jakiteko zer dan bidalgoaren edestia, Britania Aundiko Entziklopedia artu bear izan dot (ENCICLOPEDIA BRITANICA - POSTAL SISTEM), eta or ikusten dana da: " agintari-menperatzaille eskuetan egon dala beren antolamendua, eta bai, gaur egun ere!, sasi-jainkoaren agindu-zale Laterriak dagozelako, Espainia artean dala. Ez gaitez an aaztu, gaur egun ere, erdi-mendeko legeakaz gabiltzala eta auk etsaimendekoak dirala. A ta guzti be, bidalgoak daukan gaur eguneko erreztasunera eltzeko, lan askoko gertaerak izan dirala edestian zear.

Dana dala, izadi onen giza, gero-ta jakintsuagoa doalako, ulertzen asi gara: " ARDURAK EZ DIRELA IÑORENAK ".

Espainan, 1850`an jaso ziran, eta or-dago arrazoia Euskal bidalgoko seillurik Euskeraz eta Euskalerriko gizon/emakume ospetsuak, txori-abere, itsas-baster ederrak, baita tokirik politenen irudiak bidalgoko selluetan ez agertzeko, 11 urte ariñago arrezkeroztik Espainia`tar Menperatzaille`en ankapean lotuta geratu giñelako.

Orregaitik azaldu bear doguz, zeintzuk eta nolako arauak diran, seilluari eskubide osoa emoten dautsoenak, beren izaera berezia, Ludi onen gizartean azal-keratuta, arreran ibiltzeko.

Orretarako, erazko azterketa batekin ikertu egingo doguz, beren zertzelada bereziak banan-banan argituaz.

- * a) Zer dan eta zertarako dan sellua.
- * b) Zergaitik eta nork azalkeratu leiken sellua. Bai-ta, nork izan bear dauan Bidalgoko antolamenduaren arduraduna ere.
- * d) Erriaren Nortasuna.
- * e) Ondorioa.

* a) ZER DAN ETA ZERTARAKO " SELLUA ":

ZER DAN SELLUA: gizon/emakume, elkargo, erakunde, jaurkintza edo Erri baten berezitasunezko agiri bat da; eta emen mota guztiko selluak sartzen dira: ikus-txartelak, ordezkartzako-txartelak ere bai, seilluaren esangura bardiña daukielako.

ZERTARAKO: norenak diran eskutitzak, ordain agiriak, atsegin-sariak, mezuak eta abar, egiztatzeko, eta nereko-bereko edozein motako mezuak, arreran gure artean ibili daitezak. Nortasunarteko mezu-gauzak bearrezkoak diralako, ekintza orren agiria da !.

Emen, mota askotako selluak agertu jakuz, Euskalerrria menperatuta egoteagaitik, gaur arte danak! arrotzaren izkuntzan idatzita egon diranak. Ainbesterrarte izan dalako galazotasuna Espainia`tar menperatzailleak egin dauana (gaur ere..) gure nortasuna ez daiten agertu ifundik iflora be.

Gaur egun, askatasun aundia eukin da be, asko!, ia larregi esango neuke, erderaz idatzita dagozala. " Or ikusten da, nolako ardura daukagun gure Euskal-Nortasunaren osasunagaitik ". Aitzaki asko ipinten doguz: " artzen dabenak, ez dabelako ulertzen "; eta ori ez da egia, gure izen-abizenak, bai elbideak ere Euskaraz daukaguzelako, ta orrek, danak! ulertzen dabez. Senideak!!, or ez dago aitzakirik.

Dana dala, gu arduratzen gaituna: Grezitarrak ezaugarritako selluaren esangura da " Lagun eta Zerga "; ori dalako erri batek daukan agindupean tresneri oneneitariko bat, mezuaren seillu bidetik, gure izkuntza, gizon/emakume ospetsuak, Euskalerrriko toki politak, bertoko txori-abere eta abar`zen irudiak, ezautzera emoteko, gure auzoko ta Munduko erri guztiari. Bai !, gure Erriak daukan langabezia desagertu daiten, gure jaurkintzaren antolamendu-on berezi bategaz. Baiña ori, beste adierazpen mami bat da.

* b) ZERGAITIK ETA NORK AZALKERATU LEIKEN SEILLUA:

ZERGAITIK: Gizon/emakume, elkargo, erakunde, jaurkintza eta batez-be Erriak, beti ! gura dabelako beren idaz-mezuak ondo apaindutako gauzakin eskaintzea, eta ze obe, beren erriak daukazan edertasun guztiak ezagutu daitezcan seillu txukun baten.

NORK AZALKERATU LEIKEN SEILLUA: Eskutitza, nai jaurkintzakoa, gizon/emakumeena, elkargo, erakunde eta abar izan...: " NEREKIKO - BEREKIKOA da! ", orduan, zalantzarik gabe NORTASUNARENA. Orregaitik Nortasunak jokatu bear dau zeregin guztiaz, eta ez! erdi-purdika, Nortasunaren eza, oso-osoan agertzen dalako.

Gaurko giza-garaian, lagun-arteak berezitasunak guzurra eskatzen dau ?. Lagunak, beti ! jakingo dau norberen berezitasunak zeintzuk diran, eta gaur eguneko seilluak Euskalerrian guzurra esaten dabela ere bai; agiri dan izkuntza ez dalako geuria, eta irudiak ere ez !. Baiña atzerrian ez dakitelako gutxik baiño, eta gu erdi lotan edo oker gaudelako, eurak errez ! eroaten dabe zapaltza ori erdi ostonduta aurrerantza; orregaitik atzerrian ez jako ainbesteko ardurarik emoten. Baiña zalantzan ipinten badoguz indar guztiaz zabalkunde bidetik, gutxien beintzat, begiak zabaldu bear ko dabez. Eta or ! Espaina`ko bai Munduko fazizta guztien guzurra ta ipurdia agirian.

Gaur Europak egi-ziurraz joan bear daualako aurrerantza, eta ez tiroka, bide zabaletik bada ez-badan ostondu egiten dira, alboratu! egiten dira bide erditik, eta osterara be asteko, indarrak berritu egin bear dozuz, lan azkorekin arituk artuaz, aurrerantza bakez jarraitzeko. Orregaitik, Espaina`tar MENPERATZAILE`en guzurra danak jakin arren, ondo baiño obeto ostondu egiten dau beren gezurra ta maltzurkeria, eta danon begiramena aldatuz beren arazotik, gure arazo biurtuz. Guzti ori, guk! emoten dautsegulako aukera berezia da !.

Begitu, zenbat gauza eder daukaguzan ezagutzara emoteko: " txori-abere, izpazter edo itsas-baster ederrak eta zoragarriak, bai gaurko gauza barriak ere; baiña danez gain, gure gizon/emakume ospetsuak: " Arana`tar Sabino, Kanpion`tar Arturo, Barandiaran`tar Joxe Miel, Lekuona`tar Manuel, Azkue, Orixe, lizardi, lauaxeta, Onaindia`tar Santi, Akesolo`tar Lino, Oñatibia`tar Jon, Zipitria`tar Elbira eta abar asko.

NORENAK IZAN BEAR DIRAN BIDALGOAREN ANTOLAMENDUZKO ARDURAK ?: Argi dago, Nortasunaren ardurak izan bear direla, berezitasunaren (berekiko-nerekiko) gauzak diralako. Nortasunak bear dituelako selluaren zergak, gauza askoren artean, askatasunez Euskal-Bidalgoaren ogibide-langintza antolatzeke, eta Erri-Agintearen ekandua, oitura edo etikak, aots-karrazian eskatzen daualako.

Beraz..., begitu nortzuk izan bear garan bearrezko gauzak gureganatzeko.
Sabinok esate eban: " Euskalerrria babes barik egoala orduko denboratan "
eta egi ber-bera da gaurko egunetan, MENPERATZAILLE`ak desagertu arte.

" LAN ORI; GURE NORTASUNEZKO ARDURAK IRABAZIAZ LORTZEN DA "

* d) ERRIAREN NORTASUNA: Giza seme/alabaren ordezkartzako bidetik lortzen dira berezitasunezko zertzeladak, gizon/emakume eta erriari izaera bakarra emoten dautsozenak, euren arteko egin-bearrak ikaziz eta oituratuaz, nortasun berezi bat emoten dautsielako. " Euskadi oso zaarra da edestian zear, ori berori ez-jakiteko ".

Ba-dira gizon aundiaren esanak, menperatzaillenen zapaltza orrek salatzen dabezanak. Aristoteles`ena adibides: " beartutako agindua galera egin ez gero erri berezi bateri, erronka edo aokaldi (ofensa) benetan astuna izango zala euren Nortasunentzako " eta JAINKOAK ipinitako berezitasunezko legeari, aokaldi ezin izan aundiagokorik.

Orregaitik, len argi geratu dan lez, Nortasunaren gauzak dirala eskutitzaren, bai selluen egin bearrak ere, berezitasunak bear dabelako eskutitzaren berotasuna, arremanak eta sinismena erri-arteko gisan sendotzeko.

Nortasuna da orduan, indar berezia emoten dautsona berezitasunari, benetako ordezkaria izateko, JAINKOA`ren Legeak agintzen dauskun lez. Orrek esan nai dau, Nortasunak bear dauan tresneria, izateko, eurak! euki bear dituela, beren gorputzak eroaten dauazan gauzak: gibela, biriak, urdail edo sakela, nai bularrak eta koskabilloak, bizitzako gauzak beteteko. Nerekiko-berekiko gauzak diralako JAINKOAK bakotzari emondakoak.

Nortasuna, saldu-ezin edo eman-ezinezkoa da, eta eginekotan eriotzea da, kendu egiten dautsozenentzat, bera dalako gure ARIMA, Mundu ontan gizatua eta berak bakarrik egin leikena, edo bete egin leikena JAINKOAK bakotzari emondako agindu berezia. Orregaitik Euskalerrrian Nortasunaren ARIMA EUSKERA da !, eta EUSKARAZ euki bear dau gorputzak eskatzen dautson tresneri guztia: " NORTASUN BARIK, EZ DAUELAKO BIZITASUNIK ".

Eta emen, askeneko bastar-arloan... .

* e) ONDORIOA:

Lan onetako sarreran, leenengo ikusi doguna bidalgoari buruz, Nortasunaren gauza-bereziak dirala eskutitzarenak, bide-zalketaren ulerpidez. Eta zelan ez diran gauza bardiñak Madril`dik edo Euskalerritik ikusita.

Aitzakirik badaukagula aipatu dogu. Bai-ta zer lortzen dogun aitzakian geratu ez-gero.

Britania Aundiko Entziklopedian, zelan Bidalgo`en tresneri guztiak, Laterri-Menperatzaileen eskuetan egon diran, eta gaur egun ere dagozela, nai-ta apurka Nortasunezko berezitasunak bir-eskuratzen asi.

Bai, nola ez dauan seillurik Euskaraz idatzita 1839 urte arrezkerotik, menperatuta geratu giñelako.

Guzti-au ikusita, erazko azterketa egin bear izan dogu, noren ardurak diran ziur jakiteko, eta argitu egin dogu Seillua zer dan, bai zertarako dan ere a) baztar-arloan; beragaitik, nolako ardura daukagun ikusiaz, oiñarte beintzat.

b) Baztarrean, zergaitik eta nork azalferatu leiken seillua. Nortasunarenak dirala oso-osoan ikusiz, berezitasunarenak diralako.

Eta d) baztarrean, Erriaren Nortasuna nola lortzen dan, bai-ta asken baten, zelan diran gure ARIMAREN bizi-esakuntzak bidalgo`en gauzak: " gure gibel, bi-riak, zakel nai bularrak eta koskabilloak diran gure gorputzak bear dabezanen antzera, bizirik iraun eta jarraitzeko.

Guzti-au ikusita, ez dogu artuko lotsa apurbat geiago, gure giza-barrenaren egarria asetzeko ?. Nik uste dot, Erriaren giza-barrena izartzeko badaukaguzala batzoki, elkarte eta erri-toki ugari, auek ardurak ezagutzera emonaz lanean as-teko. Gure gauzak diralako eta bearrezkoak Euskal gorputzaren osasunerako.

Begitu bestela, Sabinok nolako ardura eta zelan ulertzen eban egoera au, Arantzadi`tar Ingartziri idazten dautson 1901`an Urtarrilla`ren 5`eko eskutitzatik.

* " Gogoratzen asten nazenean onetaz edo endaren gora-beran, au bajoakula aitzen dot, eta bajoaku asi dogun gizaldi-au amaitu orduko ".

" Gure erriarentzat zabalkundea latz biurtu jaku, asarregarria da ! ".

" Aukera bakarra diruan dago, eta au ez da aurkitzen ". Baserritarak gei-egi daki, Euskereak ez dautsola ezertarako be balio semeari. Zuzenbide bakarra langintzako eta trebetasunezko elkartek antolatu, anai-arteko ongilleak eta arrantzaleentzako elkartasunak (mutualidades), nekazaritzarako, abel-azikerarako, ibilbideak zabaldu edo jabetuz..., bizitzan eskutarteko guztiak legez erritaratuaz (nacionalizando), Euskereak zeozertarako balio dagian; nai-ta naiezkoa izan daitela eurakaz artukizuna eukitea. JAINKO Aundia, Aalduna eta Bakarra da zuzendu leikena !. Bearrezkoa da, Euskera naikoa izan dedilla, eta gertatzen dana da, ez dauela balio nekazaritzako egintzaren izketarako baiño. Bizkaian bear doguzan liburuak be ez daukaguz azibidea burutzeko, guztia ez, baizik erlijiozko-oituraren azibidea, bear-bearrezkoa dana emakume gaztea sendi baten ama izateko be. Ai, nere laguna !. Au baserriaren barruko bizitzan sartzen asten danean, nork-berak argi ikusten dau; gauza-bat oartzten dau: " biotzak negar egiten dauala, eta negar egiten dau zuzenbideak aurkitu barik ". Gure aurrekoak zer egin dabe ?. Zer egin dau Eleizak ?, elizkideen amak ?. Gizal-

di asko dira gure erria laguntzarik gabe dagoala: " Euskeran ber-beran dago orren ezaugarria. Egiazko mirari aundia da, gure zoritxarreko erri au, asiera-ko bidetik eta apaizak bideratuta, ez ziurtasunez txarra, baiña ardura gitxikoa. Gaur arte gorde egin dauana, ara ez dan eldu oraindik araso-aldia, beren duintasuna eta zintzotasunak izan dira. Alan ba, bera begituten badogu, erri ber-bera esan leike nai-ta naiez iltzeko bidean dagoela. Baiña JAINKOA`ren eskuari begitzen badautsagu, Bera da eutsi dautsona. Nork-berak itauna egiten dau: " JAINKOA izango da, gura ez dauana au desagertzea ?.

Benetan konturatu zala, Euskal-ARIMAREN gauzak dirala, gure gorputzarako diran gibel, zakela, bularrak eta koskabilloaren antzera, bizitza, bizitzeko tresneriekin bete egiten diralako.

" Guri egokitzen jaku, bidalgoaren tresneri guztia berrezkuratzea ! ".

" NOZ DA ERRIAREN TXANDA ? "

Eta au-da, nik esan-bear izan doten guztia " BIDALGO`en IKURRAK EUSKARAZ IDATZITA EGON DAITEZAN ".

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.000`an URRIA`ren 23`an

Latxaga, gizon eta abade asmalari bat da, indar guztiak Euskalerrian bide-tik, JAINKOA`ri askeneko arnasararte emon-gura dautsozenak.

Lizarran, bere etxean egiten doguz astero egun bi edo iru, eta esaten azten danean: " Paul! Martzillara joan bear dogu idaz-lantxo bat egitera "; nik be-ti erantzuten dautsot: berebillari giltza emon ez gero, bertan, bereala egon geinke ".

Aurretik, beti arduratzen gara norekin egin gure alkar-izketa ori, eta beti aurkitzen dogu gizon/emakume arduradun bat erriaren berriak batzeko.

Martzilla`ra eldu gintzazenean, leenengo begiraldean nire biotz-ikara oso txarra izan zan Nortasun aldetik, itxura makala emoten ebalako erritxo orrek; bai laster konturatu be zergaitik izan zan ori: kaleen izenetan " Principe de España, Plaza de España eta gudal-naguzien " izen larregi ikusi ta irakurri ne-banean. Bildur askoren usaia susmatu egin neban, gure alkar-izketaren bitartez.

Martzilla, Iparraldetik: Faltsez, Erriberri (Olite), Azkoien (Peralta); Ekialdetik: Kaparrotsu eta Bardenas reales; Mendebaletik: Azkoien eta Funes; eta Egoaldetik: Milagro, Kadreita eta Baltierra inguratzen dabe. Ogita bat, ogeita amabigaz kilometru karratuak daukaz ta bi-milla ta bosteun bizilagun. Bere Ipar-Ekialdetik etorrita, Ipar-mendebaletik Aragoi ibaiak busti egiten di-tuz beren lurrak. Nekazaritzatik bizi dira geien, baiña badaukaz ere garrantzi aundiko azukretegi ta barazkigintza (fàbrica de conservas) lan-tokiak.

Erri langillea da!, naizta erriaren itxura antxiñako denboran geratuta daua-la eman. XV Mendeko gaztelu gotiko aundi bat dauka (ez ondo zainduta) erri er-dian, beren ur-inguratzen dautson obirekin, eta Foruak, Leenengo Alpontso Guda-lari erregeak emon eutsozan.

Eldu giñanean, Ingles andereñoa dana Roke`tar Mari Jose itxaroten euki gen-dun eta beren etxera eroan ginduzan gure alkar-izketarako. Beren aita Roke eta Leza`tar Reinaldo eta beren senarra Landibar`tar Agustin`en aurkezpena eginda, Latxaga itaunak egiten asi zan:

- *.- Badaukazue txistularirik erri ontan ?. // Ez ! Albokariak (dulzaineros).
- *.- Dantza talderik bai ?. // Bai!, orain lau urtetik onantza inguru.
- *.- Badauka erri onek Euskal arimarik ?. // Bai ! Napar amorratuak garela kon-tuan euki ez gero.
- *.- Nor da dantza-taldearen arduraduna ?. // Muskari`ko (Tudela) mutil gazte bat, Kastellanos`tar Iñigo ain zuzen. Joandako neguan erakundeko beste lagunakaz dantzari-eguna antolatu ebana.

- *.- Erriko kultur-maillan nola konpontzen zarete ?. // Badago elkarte bat: " sociedad de amigos del castillo " izendatzen dana. Eta beren buru, Bilbon bizi dan kazetaria: Kanbra`tar Jose Maria dana. Eurak dira emengo jaiak antolatzen dabezanak.
- *.- Badago ardura Euskeragaitik erri onetan ?. // Bai !, baiña indar gitxi daukagu azkeneko lege madarikatu orren bidez. Gu guztiok Naparrak gara eta bardiñak izan bear genuke, baiña lege orren bidez, bigarren edo irugarren maillan kokatuta gaude erriberakoak.
- *.- Murtxante`ko Ullate eta Gil`tar Dionisio ezagutu zenduen ?. // (Aitak): bai ! eta beren emastea ere, Torrens eta Kaballero`tar Felipa. Arrizubietan apaiza ere bai, Mesa Santua Euskeraz emoten ebana. Felipe, ondo baiño obeto irakatsi egiten eban, eta Irujo`tar Manuel`ekin ibiltzen zan mitiñak emoten gerra aurretik.
- *.- Zenbat kanpotar daude Martzillan ?. // Zubia egin zanen orduan mordozka bat etorri ziran, eta azukre lantegiagaz ainbeste. Gaur egun, zortzireun izango dira guztiz, danak Ekuador eta Marroko`tarrak.
- *.- Zenbat aur dabiltz ikastetxean ?. // Berreun inguru bat, eta Euskaraz ikasten larogei-larogeta amar. Euskeraz " A " ereduak bakarrik daukagu eta danoentzat andereño bakarra, urte guztietan aldatzen dana. Olan, ez dago sustrai aundirik aurrerantza benetan joateko. Gaiñera, ez dira ondo ikusiak talde batzuen aldetik. Dana dala, gu oso arduratuta gaude EUSKARA eta Euskal izaera gaitik.

Ikusten dan lez, zeozer dago izartzen Martzillan ere, eta zorionekoa da !. Baiña goien esan doten lez, laguntza apur bat geiago bear dabe, dagozan zillotik urten dagian.

" ETA ORI, EUSKALDUN GUZTIEN ARDURAN SARTZEN DAN GAUZA DA ! "

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.000`an AZARO`KO 12`an

Azaro`ko 12`an idaz-lan bat egin nuen Martzilla`ri buruz, Latxaga eta ni bertara joanda, gure orduko ardurak, Euskara eta beren ikas-bideak gai zirala. Batez, beste egoera larri batzuekin konturatu gintzazan, " oso kezkatuak itxi ginduezanak, beldurraren susmoa igerri gendulako ".

Etxera eldu giñanean (Lizarran), zergaitik ! itaunka asi giñan, eta bere-ala iker bidean kokatu gintzazan bertan ikusitakoaz:

* Langintzaren beldurra ?.

- Guk, erriberatik egin doguzan ibilketatik, argi ikusten dan gauza da arlo ortan.

Ez dana ia igertzen euren arteko arremantaren mintzalditan: gauza bat esaten dabela azaletik, sentikizunean beste gauza bat eukinda.

* Euren artean danak jakinda ?.

- Nere ustez egia da, eurak Naparrak dirala esaten dabelako.

* Orduan..., zergaitik U.P.N`ri ainbeste autarkia eman ?.

- Or ! agertzen dalako jakin-ezaren beldurra. Eta eskumatarrak ondo baiño obeto jakin dabelako: " Nortasunaren eza eta beldurra alkartuz, daukaten autapena lortzeko ".

* Baiña zelan izan leike ori, eurak Naparrak dirala esaten ba-dabe ?.

- Konturatu bear gara, Nafarroan, edozeinetariko lur unetxotan eskua sartzen ba-dozu, odolez beterik atarako dozula, gure lenengo erregetatik asita. Bestela, or daukasuz Obanos`ko aitor- seme, aitonen- seme edo etxeko- semeak (Infanzones), geiago ezinean, erregearen aurrez-aurre kokatuta esan eutsoenak: " Gu`tariko bat zure- beste, danok alkartuta zu baiño geiago ". Gure erregeak, Eleiza eta aberatsak oker jokutzen asi zirelako Europa guztian, danon ardurak eta diruak euren eskuetan gura ebelako eukitea; au da, lapurketan asi ziralako (gaur egun ere, or gabiltz, orduko okerrak mogimenduan ipini ziraretik, zuzendu ezinik), eta kontuan eukiten badozuz gaizkilleak..., orregaitik batu ziran aitaren- semeak.

Eta edesti odoltsu orretan jauzte (salto) aundi bat egiten ba-dozu karlisten denboraraño..., euren oiñarrizko FUERO`tatik, espainolak biurtu ziran ainbat beintzat.

* Ori ezinezkoa da !, FORU`ak nor-bereren askatasuna esan-gura dabelako, NAFARROA`ren ASKATASUNA !.

- Or ba !, Nortasunaren ez-jakintasunak noraiño eroaten dauan erri bat, apurka apurka eriotzara igarri barik !.

Argi dago, Nafarroan naastetasun aundia egon dala, ez-jakintasunean jauzi

diralako; eta geiago, ze lan aundia daukien (gure laguntzaz zalantzarik gabe), euren izaera berezia berrezkuratzeko " EURAK IZAN-GURA BA-DABE ".

- * Orregaitik..., Nafartarrak Nortasuna galdu dabe ?.
- Ez da olan gauza ori: galdu dabena Iparra izan dalako ez-jakifaren bitartez. Indarrarekin ainbeste gezur sartu dautselako buruetan. Baiña zorionez, garurko denborak Iparrarenak, Nortasunarenak dira, eta orregaitik itzartu daitezcan, jain-erazi zeatza emon bear jakie. Berez ! agertuko dira eurak diran izaerara.

Or !, bear dabe laguntza asko eta guztiz atsegin-zariz, euren etorkizuna, Nortasunaren irabazleena izan daiten EUSKALERRIA`rentzat.

- * Martzilla`n argi ikusten da, nola Gaztelarrak edo Espaina`ren iritzikoak indarkeriaz edo izandako indarkerien denborak erakutsiaz nola zaintzen daben, beldurrak jarraipenean iraun dagian: kaleetako izenak, euren izen itzun-arri-garriakaz ipinten dabezelako; adibidez: " Principe de España, Plaza de España " eta bada ez-badan gudal-naguzien izenakaz ere bai. Begitu bestela euren jokoa ziur jakiteko Gazteizen egin dabena: Udal-etxean, on artu Euskadiko lendakarien izenak " garaikoetxea`tar Karlos eta Ardanza`tar Jose Antonio " kaleen izenak izan daitezcan, len, eta orain ere " Baldomero Espartero eta General Loma "`ren kaleak izan eta diranak. Udaletxea P.P`ra aldatu zanean, leenengo jaurkintzaren agindua kendu eben, jarraitu dagien kaleen izenak gure etsai aundien eta amorraturen izenakaz.
- Baiña Martzilla`ko seme/alabak beti izan dira abertzaleak, bestela or daukagu ANA de BELASKO XVI`garren gizaldean, aurka egin eutsona Billalba koronel`ari, Cisneros kardinalaren agindua betetan joan zanean Martzilla`ko gaztelua murritzen.

Beste gauz-bat agertzen jaku gure ez-jakin zitalagaitik: gure gaixoa`ri " ISEKA " (burla) egiten dautsagula lagundu bearrean, benetako txirotasunean gure erri ber-bera sartuz lotsagizun gabe, Espainola`ren eritzikoak dirala esanaz, Euskal sustraitasuna kontuan euki barik. Eta kontuan euki daigun, Nafarroak sekula ! ez dautsola ezetzik eman Euskal Estatuto`ari.

Dana-dala, Nafarroak, osasunaren bidean jarraitu ebanean, Franko`ren gudakin ostera ere illuntasunera sartu ebezan Nafartarrak, eta or dagoz Espaina`ren iritziko " agin-indartzuakaz " elduta !, mugi-aldirik ez dagian egin, GEZURRA eta EZ-JAKINTASUNEAN Nafarroak jarrai dagian.

Jakin ezak, gauza-txar asko ekarten ditu danon zoritxarrerako, eta Naparrak (gu ere bai) badaukie bai ! lan ugari ikas-bidetik, Nortasunezko ardurak bideratzeko. Nortasunik gabe, ez dagoelako JAINKOAK emondako aginduaren ardurak zaintzerik, eta gitxiago BIZITZARIK, " NORTASUNAREN EZA ! ERIOTZEA DALAKO ".

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.000`ren AZARO`ko 30`an

Joan dan Abendu`ko 14`an, ospakizun eder bat egin zan Aretxabaletan, su-izkillatutako Peña`tar Jesus idazlearen oroimenez.

Oso ondo egon ziran ospakizunaren bitartez ikusi genduzanak, baiña zori txarrez, oso labur eta durundi gutxikoa, ainbeste merezi dauanak Josu Peña, Euskal Erriarentzat guztiz ezaguna izan bear dauana eredu.

Ospakizuna, Aretxabaletako Udal-Etxe zarrean bete zan, eta egia esanda, gela artan ezan egon lekurik ainbeste Atxabal`dar eta kanpotik joan ziranentzat.

Maia, Gipuzkoa`ko Aolkularia, Aretxabaleta`ko Alkatea, Lenizbarrutia`tar Lorea Gipuzkoa`ko Aldun-Etxean Ikastolen arduraduna dana eta beren aita Peña`tar Jesus`en lagun aundia izan zana, Atxa`tar Jesus Iruña`ko San Fermin ikastolaren zuzendaria izan zana eta Peña`tar Jesus`en lagun miña, Peña`tar Lorentzo Peña`tar Jesus`en anaia, eta Latxaga Jaunak bete eben.

Danak mintzatu ziran Peña`tar Jesusi buruz: beren Abertzaletasunagaitik, eta Gipuzkoa`ko Aolkulariak bai Aretxabaleta`ko Alkateak, olako giza-semeak nola jasten daben euren berotasunarekin Erri bat, Lurralde eta asken baten Euskal-erria, Euskadigaitik euki eben Nortasunezko Abertzaletasuna, indar guztiakaz arduratsu ta maitasunez beterik, euren biziak Euskadiren altsoan emonarte. Baiña danez gain Peña`tar Jesus`en izaeraren zeazkuntza goxo-goxo eta edertasunean egin ebana Latxaga Jauna izan zan. Badauka arrazoi naikoa ori eta gauza azkoz geiago egiteko dakiten guztiaz, bai Euskerazaintza taldeak idatzia dan liburuan: " 36`ko gudaldian su-izkillatutako Euskal Idazle Gazteak " eta argitaratu barik dauana, bera izan dalako zuzendari eta lagillerik aundiena.

A ta guztiz ere omenaldiko batzarretik urten gendunean, ni lasaitu barik urten nintzan, zeozer`en egarriaz urten nebalako. Kanean, Aretxabaleta`ko Alkatea, Latxaga, Lourdes nire emaste eta ni alkartuta geratu giñanean, Latxaga`ri esan neutson ni arduratuta itxi ninduan gauza zer izan zan: Pare-gabeko Euskal-gazte auek, danak ! " EZ DAUTSIELA IRAKATSI ESPAINA GORROTATZEN, EUROI, EUSKADI MAITATZEN IRAKATSI DAUTSIELA " esaten ebala; eta ori bakarrik naikoa dala eredu lez guk artzeko, or ! gaudelako Nortasunaren ulermena bete ezinik, Abertzal ekintzako lanetan buruz-bera gabiltzalako alkartu ezinik, ELBURUA`ri begitu barik !, taldeen arrotasunera begituten gaudelako, eta asken baten " NORBEREN ARROTASUN UZTELA`ri ". Ori zan nik ikusi nebana ezean geratu zana ospakizun ortan " EUREN ABERTZALETASUNA ELBURUA`ri BEGIRA EGON ZALA, EUREN IZAERAK edo NORTASUNAK KONTUAN EUKI GABE, EUREN NORTASUNEZKO INDARRAKAZ, BATERA, BULTZ EGITEN EBELAKO EUSKADI ASKATU DAITEN ".

Ospakizun ederra izan zan benetan, mamintsu eta berotasun aundiagaz azalke-

ratuta, Peña`tar Jesus`en bizi laburra baiña luzea Abertzaletasunaren ekintza gaitik argitua. Amaieran Jesus`en familiak, liburu txukun eta polit bategaz oparitu ginduzan bertan egon giñen guztiak. Baiña nire ustez, gauza bi onein zorrean geratu zala ere bai: Euskadi osorako izan bear zan ospakizuna, Aretxabaletan bakarrik geratu zan eta gaiñera aldizkaritako berri-idazle barik. Eta bigarrena: ez zala azpian marratu edo kakotx-artetu (entrecomillar), gurentzat benetako eredu izan bear dana " EUREN ABERTZALETASUN AUNDIA BETI !, ELBURUA`ri, JAINKOA`ri, EUSKADI EUREN LOTSAGIZUNEZKO ARDURA NAGUSIENETIK BEGIRA EGON ZALA ".

Uste dot, bete egingo dirala akatz txiki-aundi oiek, liburua edo Euskerazaintza`ren aldizkaritan argitaratu egiten dan aurkezpenean, gure Abertzaletasunezko ekintzak zuzentzeko, bear-bearrezkoak diranak EUSKADI ASKATZEKO.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.001`ean URTARRILLA`ren 5`an

Latxaga eta ni astelen askotan lez, Lizarra`n dan bere etxera joaten gara astero, leenengo iru egunak lasaitasunez iraun dagiguzan, baiña beti agertzen jaku zeozer`en bat, zuurtasun guztiaz dabillelako Euskalerrian barrien billa.

Oraingoan esan eustan Ondarribi`ra joan bear gendula. Nik baietza emon ne-utson eta arrastiko 5`etan an egon giñen, Sainz eta Pezonaga`tar Xabier`en etxe aurrean. Berak zabaldu eban atea eta gora joateko dei-egin euskun.

Ikuste onen arrazoia, Xabier`ek liburu bat argitaratu ebalako zan: " El Euskera en la Ribera de Nabarra ", eta Latxagak gure ebalako bera ezagutu, idaz-lan bat egiteko Diario de Nabarran argitzeko eta nik " ZER "`en. Garran-tzi aundikoa dalako argitu eben liburu ori, eta gaiñera Nafarroan Korella`ko seme batek argitaratua.

Liburu au, izkuntzaz mintzatzen da, eta or izkuntzaren astarnak geografian bai Euskal erroak Erriberan.

Latxaga, gure aurkezpena egin ondoren itaunka asi zan:

- * Noz jaio ziñen ?.
- 1958`an Korella`ko erritxoan.
- * Beti bizi zara Korella`n ?.
- Bai !, askeneko iru urte auek Ondarribin bizi izan garenak ezik.
- * Nolako eta nun egin zenduzan ikasketak ?.
- Xabier`eko Jesuitetan amar urtekin asita batxillerra egin nuen, eta aldiz-karien berrikari Bartzelonan.
- * Nun egiten dozu lana ?.
- Renfen.
- * Zenbat seme/alaba daukasuz ?.
- Mutil eta nezka bat.
- * Nun aurkeztu zendun len-da-bizi zure liburua ?.
- Iruña`n dagon Saldiko-Maldiko elkartean.
- * Nola artu zinduten ?.
- Nire ustez oso ondo, jende ezberdin zar eta gazte asko egon zalako.
- * Nolako jendea zan azaldu zeinskigu ?.
- Bai !, eta pozik gaiñera, jende asko etorri zalako Nafarroa`ko Erriberatik. Batzuk Euskal arduradunak ziran, beste batzuk erriko emakume/gizon onuradu-nak (interesados), jakin-nai aundia sortu zalako Korella`ko errian. Jende zar eta gazte asko egon ziran liburuaren aurkezpenean.
- * Aldizkarien berri-emaile edo kazetaririk bai ?.
- Bai !, eta oso pozik nago gaiñera Nafarroa`ko aldizkari guztietan on-artua izan dalako.

* Eta zure errian ?.

- On-artua izan da nire errian (Korella), eta denborarekin uste dot izketaldi baten bat emon bear dotela.

* Zer`ek urduritu zaitu liburu au egiteko ?.

- Leenengo jakin-miña, eta gero erri-miña. Asken baten..., gure jakintzaren (kultura) maitasunak.

Nekazarien seme-gazte izan nintzanean, lenengo arritu nintzalako gogoan Euskerazko itzaren bitartez, eta ostean aitu nebalako nire izkuntza beste bat zala, Euskera zala !. Jakin-nai orrek, neure nortasuna azkortu (desarrollar) eustan.

* Zer esaten dabe Erribera`ko jendeak Sanz lendakariaren Euskal arloan pentsatzen dunagaitik ?.

- Erriko jendea asi dalako konturatzen Nafarroa`ren gurazo-ondokoa (patrimonio) Euskera dala, uste dot elburu orretan ez doazela Sanz`en atzetik. Orregaitik neu ere: zuurtasun aundiekin ibili naz arlo onetan, berezitasun guztiaz, lerderialdi (presunciòn) barik eta erri-yaurgoan sartu gabe.

* Zein izanda zure ikerketaren araua gaztetatik ?.

- Nirentzat bi izan dira arauak: alde batetik, nekazaritzako lanean ibiltzen giñanean, Euskerazko itzak agertzen ziranean ostean ikertuz; eta bigarrena toki izenakaz arrituta geratzen nintzala, galdera aundiekin itxiten nebalako.

Beste arau bat ere euki neban: neure zuurtasun guztiaz egonda, Nafarroan Euskeraz argitaratuten zan guztiari.

* Zer on-artuko zenuke argitaratu dozun liburuatik esaten diran gauza guztietatik ?.

- Lan aundi bat dala, opaldian (dedicaciòn) eta zaletasun guztiaz eginda; baiña danez gain: egian dauela landuta iñungo arrokeri eta asmakuntza barik.

* Urrengo liburua nozko ?.

- Orretarako lan asko egin bear dot, gure aurreko belaun-aldiakaz eta guregan egon dan ebagi aundiori beteteko; adibidez: Muzkaria`ko (Tudela) Pelairea`tar Alberto olerkaria, Fiteron urte askotan bizi zana, nolako sendimenduzko biotz-ikutua emoten eutson beren olerkiari.

Gauza asko dagoz. Iribarrenek ere esaten dau: Muzkaria`koak XVIII`garren gizaldiko jaietan " Karrika-dantza, Nezka-dantza, pelotan ", jantza eta jokatu egiten zala, Nafarroaren Erriberako jakintzatic galdu diranak, eta Nafarroa`ko jakintza guztiz Euskalduna da !.

* Zer dozu gogoan Nafarroa`ren etorkisunerako ?.

- Gure oñarriekin arduratu egin bear garela; danez gain gure izaera eta Nortasuna diralako zalantzan ipinten doguzenak. Euskera barik ez dauelako Nafar Nortasunik.

- * Zure Nortasunaren egikunde buruz: zein da zure eginkisun izkutua ?.
- Neuri guztatuko jatan naia izan, geiago emoteko Euskerazko Elertian, Nafar`tar guztiari eskaintzeko eta asken baten Euskalerrria`ri.
- * Nola zeunke ikusi nai Nafarroa`ko Erribera ?.
- Biotz-biotzez gura neuke Erribera jakitun ikustea, baiña arazo orretatik urtetako utsun asko daukaguz bete barik Nortasunaren eza agirian dala, eta Nortasunaren utsuna Euskera ber-bera da.
- * Zure asmoa, Erriberara itzultzea da ?.
- Neure burutapena ori da, asken baten nire naia Euskeraz irakastea dalako, neure errian eta inguruko errietatik.

Gauza asko ikusi dodaz Nafarroan zear, eta askok arriturik itxi naute, baiña sakontzen noan bitartez, orain arte arritutako gauzak oso labur edo txiki geratzen dira agertzen jatazen egoera barriekin. Gizon emakume ezkonduak, bai ere euren senitartekoak eta lagunak elkarte polit bat osotzen dabena, daukien abertzaletasunezko indar aundiekin, eten bako lanean dabiltzanak nai ikastolan, nai erriko zinegotziak lortzeko Euskal Abertzaletasuna bizkortu daiten, leenengo eskema edo egitarau bat agertzen danean, nai eurek sortzailleak izan....., bastartu egiten dabez ezeren lotsa barik. Gauza illunak ikusten ari gara gure artean, bakotxa beren denboran argira emango doguzanak.

Eta emen nire aitua ezinezko itaun bat: Korella`ko mutil au " Sainz eta Pezonaga`tar Xabier " RENFEN lan egiten ?.

Norentzat lan egiten ari gara: guretzat, Euskalerrriarentzat ala alderdiren-tzat !. " ZEIN DA ELBURUA " ?.

Euskalerrriak gaur iñoz baiña geiago bear dau Abertzaletasunak ELBURUARU be-gira lan egin dagiela eten-bako ardurarekin, ezer`en arrokeri barik Euskadi ar-gitu daiten, Munduko erri guztiak ikusi dagien emen erri bat dagoala, ez dauana merezi iñoren menpean egotea, beren Nortasunagaitik ainbeste nekaldi jasotzen dabillena.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.001`an URTARRILLA`ko 24`an

Arana`tar Pedro-juanek esan eustan, gure coro-abestien biltokian zornotzako aldizkari barri baten aurkezpena egongo zala 2.001`an Urtarrilla`ko 19`an arratsalde`ko 6`retan, eta jakiñen egarria sortzen daben lez gure arteko gauza eder oiek, bertara joateko beartu genduzan.

Aldizkaria ikusi nebanean, oso dotore bera eta atsegin guztiz eginekoa, aldizkariaren aurre-aldean Lauzirika`tar Daniel, oso jatorra eta abeslari ona dana gure koro-abestian urte askotan, benetan postu nintzan; leenengo: lan guztia Euskeraz idatzita daualako; bigarren: Bizkaieraz; eta irugarren: Zornotzan, ordua zalako gazteen artean erri-miña agertuaz, arduratu egin daitezana gure erriaren Euskal-Nortasuna sendatuz osasun onenagaz aurrerantza bultzatzeko.

Batzarren maia: Fernandez`tar Joseba koraleko elkartean lendakaria, Lobera`tar Gotzon Aldundi`ko arduraduna, Fundarena`tar Ana-Ester Udaletxeko arduraduna, Aurtenetxe ta Elorriaga`tar Karmele eta Ingunza ta Renteria`tar Maite " ZORRONTZA EUSKERA ALKARTEA`ren " aldizkaria atara daben ordezkoa ziranak osotu eben. Beste gazte batzuk ere egon ziran mai-aurrean, aldizkariaren aurkezpena irakurri ostean Alkartearen kide eta arduradunak dirala konturatuz: Legina`tar Xabier, Ingunza`tar Unai, Iturbe`tar Andoni, Korta`tar Asier, Goienetxe`tar Gorka, Jauregi`tar Igor, De Pedro`tar Alex, gazte oso jatorrak diranak eta arduradunak ikusten dan lez.

Maiko aurkezleak danak mintzatu ziran koral-elkartean lendakaria asita: bear daben guztirako tokia prest daukiela Alkarteari eskaiñiz; Aldundiko arduradunak ere bardin, bear daben laguntza aldetik; eta bai Udaleko arduradunak ere, bear daben diruaren laguntza gaitik. Dana Euskera`ri eskaiñi eutsoen berba gorrezgarriakaz, baiña danez gain, Aurtenetxe`tar Karmelek esan ebanaz geratu nintzan: erri guztietan asi zirala erriko aldizkariak Euskaraz argitaratzen, eta gu ez gara gauza izango beste ainbeste egiteko ?. Askotan entzun dot gure artean: Euskera Batua Bizkaieraren amaiera edo eriotza izango zala a sortuzanetik, eta Euskalerrri`ko ain-bat arraldoi aundi ikusi nebazan oso kezkatutik, euren indar eta ardura guztiaz ori gertatu ez daiten. Aita Santi`ri itaun egiten neutson orduan: " eta zuen ostean zer ?. Beren erantzuna beti izan zan bardiña: " atzean datozen belaun-aldiaren maia izango zala "; eta ikusten ari garana oso arduradunak dirala, eta Bizkaiera, euren Lurraldeko izkuntza biotz-biotzean maitasun aundiagaz sartuta daukiela.

Nik uste dot, ori dala bidea gure Euskalerrri maite oneri askatasuna emoteko.

ATUTXA`tar Paul

ZORNOTZAN 2.001`an URTARRILLA`ren 24`an

Ao beteaz esaten dabe Espainan PP`ko billakariak (inquisidores), Euskalerrriak sekula ez dauala euki ainbesteko askatasunik ezeren lotsa-barik. Eta baleiteke arrazoi pizka bat eukitea, jakiten ez dana ez dabelako bizitasunik euki, edo sekula ez dala gertatu egin. Orregaitik ain ondo gorde dabez I Napoleonen denborakuak, onek euki ebazan asmoak Euskalerrriari buruz eta zeintzuk izan ziran orduko gertakizunak, baita zer esan gura daben orduko eta betiko jakinean: " EUSKALERRIA BETI BIZI IZAN DALA BERE GOGOAN ASKATASUN OSOAN "; naita beste gauza bat izan, menperatzaileen gogoak zeintzuk diran euren asma-kizunetan: " danez gain, gure daben sasi-jainkotasuna agertu naian ".

Guzti au agertu zan Latxaga`ri itandu neutsonean: Euskalerrriak nolako jorkabidea euki eban Napoleon`en denboretan. Bere-ala joazan daukan liburutegira eta Auñamendi`ko "ENCICLOPEDIA GENERAL DEL PAIS VASCO "`tik irakurri eben, " EUSKALERRIA I NAPOLEON`en ERA-BERRITZE EGITAMUTAN (planes)" (larogeta lauuko orrialdean datorrena): " Bonaparte, Frantzi`ko iraultzaren oiñordeko " eta iraultza sendotu ebana, bai gizon jakintsuak erri-txikerraren askatasunagaitik euki eben maitasuna edo begi-onagaz ikusten ebazanaz be oiñordetu zan;" berak Europa, diran erri guztien askatasunagaz ikusten ebalako osotuta, Mendebaleko Kaizar-gobernu (imperio occidental) baten Lurralde-lez "; baita Euskal-izkuntza`ren edertasuna begi-onagaz ikusten ebalako. Arrituta geratu nintzen, eta burura galdera asko agertu jatazan batera:

Leenengoa .- Europa`ren goi-mallako ulermenean danak jakin ebelako Euskalerrria berezitasunezkoa zala, eta orregaitik bere jaurkintza bear ebala eskurakoi (governable) izateko eta bakez bizitzeko.

Bigarrena .- Argi ikusten dana dala, Europa`ko erregetasun guztia erri berezitasunaren Nortasunak kontuan euki barik lan egiten ebala, eta batez be Euskalerrrian V`garren Felipe borboiak 1701`tik aurrerantza, naita gure Foruen eskubideari, lotsagizunez zainduko ebala esanez.

Irugarrena.- Ortik aurrera eta Karlisten borroka gogorrek kontuan eukinda, Erriak ez ebala tutik ere jakin, zer esan gura eben Foruen ezau-garriak. Eta oren ondorioa gaitik nola Arana`tar Koldobika Bar-tzelonan ikasten dauala, lekaide baten bidez jakin ebazan zeintzuk ziran Euskalerrriaren eskubideak, beren anaia Arana`tar Sabino jakinean kokatzeko. Baita Sabino berak errien ariak artu ebazane-an, nola egon zan Erria Nortasunezko azken arnasetan; eta nola gure Euskalerrri maite au, leize-zulotik (abismo) igon eben Sabino`k emon eutson beren osasunerako aize berriekin. Nola denbora gutxi-

an indartu zan Nortasunaren gogoak berriztu jakozanean, gaur zentzen ari garana, naita egiten doguna ez ainbestekorik izan, gaur daukaguzan arrazoi-bako edo ganoragabeko eritzian, dana irentsuteko (consumismo) prest agertzen garalako, eta egoera orrek JAINKOA`ren argia illundu egiten daualako, gure lotsagizunezko ardura nagusian, arrazoi berezia dana ikusteko. JAINKOA`k Berak ere eta Beren Legeaz erakutsiten dauku mugak nun dagozan, berezitasunari edo Beren aginduari lapurtzen dogunean, or ! agertzen diralako ordain bearezko " sida, bei-erotuak, ozonoan zilloak, errekek eta bai itsasoa ia utsik eta guztiz zikinduta, eta abar. Benetan erakutsi egiten dabela: " Bera dala menperatzaille bakarra " eta guk, Ludi ontako gizon/emakumeok Beren Legean jarraitzeko guztiz arduradunak garala, bata bestea baiño geiago ez dan tokian gaudelako, danak arduradun nor beren maillan izateko.

Itaun guzti onein artetik, berez ikusten da jakintzaren bideagaz arduratu egin bear garela, berak ! arrazoi berezian kokatzen daualako oker guztiak danon indar berezi orregaz, menperatzailleen arrazoi zikiñak ibili barik, Euskalerrriaren ditzira Munduko ontako giza-seme/alaba guztiak ikusi dagien. Or ! gure askatasuna lortzeko arrazoi bidea.

Latzagak esan eustan, or euki genuela pare-gabeko aukera erri-lez askatasuna lortzeko, eta guk Napoleonen aurka jokatu gendula jakifiaren eza gaitik.

Olazar`tar Martinek beste aldetik: itzaldi eder bat antolatzeko or neukala ikas-gaia, Euskalerrria arrazoizko jakintzarekin jazteko. Nik baietza emon neutson eta nire ardura guztiaz egingo nabela, Euskalerrriaren berezitasun dizdiratsuari laguntzeko, " ERRIA ARGI ! " erri guztien artean agertu daiten.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.001`ean OTSAILLA`ren 9`an

Latxagak esan eustan Karkastillo`ra joan bear gendula, Euskal-zale gizon bateri alkar-izketa baten bidez idaz-lan bat egiteko, berak " DIARIO de NABARRA " aldizkarian argitzeko eta nik " ZER " aldizkarian. Noz ! esan neutsan eta urrengo egunean an egon giñen.

Ni ariñago, baten baiño ez naz egon Karkastillo`n, eta bera Aita Santi erosten Euskerazaintzak Garde`tar Martzeliño`ri omenaldia egin eutsoen orduan, itzaldi ta mintzaldi amaieran, bere etxeko atean (goi aldean) oroi-arri bat ipiniaz. Orregaitik ezin dot esan Karkastillo ezagutzen dotela; baiña oroi-arria ipini zan egunetik, urrengo astean, Euskerazaintzan mezu bat agertu zan: " baten batzuk gabaz, oroi-arria malluaz apurtu egin dabela " esaten ebana.

Ori gogoan eukinda, nor-bera surt egoten da, eta ez dira ikusi-gabe geratzen zure inguruan agertzen diranak ainbateko asmoekin, batez-be Garde`tar Martzeliño`ren etxe aurrean argazkiak ataraten zagozenez. Orren gora-beran esango neuke: gauza txikienetakoa be ez dala geratzen jakin gabe On Martzeliño`ren etsai`arentzat. Zure ondora, aingeruaren aurpegiagaz agertzen dira eta norberak be aingeruaren aurpegia ipini bear izaten dau larri alditan sartu ez egiteko.

Karkastillo`ra eldu giñanean, zuzen joan giñan Markos osagillearen gaxoitundegira. On artuak izan giñan, eta aurkezpena egin ondoren Latxaga itaunak egiten asi zan:

- * Garde`tar Martzeliño abadea ezagutu zendun ?.
- Bai ! ta maite nuen oso.
- * Nun jaio zara ?.
- Karkastillo`n, 1963`an Apiril`eko 25`ean. Ama bertakoa da. Aita, Betanzos, Galiziako erri txiki baten jaio zan eta Zamora`tik uren kontura ona etorri zan ta eskondu.
- * Zeintzuk dire zure izen abizenak ?.
- Perez eta Antonio`tar Markos.
- * Nundik zaletasuna Euskera gaitik ?.
- Etxean euki gendun Euskerazko mapa bat, eta amamak " La Verdad " aldizkaria elebiduna izan zana, eta lau ale atara ebanak, gorde egiten eustan.
- * Nora joan zara Euskera ikasten ?.
- Bakar-bakarrik ikasi dot Euskeraz egiten. Ez dakit nolako zaletasuna euki doten, baiña Euskaraz erreztasun aundiaz ikasi dot.
- * Zer pentzatzen zuten zure orduko gazteak Euskera gaitik ?.
- Nire garaiko denboratan, danok ardura geiago euki gendun Euskera gaitik, baiña gaur eguneko gazteak ez dira ainbeste arduratzen. Baita gure gazte denbora Euskaldunagoa izan zan, dantza lekuan ere orkesta edo musikariak gure dantzarekin saiatzen ziran.

- * Zure ikasketak nun bete zenduzan ?.
- Nafarroako Ikastetxe Nagusian.
- * Nolakoa izan da zure ibil-bidea amen kokatu arte, eta Euskara`ri nola eutsi dautzazu ?.
- Uy, uy uy uy..., oso urrutitik ibili naz Salvador`era joan nintzalako mediku giza, eta egunero nire zeregiñeko oar-liburuan Euskeraz idatzi egiten nebalako Euskerarekin betiko lotuta geratu nintzan. Gero bertarako sendakintzaren aukera artu nebanean ona etorri nintzan bulego au zabaltzeko. Bai Euskal-zaleen artean dantza eta Euskarazko talde bat osotu gendun. Ori len izan zan, baiña umez beterik gaudelako danok eta lan askorekin, zoritxarrez itzi genduzen gauza orreik.
- * Nolako sendakintza egiten dozu ?.
- Bizi-jakintzaren sendakintza (medicina bioldgika).
- * Badaukazu lagunen-bat, Euskeraz zure antzera itz egiten dauana ?.
- Bai !, bertakoa dan Aguas eta Aranguren`tar Ana, bera " Jotera " da, baiña Euskera zale amorratua.
- * Norekin ezkondu ziñen ?.
- Bertakoa da au ere, eta gazte-gaztetatik oso maite minduta egon giñen, Ezpeleta`tar Mari Jose`rekin.
- * Zergaitik ez dago ikastolarik emen ?.
- Orain zortzi urte saiatu giñan ikastola bat egiteko, baiña lenengoetan dirua zalako eta bestetik aur gitxi auki gendulako utzean geratu zan.
- * Zer gertatu zan Martzelino`ren oroi-arriarekin ?.
- Oroi-arri aundiagoa egin gendula, beren etxeko ate-alboan dagoana.
- * Gaur egunean, nolako giroa dago erri onetan ?.
- Dantza talderik ez dago, Euskeraz ere ez dago ikasketarik " A " eredia izan ezik. Lotan esan leike gaudela, erreztasun osoan bizi garalako. Joaten itzi doguz ere aukera batzuk, baiña argi dago zeozter egin bear dogula zaletasuna berrezkuratzeko. Nik uste dot txoko edo talde bat antolatuaz asi bear geunkela, batez-be gure ardura zendotzen doalako; gaiñera Ekainan ospatzen dogu Euskeraren eguna, eta jai ori egokikoa da zeozetan asteko. Itzaldiak ere antolatuko doguz, eta orretarako or daukagu, berak nai ba-dau, Korella`ko Sainz eta Pezonaga`tar Xabier ondo baiño obeto beteko dauana arlo ori.
- * Latxagak: ia-ba egia izaten bada gu ostera ere agertzen garan egunerako, eta ziur egon zaitez laster izango dala. Nik uste dot indar aundia daukazuela zuen eta Erriaren NORTASUNA argitzeko, arazoak eta eragozpenak bastartuz.

Karkastillo`n argi dago, nai-ta gaur agertzen dan itxuragaitik, euren buruak irikitzen dagozela, ZAIN ! euren NORTASUNEZKO ARDURAK noz bete.

Euren aitzaki bat izango ote da ba....., guk ibili garan erri guztietatik batu doguzan iritziak: " GAURKO ILKETAK EZ DAUTSIELA EZEREN MEZEDERIK EGI-TEN ? ".

Nik uste dot egia dala, bear diran argibideak illunetan geratzen diralako, ainbeste ilketa, estanda eta keakaz, eta batez ere ziur ! gure etzai menperatzaillaren gezurra danak jakin arren, ondo baiño obeto dakielako zarataren aitzakiaz beren maltzurkeria ostontzen, eta danon begiramena beren arazotik aldatuz, gure arazo biurtu.

Gaurko lana, gure NORTASUNAREN ARDURAK betetea da, ori lortu egin ez-gero, ASKATASUNA LORTUTA DOGOLAKO.

ATUTXAñar PAUL

ZORNOTZAN 2.001`an EPAILLA`ren 1`ean

- MATXINADAK -

Euskaldunak, Austria`tar ekin lortu gendun gure askatasuna zaintzea, edo gure FORU-LEGE`ari euren aldetik lotsa erakustea. Eta olan izan zan 1700`arte V`garren Felipe Borboi`rekin gure mutillak indarkerien bitartez, taldeka gudarako (guerra de secesion) gudari eroan arte eta mugak Ebro-ibai`tik Auñamendi eta itsasora eroan arte.

A ta guzti ere, euki genduzan larrialdiko egoerak IV`garren Felipe denboran 1631-1634`an " GATZA`ren DEBEKATASUNA`gaz " (revolucion de la sal). Espaina " Paises Bajos "`ekin borrokan ibili zan eta dirua bear ebelako, or asten ziran gure FORU-LEGEA`ri lapurketak edo lapurketarako alegiñak, euki genduzan " JAUN " aldetik. Eta argi dago gure MATXINOAK gogor egiten ebela ere bai, gure askatasunak iraun dagian. Baiña Espainako guda-loste-zaindariaren diru-gosea edo premiña aundia zalako euren borroketarako eta gurekin zer ikusirik ez ebenak euki, beste erri-bat izan giñelako, bai-ta gure " JAUNTASUNA " Espainako erregearen eskuetan jausi zalako I Juan`etik aurrera; ortik eta gure arteko jendea eurenkin ondo bizi zana gure erria salduz, asi ziran gure NORTASUNAREN naasketak. MATXINADAK: Ziran, EUSKALERRI`ko JAUNA`ren aurka egite ebazan ERRI-BORROKA`k, eta gogorrak izaten ziran, arrantzan eta nekazaritzan urte txarrak ziralako, gosea baituta egon zan Euskal-erriarentzat. Orregaitik bigarren Matxinada 1718`ko urtean izan zan, zerga-etxe edo mugak Ebro ibaitik Auñamendi ta itsasora aldatu ziralako gure baimenik gabe.

1755`ko urtean, aragiaren garestia gaitik eta gure erritar langilleak ez ebelako irabazten ogi-zati baterako VI Fernando`ren denboran, bai III Karlos`en denboran ere, Frantzia`gaz zazpi urteko borrokan sartuta egon zalako, bai Inglaterra`rekin ere, gose aundia zan, eta gaiñeratu ez gero indarkerizko Espainol politika`ri, 1766`an Matxinada Ego aldeko Euskalerra guztian zabaldu zan.

1804`ko Matxinada`ri " ZAMAKOLADA " eritxon, eta Espaina`tarrak Frantzia`gaz borrokan ibili zirelako, gure mutillak derrigorrez eroaten ebezan gudara, Euskalerra`ko FORU LEGEAK iñungo kontuan euki barik.

Ikusten dogun lez, Euskalerra`riak Borboi`ari ere bizi-bizian aurka egiten eutson, baiña ez zan naikoa. Espainol`en gogotako " ERDIKERI-NAIA`ren INDARRA ", gudaren aitzakiak eta eten-bako goseak, geiegi izan ziran gure Erriarentzat. A ta guzti ere, ondiño ba-eukan indarra gure " FORUEN LEGEAGAITIK " borrokatze-ko.

Baiña argi ikusten dana da: 1629-1804 urteak arte, gure erria menperatzeko alegin aundi ta zitalak izan zirela.

EUSKALERRIA I NAPOLEONEN DENBORAN:

1789`an, Frantzia`ko iraultza asi-ta, Versailles`en, Agorril edo Abuztu`ko 4`an 10`garren lege-gaiaren autarpena egin zan, gure Iparraldeko FORUAK ezerezetu egin ebazana. Gero Esparterok 1839`an antzerakoa egin eban, gure Ego aldeko FORUAK ere ezerezean itzita. Aiek, Frantzia`ko Lurralde`en Jauna izatetik, Frantzia`ko errege izatera aldatu ziren, erri-berezi guztiak iruntsi ta menperatuz, Frantzez izkuntzara danok beartuta. Eta Espainak bardin egin eben, erria menperatuta, izkuntza ezeztatzeko alegiñean ere, zigorkada gogorraren bitartez. Baiña joan gaitezkan ikustera zer gertatu zan Frantzi`ko iraultzaren denboran I Napoleon`ekin gure karlistaren gerlaraño.

Esan bearrezkoa da aurretik, Euskaldunak ez genduzala jakin Napoleon`ek gurentzako euki ebazan egin-naiak, beren asmakizuna Euskalerrri guztia batera eukitea Mendebaleko Kaisar-gobernu batena izan zalako. Baiña beste aldetik Frantzi`tarrak 1790-1791`ean gogor asi ziren zigortzen Euskalerrriko abertzal guztiari, gizon/emakume, abade eta gotzain`ari Guillotinagaz lepoak mozten, eleizak erretzen eta kanpaindorreak kanpaiakaz botaten, erritarrak eizatzen, eta euki eben dirua, tresneri eta abere guztiak lapurtzen, 1794`an izu-ikara negargarri au goi-mallakua egin arte. Orregaitik Euskalerrria beren apaiz eta erritar`ekin Inghlaterra`ren aldetik kokatu zan.

A ta guzti ere, Frantzia eta Espaina`ko guda 1793`an asi zanean eta 1795`an Frantzia`ren eskuetan Gipuzkoa eta Bizkaia jausi ziranean, Getari`n egin zan menperatzaille egintzan, Euskal aldunak Frantzeza`ri esan eutzen: menperatuko zirala Euskal katolikotasun erlijioa, Fueroak, Oitura eta ondasunak, lotsagizunaren babesean eukiten ba-ziran, eta Gipuz`tar ta Bizkai`tar gazteak gudarako izkilluakin beartuak ez zirala izango; eta gud-arte (armisticio) orren jabe edo bai-emoile Frantzia`ko erria izan daitela esanaz.

Gure batzar nagusiak joko-ekintza orren bidez gura eban Espaina`ko menpetik urten eta Frantzi`ko errepublikagaz alkartu. Baiña, Pinet eta Cavainas Frantzezak Euskal aldunak espetxean sartu ebezan, ez ziralako berez menperatu. Etxabe`tar Jose Fernando izan zan mugialdi onen lenengoa.

Badago beste keiñu bat Euskalerrriarentzat, VII`garren Fernando, beren aita IV Karlos`i koroia atzera emoten dautsonean, eta onek I Napoleon`en eskuetan itzi. Espainartean aldundi-orokor bat egin zan, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa`ko batzar guztietatik aldunak egon ziran, bertan leenengo kostituzio egin zaneko alde bozka emonda. Euskalerrriarentzat oso ona izan zana, beste erri ezberdin baten erara artu genituztelako Euskaldunak, eta orrek bakarrik

gaur egunerako asko esan gura eban, gaur ortik askatasuna lortzeko, urrats gitxi emon bear genuelako.

Dana dala, aukera polita zan eta bakarra iraspen edo kostituziño ori 1978` rarte bakarra izan dana, baiña zori txarrez guda asi zan.

Madrillen 1808`an Loraila`ren 2`an Napoleon`en aurka matxinada asi zanean, Murat`ek irabazle urte eban, baiña ainbeste fusilamentu egin eban lez, Lurralde guztiak Frantzezaren aurka altzatu ziran. Orduan Murat`ek, oorezko guda-zaitalde eder bat osotu eban, Lapurdi`n, Be-Nafarroa`n eta Zubero`ko gazteak bilduta. Eta or ! agertzen gara naazte aundiagoa gure gogoetan sartuz, anaien arteko bo-rrokan.

Beste aldetik Garat senatoreak Napoleon`eri bigaltzen dautso idaz-saio bat, Frantzia`gaz bildu daitezcan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa, Euskaldunen artean babes-lur bat osotu daien " NOUVELLE PHÈNICIE " deitu egingo zana. Or ! ostera ere Euskaldunentzat orduan paregabeko aukera ederra, batera alkartuta agertzeko.

Baiña 1814`an Wellington`ek Espaina`ko guda Napoleon`i irabazi eutson, eta 1815`an Garagarrilla`ren 18`an Wuaterloo`ko guda nagusiaz, Euskalerra`ren amets guztiak, batuta agertzeko joan ziran. Andik aurrera Espainolak erasotzen asi ziran Euskaldunak euki gendun Espainol erregiakaz edo Euskalerra`ren Jau-nakaz antolamendua; Frantzezak 1789`an egin eben-en antzera. Ortik aurrera Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa; Benafarroa, Lapurdi eta Zuberoa`ren an-tzera, nai-ez: Espaina`ren kultur-mail edo politikako arazo guztietan sartuta egon giñen, karlista`ren gudak, Kuba`koak, Marruekoz eta Argeliakoak; eta Frantzi aldeko Euskaldunai bardin, Europa`ko gerla-naguzi biekaz, Marruekoz eta Argeliakoak. Gerla bilduma orren artetik aurrerantzean gure Nortasunari egindako arasoak, aundiak, zitalak eta eten-bakoak ziran, Euskaltasun izaera iltzeko ata Espainol ta Frantzez gure Euskaldunak biurtzeko.

Dana dala, Euskalerra`ren askatasunerako (ezereztu egin ebazanak), garran-tzi aundiko iru gauza ikusten doguz emen:

- 1ª.- Napoleon beren gudalozteaz, iraultzarekin etorri zala, gure erli-jio, apaiz ta erriari izekatuz, eta auek Inglesa`ren laguntza eskatu ebela.
- 2ª.- Euskalerra`ren itxaropenak Napoleon`ekin aundiak zirala; baiña danak ezereztu egin zirala Napoleon`ek Wuaterloo`ko guda-tokian euki eben ondamenagaz.
- 3ª.- Napoleon`ek Euskalerra`gaitik ikusi ebana, ez ebala lortu karlist-alderdiak ez abertzaletasunak eta gutxiago euki eutsoen Euskal-berezitasunaren eskubideari, auzo guztien aldetik, bear dauan lo-tsagizunagaz onartua izan daiten.

Bakarrik geratzen jaku, azkeneko gertakizunak karlistarekin ikustea, gure Euskalerriko giza maitagarri au, guztiz ipar-galduz agertu daiten.

KARLISTADAK. LENENGOKO GUDA:

Napoleon`en denboratik aurrera, Espaina`tar Liberal eta kostituzionalaren artean borroka gogorak izan ziran, nor ! sasi-jainko andiagoa izan orren bi pentsakera ezberdin artetik, eta gure Euskalerria erdian.

Orrek borrokak aurrera eroateko dirua eta gizonak bear ziran, eta dan dana eurentzat gitxi izan zan lez, Euskalerriko Jauntasunaren bitartez, Euskalerria menperatu gura eben, euki eben gudalozte`en bebesean (gaurko lez), eta or ibili ziran olgetan lez, gure mugak gora eta bera, diruaz bete ezinik, gizonaren be-rra eta gure Foruak ezeren kontuan euki barik. A-ta guzti ere, gureak ez ziran kikildu, eta noz-bein, alangoko gizon aundiak sortu izan dira gure Euskaldunen artean, Erriaren larritasunean bai beintzat. Zumalakarregi`tar Tomaz, alango bat izan zan.

Euskalerriak, berarekin euki eban aukera bakarria karlista gudaren bitarte- tik, Foruak maite ebazalako eta orduko gudal-nagusien artetik, aundiena bera izan zalako.

Ormaiztegi`n 1788`an Lotazil edo Abendu`ko 29`an jaio zan 11 nebaren artean, bera zazpigarrena izan da. Beren aita, Zumalakarregi`tar Frantzizko-Antonio erregeen idazle izan zan eta orregaitik Foruak zer ziran ondo baiño obeto jakin eban. Baiña kokatu gaitez an orduko Foruen gaitik pentzakeran, ikusteko nolako- ak izan ziran, eta Tomas Foru- tarra edo Euskal alderdikoa izan arren, beren anai Zumalakarregi`tar Mikel-Antonio Liberal edo Espainolaren aldetik beti egon zan.

Gure erriak Karlos M^a Isidro edo V Karlos`i eskaifñi eutson laguntza gure Foruak babestearen ordez, eta orregaitik Liberal`dar Espainol aldetik " Foruakaz Bakea " eskeifñi arren, Tomas`ek V Karlos errege izan nai gura ebanaren alde kokatu zan, Forua`ri zin eginazoaz, Euskalerrarentzat alde onena izan zalako.

Zumalakarregi`tar Tomas`ek, gudal-nagusiena izanaz eta Espaina`ko gerla irabazten joan arren, karlista taldean balekite ikusi-eziñak edo izan-gureak sortu zirala, neure ustez saldukeria egon zalako; ankan, beleuna baiño gorago artu eban tiroagaitik, an inguruan ez ziralako egon euren taldekoak baiño.

Dana dala, Tomas Zegama`ra joan zan zauritua osatzeko, baiña ez eban-gura lez ankea moztuterik, zaborraldirekin (têtanos) il zan 1835`an Garagarrilla`ren 25`an. Ortik aurrera karlisten taldean naaste eta ezin-aldi aundiak sortu ziran, beste judaskeri baten bidez gure erriarentzat 1839`an guda galduz.

Emen esan bear da, Espaina`ko borrokan, ez zala bakarrik izan errege-leñuaren borroka irabazi bear zana, nazifñoaren arteko gizartean nork agindu bear eben baizik: berezitasunak a la menperatzaillak. Eta ori izan zan borrokatzen zana.

Begitu bestela, Espainola`ren Lege-batzarreak 1835`an Loraila`ren 17`an nazifioaren-arteko laguntza eskatzen dauanean, euren artean len erabakita egon zana " lau nazifioaren elkargoagaz ". Ingalaterra izan gudari geien bigaldu ebenak eta Frantzezak bigarren. Karlistaren aldetik bardin, nai-ta auek gogokoak (voluntarios) izan: Aleman, Portugesak, Inglesak, Italiarrak, Frantzesak eta atzerritarren taldea.

Karlistak ondo baiño obeto borrokatu ziran, baiña liberalak laguntza aundi-agoa euki ebelako (Franco gudan lez) irabazi eben borroka nagusia.

Borroka oso luzea da meperatzailleak eta berezitasunak daroaguna, len-bez, ez zana argitu, lenengo karlistadan ere ez, ez bigarrenean, Munduko lenengo gudan ere ez, Franko`renean bez, Munduko II`garren gudan ere ez diranak konpondu, eta gaur egunean Europa bai-ta Mundu guztian pil-pil dagozan borroka gogorak lendik datorzan arazo bardiña gaitik; eta dan guztia: " meperatzailleak ez dautsielako itziten berezitasunari euren ardurak betetan " da !. Eta gaiñera, ez dakit nungo " goiko sasi-jainkoari ezker ".

JAINKOA`k arduradun sortu genduzan Mundu onetan, eta berezitasun ori nai-ta nai-ez nor-beragandik asita erri baten amaitzen da, erri guztiak berezitasunezkoak izan da. Eta or ! Munduko arazoak konpontzeko bidea, danak arduradunak izan da, JAINKOA`k beartzen gaitun lez.

Orregaitik Euskaldunak Ipar-galduta agertu giñen Sabino jaio orduko, baiña Sabino berak esaten eban lez Euskalerriaren ondamera ikusita: " JAINKOA izango da..., gura ez dauana au desagertu daiten ? ".

Sabino bera izan zan Euskalerra ikaragarritzko leize-zulotik atara ebana, erritarrai aberkideak izan bear dirala ezanez, or dagoalako JAINKOA`ren bidea Euskalerra eta Mundu guztien ardurak betetako bidetik. Euskalerra lortu dau abertzaletasuna, geienean beintzat, baiña ez gabiltz zuzen, eta ori da zuzentasunean ipini bear dana. " Nai-ta naiezkoa da !! "

" EUSKADI ASKATU DAITEN "

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.001`an JORRAILLA`ren 3`an

Atzo zornotzan, 2.001^{an} Apirilla^{ren} 22^{an}, Larrako Karmeldarren Parrokian, goizeko zortzi ta erdietako mezan, Bilbo, Gazteiz eta Donostia^{ko} gotzaiñak idatzita, Pastoral bat " BAKERAKO BOTO " ak emon euskuen eleiztarrak irakurri daigun. Eta esan bear dot, neure poztasuna lortu baiño, ustekabe aundiagoa sortu eustala. Ez bakarrik eleizako sermoietan entzuten dogunagaitik, bai Espainia^{ren} gotzaingoaren mezuagaitik ere: " ETA eta beren ILKETAK " bakarrik aipatzen diralako, asken baten Euskalerrriaren etsairik aundienagaz bat egiñaz.

Neure Kristautasunaren ustean, zalantzako mezua dala aitzen dot, eta orregaitik zati bitan bananduko dot idatz-lan onen zeaztasuna.

EUSKALERRIA:

Euskalerrria zaarra da, eta orregaitik esaten dot oso jakintsua dala, ainbeste milla urtetako biziaren zuzentasunak, berez zeozer emoten daualako. Eta nik esango neuke gauza asko emoten dauzala: adibidez izkuntza, Euskera bera, Gaztelaren eta Frantzez aurrean askoz geiago da irakaspidean, nor bera konturatu barik zuzentasunean kokatzen gaitulako.

Eta ez da arrokerizko gauza bat esaten nabillena, ikusi baiño ez dagoalako edestitik zear, nolako gizonak euki dauzan Iñazio gandik azita, Aita Bitoria eta abar asko, eleizari ia dan guztia eurok emon dautsela gaur arte. Espainol sindikatoak ere bai, emen euki dabelako aukera eta emen egin ziralako, eta aurrerakoi izatez gaur egunean egiten dauanagaitik, ez da ikusten Mundu onetan besterik (eta ez nago odolagaitik berbetan). Berezitasuna daukala, begiak eta belarriak bakarrik bear dira ikusteko eta entzuteko.

Sekula ez da erasoan joan, bai alderantsiz erasoan etorri direnak auren lekura bota. Benetan esan leike, gizonak, eta batez ere menperatzaillak gauza garbirik ikusita, nai gizon, beren lana edo erriak izan-dabe, lokastu egiten dauela, daukien balioa kenduarte, euren asken bako sabel-zorriaren gosea sekula ez dalako betetan. Eta emen itaun bat agertzen da, benetan gogorra dana: Noren jainkoagaitik egiten dabe ekintza ori " GAIAREN JAINKOA GAITIK ala ZERUKO JAINKOA GAITIK ?. Dana dala, Euskalerrria or dago tinko !!, beren ardurak bete gurrean, BEREN NORTASUNARENAK DIRALAKO.

ELEIZA:

Euskalerrriko gizon emakumeak oso JAINKO zale eta Kristauak gara Kristo etorri zanetik. Baiña antziñetik ere gaurko arazoa euki gendun, len inperioak edo aginduaren arazoa (globalizazioa edo oro-arren aginduaren naia), eta gaur egun ere bardin globalizazioarekin. Len bakotzak beren etxeko ardurak eroaten ebezan eta Euskalerrriko Eleizak ere bai; baiña gauza bi kontuan euki bear doguz:

1ª.- Konstantinok Eleizari emon eutson eskubidea Europan Mendebaleko Katolikotasunagaz, eta Rekaredo`k Eleizarekin bat egin ebenean Toledo`ko kontzeilluak sortuz. Ortik aurrera, Eleizak ezin izan dauz kaizar-zaleen gogoak geratu eta apurka apurka menperatzaillak irabazten joanaz XVIII`garren gizaldera eltzen gara, eta or !, menperatzaillak berezitasunari emoten dautso, ala emon gura dautso azkeneko aitzokada edo sastakaria, berezitasun guztia menpean eukiteko. Nungo aldera joan zan Eleiza, beren ardurapean eukinda Europaren Mendebaleko menperatasuna XV Gizalditan ?. Laster ikusiko dogu.

Euskaldunak 1820-1823`tik asita, bost borroka gogorrek euki doguz eta sei ikusi Munduko lenengo gerlarekin, danak ! menperatzaillak berezitasunaren aurka; eta or dago orain ere arazoa zuzendu barik. Baliteke JAINKOA oso okerra izatea, gizon-naikeriaren aurka, Munduko gizonaren etorkizunean berezitasun-berriztuarekin. Ainbeste zori-txar`zen ostean erabagi on bat artu zan: aurrerantzean ez zala gerla geiagorik izango, eta demokraziaren bidetik garbitu bear zala betikoa dan arazo au. Orregaitik ainbeste zarata gaur egunean; benetako denborak diralako, eta bakotzak beren ardurak lotsagizunagaz garbitu bear dazalako.

Arduradunaren denborak diralako, arazoetan BUSTI-BEARRA dago, eta nai-ta nai-ez bakotzaren menperatzaill alderdia edo berezitasunaren alderdia non dauan kokatuta jakiteko.

Orregaitik Eleizari, itaun bakarra egingo dautset: XVIII`garren gizaldetik aurrerantza, eta gaur egun arrazoi geiagorekin, ez dauala esaten: " EMEN ERRI BAT DAGOALA edo EUSKALERRIA ERRI BAT DALA ". Ori: Batikano`ko II Batzar Nagusitik errez ateraten eta XXIII Juan`ek argi itxi eban " PACEN IN TERRIS " agirian, eta ori izan zan Añoberos Gotzaiñak agertu eban arazoa.

Espaina`ko gotzaiñak au diñoenean: " ETA eta LAGUNTZAILLEAK EZ DIRALA KRISTAUAK eta ALBORATU EGIN BEAR DIRALA. Zergaitik ez dau argi esaten " LAGUNTZAILLEAK " nortzuk diran ?. Or ! jausten da Espaina`tar politikaren illuntasunera, eta esan leike ABERTZALE GUZTIAK SARTZEN DAUZALA.

" ARGITASUN GEIAGO ESKATZEN DOGU ETA EUSKALERRIA ABERTZALEAKAZ BATERA DAGOKIEN LEKU TXALOGARRIAN IPINTEA ESKATZEN DAUTSEGU GURE ELEIZAKO ARDURADUNAI. OR ! IKUSTEN DOGULAKO ZALANTZA ".

Asko baiño geiago lagunduko eben, gauden lokatzatik urten daigun iñungo zalantzarik gabe. Len aipatu dodaz Zeruko JAINKOA eta gaia`ren sasi-jainkeria. EUSKALERRIA ZERUKO JAINKOAZ BETI DAGO, ZAARRA DALAKO BESTE GAUZARIK EGITEKO. ETA ZIUR EGON, ASKENEKO ARNASARAARTE IZANGO DALA. JAINKOA`RENGANA JOAN ARTE.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.001`an APIRILLE`ko 22`an

Ni sekula ez nintzan egon inguru ortan, eta Latxagak ara eroan ninduan Kodes`eko Santutegia ezagutzera; inguruko erritxoak ere bai, idazki onen bitartez, obeto ezagutu daigun gure Euskalerrri maite au.

Kodes`ko Mendi-besanga onek, Laterri-Geografiko bat (Geografia-politica) osotzen dau, nai Urbasa`ko Mendi-katean eta Toloño`ko (Cantabria) Mendi-kate artean egon arren. Iparralde`tik Kanpezu`ko Santa Gurutze eta Ego-aldean Biana; Sartalde edo Eguzki-aldetik Lapoblacion, eta Ego-sarkalde edo Ego-Mendebaletik Sansol`ek mugatzen dabe.

1930`an 3.800 Giza-seme euki ebazan Ibar onek beren 10 erri-txiki: Agilar de Kodes, Torralba del Rio, Azuelo, Otiñano, Kabredo, Maraño, Desojo, Lapoblacion, Espronzeda eta Uxanabilla (Genevilla) auetan.

Kodes`ko Santutegia`ri, len Yoar edo Joar-Santutegia deitzen eutsoen, Joar mendi barrenean dauelako kokatuta; eta esaten dabe, Ama Birjiñaren irudi bat daukala, maomatarren erasotik iges eginda Toloño`ko-ak ekarritakoa.

Beren jaiak: Torralba del Rio`tarrak Loraila`ren lenengo Larunbatean ospatzen dauana; Desojo`k, Loraila`ren leenengo Domekan; Espronzeda`k, Mendekoste`ko bigarren egunean; Agilar de Kodes eta Berrueza`k, Mendekoste`ko bigarren egunean ere bai. Jende asko joaten da egun orretan Lizarra`ko Merindade-tik, bai Logroño eta Araba`tik ere. Beste jai eder bat ere ospatzen da Ama-Birjiñaren Jaiokunde`ko urrengo Domekan Irailla`ren 16`en inguruan dana; erro-mes asko ortozik eta soin-gaiñeko bai kapeluz edo burkoz estalita doazenak. Jai aundia izaten da.

IZKUNTZA:

Euskara izan zan euren izkuntza, baiña zori txarrez XI`garren gizaldetik XVI`garren gizaldera galdu eben, gaur Gaztelera da euren izkuntza, baiña uste dot euren gizon/emakume-aldi etorkizunean osatuko dabela Nortasun-zauri latz ori.

POLITIKAN:

1932`ko auteskundetan, autonomiaren alde egon ziran Torralba del Rio eta Azuelo izan ezik, utziera edo atzenzioara jokatu ebelako. Denbora ortan, jaiak ezpatadantzariekin ospatzen ebezan. Jendarte maillan, ezberdintasun aundia egon zan euren artean, eta ekintza orrek, euren arteko bizia mugatu egite eban. 1936`an Otsaillaren auteskundetan amar erritxo orreitan, eskubi alderdikoarentzat 1.279 bozka izan ziran; 211 E.A.Jeltzalearentzat; eta 119 ezker aldeko-entzat. Baiña euren Euskal sinismena 1932`an Iruña`ko biltzarrean ziñatuta geratu zan, autonomiaren alde jokatzea gaitik.

1936`an guda asi zanean, iru gizon izan ziran izkillatuak: Agilar`eko Juro`tar Angel Dionisio, Irailla`ren 25`an; Desojo`ko Sainz`tar Maximo, San Kristobal`eko gaztelutxoan sortu zan iges`aldian erioztu ebena; eta San Bizente`tar Bitorino, Urriaren 11`n Lizarran espetxeratu ebena eta 1937`an Epailla`ren 22`an Azketa-Iguzkiza`ko bide egal baten ilda agertu zana. Nafarroan tiro aldirik ez egoteko lartxo uste dot dirala. Ezker aldeko zifnegotziak ere kendu ebazan, Republikanoak, Abertzaleak edo Irujo aldekoak ziralako. Eta euren artean ere salaketak egon ziran, ezifñ-ikusia gaitik edo lurrak eurentzat gura ebezalako eta abar. (NABARRA 1936 " DE LA ESPERANZA AL TERROR " 59 orrialdean).

Zeintzuk ziran, Latxaga eta nire gogoak Agilar`ko Ibar ori ikusterakoan ?:

1^a.- Nolako itxura daukan geografiko`ki eta gizatasunean.

- Leenengo arlotik esan bear dot, zugatzen utsune asko ikusi nebala inguru-etatik, erain ez diran lurretan; eta orrek alperkeria erakusten dau. Gizatasun aldetik, Euskal petoak dira eta langilleak, abere eta nekazari-tzatik bizi diranak: bii edo aleak (cerealeas), lur-sagarrak, leka-gauza, ortuari, maatsa, azukrearen arbi edo udarbia (remolacha azucarera) eraiten dabez; au da, Nafarroan mendi bealdeko lurrak ondoen emoten dauana.

2^a.- Jakitea, nolako artegatasunak daukiezan.

- Ez gendun denbora aundirik euki zeatz jakiteko, arrasti bat luzea izan arren, ez daualako emoten ainbesterako: lurraldea, bas-elizak, Kodes`ko Ama Birjifñaren Santutegia ain politak direnak, baratzak, mezuak ikusi, argazkiak etara mezuari eta abar. Idatzitako mezuak asko ikusi genduzan orma zarretan, arri aundietan, etxolen barruko eta alboko ormatan, lantegi aurre aldeetan eta abar, alde bietakoak: Nafarroa Espaina ez dala, presoak kanpora, guardia zibillak kanpora, Espainolak faziztak zarete eta abar, alde batetik; beste aldetik, Nafarroa Espaina da eta aurkako gauzak; eta ikusi gendunagaitik bizi-bizian.

Azuelo erritxoa barrutik ikustera joan giñan, eta an dagoan San Jorje Monastegi ederra eta edesti oso zarreakoa, baiña zarratuta egoan. Arduradunaren billa joan bear gendun eta bereala agertu zan. Berarekin berbetan egon giñanean, konturatu gintzazan ezeukela Nafar-edestiarekin adore aundirik eta politika arloan gitxiago.

3^a.- Eurongandik zer jakin gura gendun, gaur arte ez dakigunik.

- Leenengo beintzat, euren Euskal-Nortasuna nola dagoen. Idatz-borroka bizi orrek, nolako egia daukan; eta nolako indarrak daukiezan Ibar ori txukun-txukun aurrera eroateko.

Arrasti on-bat gozatu gendun eta gauza asko ikusi, baiña ez guk gura gendun beste, eta orregaitik itzi gendun beste egun oso baten ikertzeko. Ori bai !, ogitarteko gozoakaz eta ardo onarekin.

" BATEN-BAT GEIAGO ARDURATU BEAR LITZAKE OLANGOKO GAUZAKAZ "

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.001`an LORAILLA`ren 31`an